

# Hegats

LITERATUR ALDIZKARIA

[50]



**Jon Mirande:**  
**gogoeta itxi gabea**



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTE



KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



## **Zuzendaritza Batzordea**

Lehendakaria: Ander Iturriotz  
Batzordekideak: Joxemari Carrere, Cristina  
Lasa, Juankar Lopez Mugartza, Pako Aristi,  
Jasone Osoro eta Josune Muñoz  
Zuzendaria: Iratxe Etxebeste

Diseinua, maketazioa eta inprimaketa:  
antza komunikazio grafikoa



Zemoria kalea, 25 behea  
20013 Donostia  
Tel: 943 27 69 99  
Faxa: 943 27 72 88

Posta elektronikoa: [eie@idazleak.org](mailto:eie@idazleak.org)

ISSN: 1130-2445

Lege Gordailua: SS-359/90

*Euskal Idazleen Elkaratek ez ditu derrigorrean beregain  
hartzen Hegats aldirikako kolaboratzaileen iritziak.*



|                                  |     |
|----------------------------------|-----|
| Aintzin Solasa                   |     |
| Ander Iturriotz .....            | 7   |
| Jon miranderen heziketaz         |     |
| Itxaro Borda .....               | 9   |
| Jon Miranderen poesiaz iruzkinak |     |
| Patri Urkizu .....               | 31  |
| Mirande, faxistak eta filosofoak |     |
| Ander Iturriotz Lauzirika.....   | 57  |
| Elkarrizketa: Emilio Lopez Adan  |     |
| Nora Arbelbide .....             | 213 |



## Aitzin Solasa

Egun batzuren buruan gertatu zen. Txomin Peillenek liburu berria argitaratu zuen Mirande poetari buruz (*Jon Mirande, olerkaria*, Euskaltzaindia, Bilbo, 2013) eta, Baionan, *Elekatu-elikatu* izen iradokigarria daraman elkarteak antolatuta, mahai-inguru bat izan zen, hau ere, Miranderi buruz. Indarrak galtzen ez duen idazlea baita Parisko zuberotarra.

Oso urrutira joan gabe, esaterako, Bilbo Zaharra euskaltegiak egun osoko irakurraldia antolatu zuen iaz *Haur besoetakoa* nobela laburrarekin. Udako Euskal Unibertsitatea (EUE) eta Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) lankidetzan antolatu den *Euskal Pentsamendua* Graduondokoa ere lekua izan du aurten Mirandek.

Baionara Itxaro Borda, Luzien Etxezaharreta eta hiru-rok gonbidatu gintuzten. Aldez aurretik egindako gogoe-tak luzatu, eta, saioaren ostean, eztabaida piztu zen. Piarres Xarritonek esku-izkribu zahar batzuk erabili zituen, Laffiteren alde. Emilio López Adanek, lagun-giroan, Miranderen pentsamendu politikoan sakondu zuen. Ez baita inoiz itzailiko eztabaida Parisko zuberotarrari buruz.

Abagune hura ez galtzearren, monografiko bat egiten saiatzeak mereziko zuela pentsatu genuen.

Baionan aurkeztu ziren hitzaldietatik, bi artikulu dituzu hemen.

Patri Urkizuri eskatu genion hirugarren artikulua. Eskergarriak dira, oso, halako lankidetzak.



Lapurdiko hiriburuan piztu zen eztabaidaren itzala jasotze aldera, Emilio López Adanekin aritu da hizketan Nora Arbelbide. Eskerrak hari ere.

Beste hondar-ale bat duzu eskuen artean, irakurle. Hondartza egiten ez duena, Aristotelesen enarak uda egiten ez zuen bezala. Baina aiez ale eutsi diogu beti galmenaren itsasoari. Ahazturak eraman ez gaitzan.

**Ander Iturriotz Lauzirika**  
**EIEko Lehendakaria**

## **Jon Miranderen heziketaz**

Itxaro Borda

***Puisque l'horreur est humaine...***

**«Aux armes citoyennes»**

**ZAZIE abeslaria.**

Asko idatzi da Jon Miranderen misoginiari buruz. Josune Muñozek 2011ko ekainean, *Haur Besotakoa* nobela ardatz, Sareinak blogean eskaini iruzkin luzeari zer gehitzen ahal geniokeen galdezka gabiltza. Mamitsua da eta azalpenetan neurria atxikitzen daki. Egia da ez dugula besterik egiten. Feminista *mal baisées* izaeraren minetik mintzatzen ausartzen bagina uste dut Miranderen izenik gabeko euskarazko literatura bat asmatzera heldu gintezkeela eta muturre-ra jo genezake Lafitte minduri-muturzuriaren ebazpenei arrazoi ematera alegia, disgustua hazten digulako irakurtzen dugunean, ahalkea halaber, irri egiteko gutizia guztia irensten hots. Ez da idazlearen errua bistan dena, lerrateke izpiritu objektiboek, gure falta baizik, keriaraino sentisbleegiak garelako generoaren alorrean.

Jon Miranderen poema, artikulu eta nobelaz gain, gutunak plazan daude haborokinenak. Beti gerlan zabilen gizona zen, arrazista, antisemita, Frantzia sail orotan apalesten zuena, demokrazia urdeentzat zeukana, -ideia horri Amurizak 1980 urteetan oihartzun berria eman zion Euskal Herrian Euskaraz Oskorriren kantaren hitzetan *bota dezagun demokrazia zerri askara ziola*- herrialde menperatuaren batasunzalea eta zenbaiten gustuz ETArek sorrera bere gudarostearen proposamenaz txalotzen baina erakunde

armatuko kideak gogoko ez zituen. Gizon ahula zen indar militar itsuaz nortasuna gotortzeko xedearekin. Gurasoak zendu zitzaizkionean bere mundua lehertu zen eta heriotzara eramango zuen gainbehera hasi zitzaion, 1970. hamarkadan hain ohikoa zen barbiturikoz eta alkoholez aserik bere buruaz beste egin zuen arte.

Baionako Hor Konponen egoitzan *Elekatu* elkartean iragan urtarrilaren 3 In antolatu gaualdiaren bukaeran Piarres Charriton altxatu zen Lafitte kalonjearen defentsaren hartzeko. Otsoek ez dituzte otsoak jaten. Etxean Lafitte eta Miranderen arteko esku-izkribuak bazituela aitortu zuen. Aldi berean Txomin Peillenek, lauzpabost urteetarik behin, Miranderekiko bere adiskidetasunaz oroitzuz, xehetasunak pirttaka laxatzen dizkigu, idazle zuberotar ikonoklastaren omena zuritzen saiatuz. Ez gaituzte biziki laguntzen. Noizbait artxibo horiek libre diratekeelarik menturaz Jon Miranderen potreta egokiago orrazten ahalko dugu. Ohartuko gara orduan bere nazismoa ez zela estetikoa eta britainiar abertzale eskuindarrenekin argazkitan azaltzea, Jean Marie Le Pen-en aldamenean, literatura eta herri zapalduen kultura harreman soila lantzeaz haratago zihoala.

Jon Mirande Parisen sortu zen 1925ean eta gogoratzten ahal dugu hogeitau urte bete zituela 1944an, Frantzia alemaniar armadaren atzamarretan gatibu zegoela. Irudika dezakegu SS oldeak ordenatuki eta larderia barreiatuz karriketarik pasatzen ikusten zituela, garai hartako Drieu La Rochelle idazle adinduagoaren pare, barne-harrotasun bat nabaritzen zuela eta sentimenduari segida eman zion ondoko hogeita hamar urteetan nazia, arrazista, zurizalea, demokraziaren kitzikatzailea zela goraki errepikatuz,

adiskideak irakurleak bezala probokatzeko. Harritzen naiz halaz ere Joxe Azurmendiren lumapean, Miranderen pentsamendua aztertu zuelarik eredugarriki, zuberotarrarekiko zehar-ohar izpirik ez kausitzea, gutunak *Heil Hitler* ala *Juduak hil* perpausez bukatzen zituen arren. Erran izan da ausarki Spengleren eta Nietzscheren ikuspuntu filosofikoak partekatzen zituela. Agian ikerle abertzale askoren Miranderekiko beratasunaren oinarria aurki dezakegu Frantziarekiko bezain demokrazia kristau biltzar dekadentearekiko gorroto biszeralean. Frankok idazlearen nazismoa naturaltasun osoz kontsideratu zuen, ahantziz nazismoa zela kausa milioika juduk, tziganek ala homosexualek -ordukoa da triangelu arrosaren ikurra- bititza galdu zutela Auschwitz, Birkenau, Sobiboren, Belzenen eta horrorearen zerrenda luzatu nezake nahieran.

### **Politikaren zero gradua**

Bigarren mundu gerra bukatu eta idatzi zuen artikulu batean Miranderen izpiritu egoera dakusagu erraz. Testuak *Frantziar Errepublikaren Meneko Herriak* du titulua: *bañan Estatuak eta Eskolak gure nortasuna itzal araztea arren mende ta erdi hontan egin dituzten alegin guztiak gatik ere, oraindik badira abertzale-igikundeak aipatu ditudan sei errietan, eta hori miresgarri da, kontuan artzen ba dugu zer baldintzetan ari diren lanean. Orain dala ogei bat urte, Frantziak Alemaniaren kontrako gudua galdu eta atzerritar gudariak haren lurrean zeudelarik, aski nabarmenki buragertu ziran abertzale-igikundeok. Ergelkeria litzake delako abertzaleak maixeatzea, «nazi»ekin lankidetu zirelakoan. Irlandarrek ba dute esaera bat: «England's difficulty, Ireland's opportunity». Zuzen ta*

*bidezko da geuk ere halaber joka dezagun zangopetzen gaituen Estatuaren aldera.*

*1940garren urtean Errepublika lurtatu zanean, ba ziru-dien garai berri bat astera zijoaia Frantziaren menpeko erri txipientzat. Petain mariskalaren gobernuak —ez dakit bere oguz zen, ala atzerritarrek ala nairik— askatasun geixeago ematera zijoa erresumako eskualde bereziei beren nortasuna lant aal zezaten, eta ba zen aipua aitzinako provintziak berriz ere ezarriko zituztela departamenduen orde. Bañan 1944garren urtean —zeinbatentzat «liberazino» aren urtea izan ba da ere— berriz ere frantzitar zentralisten uztarpera erori gera osoki. Beren erriaren alde zerbait egitera saiatu ziren abertzaleak errukirik gabe persegiturik izan ziran, Alemanen lankide izandako Frantzitarak baño lazkiago noski; aipa Goihenetxe Euskaldunen artean, Petru Rocca Korzikan, Gantois apaiz jau-na Flandesetan. Bretain bereziki, ugari baitziren abertzaleak erri hontan, izugarriko sarraskiak egin zituzten emakume ta aurrak erailduz, presondegian ezarriz e.a. Ez dago hori aztutzerik eta bein, goiz ala berandu, gure apentzaren ordua etorriko da noski. Hala uste dut beintzat.*

Ahoan bilorik gabe laudatzen zuen Mirandek Frantzia Vichysistaren politika kulturala. Naziek eta Petainek hizkuntza gutxituak plazara jalgi arazi zituzten ordena sozia-la zein moralaren errestauratzea obratzeko. Denak sartu ziren zepoan buru-belarri: papera eskuratzearen trukean, *Eskualduna* astekariak bortxaz, baina ez zuen sobera bortxatzerik, Office Français d'Information agentziaren berriak zabaltzen zituen euskaraturik, alemanen gorazarreak, Hitleren osagarriarekiko xehetasunak eta gorrien zein juduen kontrako erasoen justifikatzeak. Frantziako kultu-

ra-iraultza Jérôme Carcopino arkeologoak eraman zuen *au service de la Révolution nationale, le tempérament le plus autoritaire et la poigne la plus rude* Jules Isaac historialariaren arabera. Petain-en hitzak bermatzen ziren 1942tik 1944era iparraldeko idazle gazte askok –Iturralde, Xabier Gasteiz, Marc Legasse edo Iratzeder anaiak adibidez– ku-deatzen zuten *Aintzina* hilabetekariaren bigarren orrialdean: *le régionalisme fera la force de notre pays*. Ez bide ziren *Aintzina*-ko kideak oro naziak, noski, kolaboratzaile kulturalak behintzat bai argiki. Batzuek Vichyrekiko hurbiltasun lanjerosa ordaindu zutela oroitu arazten du Jon Mirandek, erantsiz eskualdeen bizkarrera berriz berunezko txapa bat lehertu zela 1944tik hara zeinbatentzat «*liberazino*» *aren urtea izan ba da ere*.

Hitler-ek, behiala Napoléon I.ak bezala, Errepublikaren aurka eskualdeak botere zentralen kontra oldartu araztea zuen xede. Napoleon I.aren maletetan etorri ziren euskara hizkuntza gisa aztertu zuten lehen jakintsuak eta Vichyren denboran dirua banatu zen bretoiera, euskara ala korsikera sustatzeko fedearen, odolaren eta emazteen garbitasuna ardatz: *zorigaitzez mamu batzu ari zauzkigu gure aphaunduraren itsusten, chilakatzen, bipiatzen (...). Mamu hetarik biga dauzkitzuet bereziki aiphatuko: Erdara eta lizun-keria. (...) Jesu Kristoren denboran ere, ez zen arameano mintzaira biziki hedatua. Bainan, halere, mintzaira hortan eman ditu Jesusek bere erakaspenak (...). Jesusek bere gisa utzi zituen greka eta latina, memento hetan gehienik hedatuak ziren mintzairak (...). Eta hori bere haurtasuneko mintzairaren fagoretan, hunen ez ukatzeko. Etsenplu ederra guretzat! (...) Zerk egiten du bada, Jainkoaren begietan, odolaren garbita-*

*suna? Lizunkeriaz nahastekatua ez izaiteak! Lizunkeria eza-  
gutzen ez duen odola, hura da Jainkoarentzat odol garbia (...).  
Egiaz dautzuet, Jainko maitearentzat hobe da Eskual-Herria  
kaskoindua, bainan on gelditua (holakorik amets othe ditake!)  
ezenez eta Eskual-Herria eskualdun gelditua, bainan tzartua...  
Ez zena ederki mintzo Lartzabal apeza Aintzinako orrial-  
deetan 1943ko maiatzean?*

Derragula bestalde Mirandek inarrosten dituen ideia-  
parpaila likitsak aspaldian zebiltzala European barrena: ju-  
duak kitzikatzen ziren *Eskualduna* astekariaren zenbaki  
bakoitzean –gogoratu 1914-1918 aldean zortzi mila ale  
banatzen zirela- eta framazonak eta gorriak infernuko bai-  
zik ez zirela on! Hain zuzen Napoleon eta Hitlerren arte-  
ko European, prentsak bezain kultur gintzak 1942 eta 1945  
bitartean agituko zen sarraskia berez onartzeko kondizio-  
natu zituzten herritar belaunaldiak. Bigarren mundu gerra  
bukatzean *épuration* delakoa obratu zen, alemanekin ibili  
ziren emazteak buruhastu zituzten ikuskoiki, hedabideeta-  
ko nagusiak, politikariak eta kolaboratzaile agerroiak epai-  
tu eta gaztigatu ziren, bakarrak fusilatu zirelarik. Maurrasen  
hausnarketak ardatz, Jon Mirande kolaboratzaile pasiboa  
zela generrake. Gutxienez, Montparnassen biltzen ziren  
bretainiarrekin, ikasleak ala langileak, berandu arte zegoen  
harremanetan Mirande, Jean-Marie Le Pen 1954tik hara,  
Jean Markale edo Goulven Pennaod kasu. 1970eko argazki  
bat daukagu lekuko. Mirandek gutunez gutun aldarrikatzen  
duen faxismo kutsu hori dabil oraino, muturrak elkartuz,  
Ezterenzubin, Etxarrin ala Ainhoan Le Pen-en alde 2012ko  
apirilaren 22an bozkatu zutenen gogoetan. Probokazioa  
eta eskuindarren aurkakaria deskonplexatua.

Bretainiako historialariek euskaldunek baino finkoago jorratu zituzten Vichy urteetako dokumentuak, orduko abertzaleen jokaerak argira ekartzeko. Bretoiera hizkuntzaren ofizialtzea eskatzen dutenak oraindik ere bigarren mundu gerrako alemaniarrekiko kolaborazioaren tatxa begipean jartzen dira. Eskualde-hizkuntzen azkena eragin behar zuen nazien horroreekiko uztarketa ideologikoak. Mirandek alde horretarik amalgama indartzea baino ez zuen lortu, iparraldean behintzat. Zena zelakoa, Britainian alemaniarrek militante abertzaleak erabili zituzten erresistenteen aurka borrokatzeko. Autonomistentzat premia-koa zen Vichyk aireratzen zuen *révolution nationale* hura, kontra-iraultza zelarik, Errepublika frantsesa suntsitzeko asmoz. Baldintza horietan populu bretainiarra onartzen ahal zen, flandriarra ala euskalduna ere, Mirandek eskatzen zuen eran. Eta nehor ez zitekeen *untermenschen* haietan sailkatu juduen, beltzen edo tziganen antzera;

Interesatu gaitezen orain Jon Miranderen adiskide min zen Goulven Pennaod bretainiarraz. Georges Pinault Saint Maloko portuan sortu zen 1928an eta 1944an preso sartu zuten aliatuek Roparz Hemonek (\*) alemaniar legeari jarraituz kudeatzen zuen *Radio-Roazhon* irratian lan egiten zuelako. 1945etik hara Parisen zen banku bateko langile, frantses armada kolonialean sartu baino lehen. 1954ko Dien Bien Phu tupinako borroka galduan zegoen soldadu. Armadan zen Jean Marie Le Pen ezagutu eta segur aski Pennaodek ziokkeen Le Pen Miranderi aurkeztu, guztiak zirkulu neonazietan zebiltzalako gerra ondoko Placide kalleko *Ker Vreizh* batasunaren aizolbean. *Al Liam* aldizkariko orrialdeak ireki zizkion halaber eta 1963ko zenbaki batean



Mirande «*l'un des plus importants des lettres basques de ces dernières années*» zen. Lapurdum aldizkarian, Francis Favereau ikerlariak hauxe izkiriatu zuen 2000. urtean: *Pennaod a également évoqué Mirande dans la préface d'un manuel de basque en breton, à paraître. Il fut, en effet, dans ces années d'après-guerre, un des compagnons de celui qui est considéré aujourd'hui comme un des grands poètes basques du siècle, mais cependant présenté comme un Basque (français) aux idées ouvertement fascistes, racistes, antisémites et xénophobes, ce qui semble conforme à ses écrits. On trouve même, dans les pages de sa revue confidentielle AR STOURMER des textes d'un goût détestable, pour ne pas dire plus, comme un poème de Pennaod et Mirande qui narre le viol d'une très jeune noire.*

Txomin Peillenen eskutik 2013ko urtarrilean Euskaltzaindiaren hegalpean publikatu den *Jon Mirande, olerkaria (Jon Mirande, poète parisien)* azaltzen da idazle zuberotarraren liburutegian aurkitu ziren obren zerrenda, liburuak eta diskoak. Horien artean Hitlerrek 1925ean Landsbergeko kartzelan izkiriatu zuen *Mein Kampf*-en ale bat atzeman zen. Alde askotarik Hitlerren miresleatarik zen eta hala agertzen zion gutunetan Peilleini berari. Iruditzen zait, nahiz eta urte oroz zerbait ikasten den Miranderi buruz, Peillenek letra franko berekoiki atxikitzen duela, ez baitu nahi neurtu dezagun zehazki desmasiaren zabalera. Jakite-ra iristen bagina menturaz eskola-liburuetarik ilkiko liteke Miranderen izena, Francis Favereau-ren harridura aintzakotuz: *La période de l'après-guerre, parfois décrite comme une « traversée du désert » par la mouvance bretonne jusqu'en 1968, voit alors la traduction par G. Pennaod de certains textes*

de Jon Mirande, poète basque (souletin), né à Paris en 1925 (mort en 1972), travaillant au ministère de la Guerre et partageant les mêmes idées dites « extrêmes » (« fascistes », disent clairement les Basques du sud, comme du nord qui le considèrent cependant comme un grand poète et prosateur de langue basque, y compris dans les manuels scolaires récents : « faxista eta anti-semita, ez kristau, ez sozialista, tabu guztiak, baita sexuala ere, hautsi nahi zituena, garaiko euskal munduan tokirik aurkitu ezinik ibili zen. —Euskal Literaturaren Antologia, 1998 ... dixit Koldo Izagirre eta X. Mendiguren Elizegi—.

Bere izaera errespetatzen duen faxista baten joerak zituena Mirandek. Gutunetarik ageri da, pazientzia erraldoia zuen Andima Ibiñagabeitiari bidaltzen zizkionetarik bereziki. Hainbat okurrentziaz datozen juduak ezin zituen jasan: Neure asmoak eta aburuak ba ditut, eta ez ditut orain utziko, irudi guztien araura, ia hamar urthe huntan begiratu baititut aldatu gabe. Demokraten, juduen eta framazonen herra, aburu heietarik sendoena dut; zuek aldiz, bertzaldeko Euskaldunak, nahiz abertzaleak, nahiz liberal ezkertarrak, nahiz erran delako fascistak (!), hauzi hortan behintzat, nitarik oso hurrinak zaudete... 1951ko martxoaren 23ko letraren lehen hitzak antisemitak dira: *Juduak il! Perish Juda! Die juden zum krematorium!* Barka ezina Auschwitz eta gero. Krutwigekin ederki hasia zen harremana, erdi ala osoki judua zela sumatu zuen arte. Bere britainiar adiskideak Krutwig eza-gutzeaz interesatuak ziren baina naski distantzia zerbait lantzen zuen hegoaldeko erbestera. Norbaitek kon-taturik daukat asteburuetakoko gauean edanaren gainerako balentriak ikur, Mirande eta eskuin muturreko neonaziak batera joaten zirela matoak ahurrean pédé ehizara Parisen

barna. Krutwigek ez bide zuen horrelako *raid* hilkorretan parte hartzeko gutziarik.

Gutunetarik halaber nabarmentzen da Mirandek bere talde arrazista eta faxistarentzat kide biltze lanetan ziharduela. 1961ko martxoaren 7an honela izkiriitzen dio Peilleni: *bertze gauza bat: dathorren ortziralean, hots 10-garrenean, faxista zenbaitek elkarrekin bazkariteko gogoa dugu Opéra-kartieleko ostatu merke batean, Josseaume, ni eta ingles gazte bat; beharbada Cavallier ere. Josseaumek pentsatu du zu jin ba zinte egoki baino egokiago lizatekela. Beraz, nahi duzun bezala... Jiten ba zara, Ministeriorat ethor zaite, porte D., eguerdiko justo justoki. Pinaulti ere izkiriitzen diot jin dadin, nahiz ez den areago faxista, ikhus nahi zinuela erran baiteraut. Eta insistitzen zuen hiru hilabete beranduago: goiz hontan Bob Morton'ek —Angles nazi hark- telefonatu daut, ikhusi nahi ninduela bai eta ene adiskide euskaldun edertizalea. Erran diot daigun asteazkenean (1961.6.7'an) harekin bazkariteko gerthu nintzala, usatu jatetxean, eta zuri, eta Josseaume'ri eta Cavallier'i ere erran bezela jitekotz. Beraz, libre ba zara eta egoki ba zaizu jin zaite (bazkaritara egon nahi ez ba zara ere, piska bat gera zaitezke gurekin). Jiten ba zara, zatho Ministerio atherat, eguerdiko egin ohi duzun bezala. Urte berdineko uztailean berotzen delarik: dakhusazun bezala, perilean nago Euskalherriko demokratek urde faxistatzat atxikiko nautela, latin herrietako faxistek urde demokratatzat atxikiko nautelarik... eta funtsean ez naiz ez bata ez bertzea, europar razista baizik. Bainan zenbaitek burhun-axala lodiegi dute hori enthelegatzekotz...*

Mirandek Txomin Peilleni igorri 1962ko azaroaren 1eko gutuna irakurtzeak goaiaren ezpondara aurtiki ninduen,

aurretik ez konturatuaz pixka bat lotsatua: *kantu antisemitiko baten egiten ari naiz, «Kattalin»en (Clementine) ahaidean, A. Eichman-en eresia ere bukatzen zuela: goraintzi zuhauri eta etxenkoeri. Heil Hitler! Gora Zuberoa hazkatuta! Jon Mirande.* Andima Ibiñagabeitiari urte bereko abenduan salatzen ziola: *P. S. Garrantzizkoa: otoi, ez dezazula utzi zure burua Judukumeek izorratzera... Eichmanen martyrioaren gainen eresi bat asi dut euskeraz... Begiak torratu nituen, sineskaitz, Hannah Arendt-ek auzia Jerusalemen jarraitu zuen Adolf Eichmann hartaz ari ote zen murrungaz... 1942an Wanseen SS buruzagiek erabaki juduen hilketen arduradun nagusia zen eta Israeleko zerbitzu sekretuek Argentinatik atera zuten epaitzeko. 1962ko maiatzaren 31n Ramalako presondegian urkatua izatera kondenatu zuten. Jon Mirandek gizon zakar horren omenezko olerkia zizelkatzekoa zuen, *la banalité du mal* pertsonifikatzen zuelarik Hannah Arendten hitzetan. Ez dut poesia hori atzeman, galdu da, edo ondorengoek leku seguruan gorde dute nehork ez dezan irakurri.*

### **Sexualitatearen zero gradua**

Txomin Peillenen literaturtasun-komertzioaren oinarrian dago bere adiskidantza Jon Miranderekin Parisen. *Potache* deituko genituzkeenek *Igela* aldizkari eskatologikoa osatu, pipi, kaka eta pornografia nagusi zutela luma pean. Bego erranik. Bestalde Peillen euskaltzainari entzuten baldin badiogu Jon Mirande Euskal Herri garaikide honek jada gozatzen duen sexu mailako askatasunaren jatorrian legoke. Lesbianismoa adibidez berak zuen, omen, lehenbizikoz euskaraz aipatu. Ikusteko dagoena. Aristorena eta Angelie familiakideekin batera aurtan plazaratu duen liburuaz Be-

rriako kazetariaren galderei erantzunez Miranderen funtsa azpimarratzen du: *euskal literatura modernismoan sartzeko lehen urratsa Jon Mirandek eman zuen; gure hizkuntza gehiegi irauli gabe euskal literaturan isilduak edo ia debekatuak ziren gaiak erabili zituen*. Eransten du: zuberotar ikonoklasta lerro baten bukaeran datorrela Mirande eta dagoeneko gaurko gazteen artean ere segida badela. Lagun minaren aburuz Zalgizeko Isaak Bela eta Beltran, Oihenart, Ezponda familia, Sohütako Jakes Belakoa, Jusef Egiategi eta Agosti Xahoren zuhaitz genealogikotik heldu da Mirande...

Superlatiboak ez dira sekula eskas izan euskal literaturaren aztertzaileen ezpainetan neurritz kanpoko idazlearen deskribatzeko orduan. *Bidegileak saileko alean Lurdes Otaegik esteta ziztatzaitzat zeukan: Miranderen obra XX. mendeko idazle fin eta estetarik zainduenetako baten emaitza da eta haren eragina poeten artean aurkitzen da batez ere, besteak beste, Felipe Juaristi eta Joseba Sarrionaindiaren idazlanetan, azken honen poesia eta narraziogintza badira ere zuberotarraren oinordeko aitortuenak*. Halaber laudorio baizik ez zuten *Haur Besotakoa* nobelaz solastatzen ziren euskaltzaleek: pedofiliaren gaia zein handizki tratatua zen seinalatzen zuten Sarrionaindiak, Juaristik ala Gil Bera idazleek, eleberria pedofiliaren tradizio literarioaren urrats garrantzitsutzat joz, Otaegik dioenez. Pedofilia, pornografia, Miranderen faxismoa eta nazismoa bezala naturaltasunez isurtzen da Andolin Eguzkitzak 1976an *Orhoituz* poema bildumaren sarreran: *denbora honetan, gerlaren garaietan, bere lehen poemak frantsesez idatzi zituen, eta une berean nazi bilakatu zen. Nazismo honi gero euskal eta breiztar abertzaletasunak gehitu zizkion. Bidegileak dibulgazio alorreko li-*

burukiaren bigarren orrialdean berdin: *izan ere arrotza zen bera bulego-giro hartan, poeta baitzen, nazia eta euskaltzalea gisa berean*. Lantokia zeukan Paris-Beuret aldean finantza ministerioko funtzionarioa baitzen 1944tik aitzina. Nazismoaren eta Miranderen sexu-heziketaren arteko haririk ez da lotu orain arte, emakumearen eta neskatoen ikuspegi porno-misoginoa ideologia faxistaren ereduari arras egokitzen zaion arren. Uztarketa eginik ezberdin leitzen dira Miranderen poemak, gutunak, artikulua eta haren nobela bakarra.

Bat nator Emilio Lopezen 1998ko idazkiarekin. *Jakin* aldizkarian, *Mirande Arazo* tituluarekiko zenbakian erraten zuen delirio faxisten gerizan zuberotarrak literatura merkea egiten zuela. Ez zuen alabaina Celinen anbiguitatez hantu erakargarritasun literariorik, zakarkeria hertsia bai-zik. Sexuaz mintzo zaigunean poemetan edo artikuluetan industria pornografiko kapitalistaren behe-mailako elementuak aurkitzen ditugu, bera ere harrokeriaz dabilela, gutunetan zein olerkietan oihutzen duenez, putekin Pariseko burdeletan. Emakumeak putak zaizkio bere ama sakratua salbu, soldaduek edo legionarioek besaintzinetan tatuatzen zuten moldean: *toutes des putes sauf ma mère...* Andima Ibiñagabetiaren pazientzia, errepikatzen naiz, miresgarria zait. Miranderen balentria sexualen berri ukaiten zuen letraz letra, idazlearen mimo-premia nazkagarriaren seinaleekin batera. 1950eko Eguberrietan hona zer bidaltzen zion: *gaur Eguberri: kristauek oroek ospatzen dute Juduen Erregea, alaitasuna dinean. Nik ere ospatu dut nire gisaz a. d. mozkortuz ta puta jauziz*. 1951ko urrian oraino: *alaz ere, joan dan astean Pigalle'ko soin-maastietan izan naiz*.

*Ragmundekia ez dut ikusi baiñan ango beste panpin ederrekin jostatu naiz. On izan txit. Ez dakit zein zen Ibiñagabeitia eta Miranderen harremanaren natura, baina gutunetarik zuberotarrak despeditzeko baliatzen dituen formuletarik homoerotismo zantzu azkarrak nabarmentzen dira: muin dagizut belarrean edo zure oinak muxukatzen ditut edo eta 1951ko letra bateko hasierako ene panpin eder ori!* Andima Ibiñagabeitia 1906an Elantxoben sortu jesuita-ohi erbesteratua zen, Parisen zegoen 1947tik goiti, Mirande eta Peillenekin, Caracas-era jo eta 1967an zendu aitzin. Miranderen esku-izkribuak idatz-makinara pasatzen zituela dirudi, zuzentzen eta behar bada bere iritzia emanez kritikatzten. Maisu-langile lotura deskonplexatua garatzen da bakarke-riaz hormatu bi gizonen artean, maisua argiki Mirande delarik, hoztasunen arrazoiak azaltzen ez direlarik, non ez diren politikoak, nonbait Ibiñagabeitiak Miranderen anti-sionismo zakarra gaitzesten zuelako.

Grazia zaharretik dator pornografia izena, prostitutei egokitzen zitzaiela. Dagoeneko ikuslea sexualki harrotzea du helburu, dibertituz masturbatzera akuilatzea. Batzuek bikote-jokoen pipertzeko baliatzen dituzte X sailkatu filmak. André Breton surrealistaren ahoan *pornografia la-gun-hurkoaren erotika* zela ozen zebilen. Gustave Courbet-en *L'origine du monde*, nahiz eta alua erakusten duen bere handitasun mitikoan, ez da Jon Miranderen jarrera zein poema zenbaiten aldean pornografikoa, azkenok dakarten lizunkeria eta arrunkeria mailarekin erkatuz bederen. Jon Mirandek emazteak puta soilak bailiran oinarritzen ditu olerkietan, Raymonderi eskaintzen dion Pigalle zatia kasu: *zohardi zan, Pigalle-zeruan izarrak piztu ziran* —pu-

*ten sabelean arno beltza botz-kantuz... Prostituten trebezia goersten du Oianonen: ezpain likits, esku lizun, atseginetan jakintsun, bularretik belaunera haragi biok ikara, jauzten zaitut, neska lizun!*

Poesietan aurki daitezkeen hitz-joko eta sinbolo jostailuak oro baztertzen ditu aldiz *Haur Besoetakoa* nobelako Teresa neskatzaz eta Isabel emazte zohituaz hitz egitera doala. Hor hedatzen da Miranderen misoginia faxista zabaltasunik ankerreanean. Miranderen bizitzan zurkaiztu eleberria dela ondoriozta genezake Andolin Eguzkitzak jada aipatu dugun *Orhoituz* bildumaren sarreran zioenez: *bizio bat omen zedukan, "neskagaztezaletasuna"*. Berak honela erraten ei zuen: *"honelako joera bat dadukanak ez du eztitasuna maitasunaren egitean bilatu behar, eskuetan baizik"*. Adin txikiko neskatzaren bortxaketa psikologiko etengabeaz ari da *Haur Besoetakoa*, andregai helduaren umiliatze jarraikiaz, gaur egun zirika morala eta genero biolentzia deituko genituzkeen eta kartzelaz gaztigatuko lirartekeen gertakari larriez. Jon Miranderen pornografiak emakumeen aurkako biolentzia laudatzen du burutik buru, zaldun itsuen ekina haragiak urratzerakoan, bortxaketaren sinbologia ote?, gorputz emea dominatzekoa den lur gisa dela ulertu arazi behar digula. Pornografia hori iruditeria faxistaren mende dago dudarik gabe.

Eskuin muturreko militante neonaziek pornografia hobesten dute beren sexu harremanak apaintzeko birilitatearen izenean. Mirandek paperean euskaraz etzaten zuen ideologia horretan nahasten dira arrazakeria, misoginia, sexismoa, nazionalismoak, biologismoak eta apalenek galdu klase-borrokaren aztarnak. Ordena patriarkalaren ahurra



zuen altxatzen Jon Mirandek, bereziki emazteen hezteko, demokraziaren ahultasun epela salatzen zionean Txomin Peilleni gutunez *zu ez zira faxista ez nazia baina esperantza dut ez zirela demokrata urde horietarik...* Miranderen estetismoa hauspotzen duten komentaristek agian faxismoaren neurri maskulinista dute gogoan, menperatze-harremanen estetizazioa dakarrelako. Emakumeak zapalduak eta sexu-jostailu antzera erabiliak izateko apailatzen dira giro horietan. Homosexualitateak, emaztetasunaren pare, ispilu gisa funtzionatzen du faxisten artean. Jendarte demokrataren gainbeherari buru egiteko gizarte trinkoa eskatzen dute, elitista, paganoa eta erro indoeuroparrak aldarrikatzen dituen. Gaztetasuna eta indar sexuala goesten dira, Miranderen *Gazteen Lur* entzutetsu hura, Greziako efeboz mukuru alabaina. Iniziazioko pederastiaren eredua, homosexual afeminatuekin bezain emazte sortuekin bat ez doana. Andima Ibiñagabeitiari bidaltzen zizkion gutunetarik Mirande eskema horietan zegoela agertzen zaigu.

Txomin Peillenek 2013. urte hatsarreko *Berria*-ko elkarritzeta batean Mirande lesbianismoaren aitzindari bailitzan aurkezten zigun. Ondinak zein neskatzak itxuratzen ditu poesietan nagusiki, faxismoak zilegitu pornografia zedarrietan: argitasun garbian gorputzekin jolasten dabilta oraindik emaztetu gabeko *hamabost urteko neska –haur segailok, gazi-gezok*. Menstruatze-odola zikina da muturreko erlijio zein ideologientzat. Ezaguna da gizon eta emakume heterosexualak, kitzikatzea lortzeko, askotan, aitortza anitz kausitu daiteke sarean, emazteak elkarrekin larrutan azaltzen dizkieten filmak laket dituztela. Miranderen olerkiak ozka horretan kokatzea egokia da ene ustez, homo-

sexualitatea, izan femeninoa zein maskulinoa gorroto zeukalako idazle zuberotarrak, euskaldun frankoren gustuak gurutzatuz. Testurik gogorrena hain zuzen gai honi dago: *ez dut eiki erran nahi juduei oldartu zaizkien antisemiten artean, Frantzian, Alemanian edo bertze errialdeetan, gizerhai-leak edo sadikoak izan ez direla... bai eta, dudarik gabe, ohoin, mozkorti, painerastak eta bertze biziodun guztiak ere —erresuma eta alderdi orotan bezalaxe—. Eguzkitzak eta Peillenek Mirande ematzezalea zela segurtatzen digute behin baino gehiagotan, gizon normala beraz...*

Bukatze aldera eskatu genezake zerk bultzatzen zuen Jon Mirande muturretako joeretara, zuberotar laborari hiritartu bikotearen semea izanez, eskolatua, funtzionario-lanpostu baten jabea, lana maite ez zuen arren, —baina nork du funtsean lana maite?— idazle oparo bidea jarraitzen ahalko zuen, bazter bideetarik ibilirik ere. Orduko euskal gizartea, oihu eta psikodrama batzuk gora behera, ez zen hain zabarra ere. Iparraldeko euskaltzaleek hegoaldekoek bezainbat suge idor irentsi dituzte hondar mende-erdiotan. Ez dugu alabaina psikologia merkerik egingo baina Jon Mirande, Marie bere arrebaren ondotik sortu haur-ordezkarria dela ikasteak xendra zenbait zabaltzen dizkigu: umeok ez-izatera kondenatuak dira, gurasoek beti haur hilarekin konparatzen baitituzte eta badakigu Mirandek nola atxikimendua zeukan bere amarekiko. Haur horiek gainera kulpabilitatearen zama erraldoia daramate soinean, barka ezinak direla sinetsiz eta barkatuak izateko edozein muturreko ekintzetara jo dezaketelarik. Agian Mirandek ahuleziaz bizitu zuen amaren soa eta ahulezia horren aurka eragiteko nazismoan bilatu zituen erantzunak,

irauteko baliabideak: birilitea, jakitatea, elitismoa, elizaren eta jatorrizko kulturaren melengakeriaren salaketa geldi ezinean higitzen zela, adiskideak galduz, salbu dirudienez Andima Ibiñagabeitia, estoikoki geratu zena Miranderekin kontaktuan Caracas-era hegaldaturik ere. Oro har Jon Mirande psikologia aldetik erabat artatzekoa zen *amazulo* bihurri eta nazkagarria zitekeen. Txomin Peillenek aitortzen du ez zuela adiskidea laguntzen ahal bere mamuetarik askatzen. Etxaideri idatzi zion 1972ko apirilaren 16an: *dirutza handia galdu dut klinika hortan sécurité sociale delakorekin ez baita konvencionatua. Eta bestalde, nere familiatik kampo, Frantzian eta Parisen ezagutzen ditudan Euskaldun askotarik, nehor ez da nitzaz arduratu. Horrek mintzenago dit ene egoera. Ots, Euskaldunen artean, zu eta gaixo Andima (bizi zelarik) baizik ez da egiaz sekula nitzaz arduratu. Nere k...an utzi naute, eta hemendik aurrera nik ere hola egingen dut heiekin.*

Eta 1973. urteko lehen egunetan Jon Mirande Aipasoro Pariseko zuberotar idazlearen gorpua hedailo aurkitu zuten bere gelako zoladuran whisky botilaz eta barbituriko hodi hutsez inguratua. Legenda beltzaren lehen harria irudi erromantiko horretan datza. Hegoaldean eta aberztale suharren artean bederen Jon Miranderenganako afizio-begirunearen zioetarik bat dago gizonak Frantziaren kontrako idatzi artikuluetan. Bai eta gure mugaz haraindikoa anaien, batez ere, juduen garbiketa zein nazismoarekiko sentsibilitate menturaz ahulagoan. Gaur egun azkenik Mirandereren antisionismo eriak gurutzatzen du Palestinarren borroka sostengatzen duten euskaldun gazte zenbaitena,

iraganeko diskurtso judufobo batzuk arraiki errepikatzen direla, ondorioei elkor.

Bada oraino asko ikertzeko Miranderen ingumari arrazoizko leku baten emateko euskarazko literaturaren panoraman, ez galderarik eta arrangura etikorik gabeko miresmen itsua, nolabait miresleen izaera finkatzen dutenak, are gutxiago erabat baztertua, historia aldetik, bereizkeria guztietarik urrun ikertzekoa delako, ez bera eta bere ekina bakarrik, baizik eta olde berdinean, Mirande bat sortu ahal izan zuen jendartea, edo gizartea, ordukoa halakoxea baitzen. Itzalguneak argitzekoak dira eta ugariak ditugu. Han eta hemen, batzuek eta besteek, gordetzen dituzten dokumentuak eskura dituzkegunean egiazki, begietan zotzik gabe, ikerketa mamitsuak aitzina eramanen ditugu. Egia erran, orain arte ez dira Miranderen gustuko perfekziorik ezer ez duen lurralde honetako jakintsuak eta idazleak alferrik egon.

Bizkitartean, Txomin Peillen ildoaren norabidearen seinatzaila-lanetan zutitzen da, ez dezagun bere adiskide minaz gaizki pentsatu. Jon Miranderen poemak frantsesera itzuli ditu Mirande *frantsesaren bidez beharbada beste hizkuntzetara pasatuko* dela gehitzen duelarik. Ez bide da hauturik hoberena, Frantzian, zuzen den legez, idazle faxistak eta naziak ez direlako oroitzen ere *Drieu la Rochelle* edo *Celine* izendatzea aski delarik adibideak emateko. Mirandek frantses euskaldunon artean ere ez lezake jasan-ezintasun ideologikoaren besuina gaindi. Salbuespenak suerta daitezke alabaina. Osoa izateko erantsiko dut idazle pornografiko eta antiklerikalek, Sade, Bataille, Genet edo Anais Ninen antzera, plaza libre izan dutela, ez alta beti baketsuki.

### **Bibliografia laburra:**

Itxaro Borda, *Oraindik ere Haur Besotakoaz*, Hegats 36. zk., 2005.

Andolin Eguzkitza, *Orhoituz*, sarrera, 1976.

Emilio Lopez, *Mirande Arazo* izeneko Jakin aldizkariaren 106. zk. *Jon Mirande*, eskuin muturreko idazlea artikulua, 1998.

Francis Favereau, *Goulven Pennaod, Jon Mirande et la Bretagne*, Lapurdum, 2000.

Josune Muñoz, *Ezin esanezko beldur bat, Haur Besoetakoa* nobelaren iruzkin luze eta interesgarria, Sareinak Bloga, 2011-06-24an.

Lurdes Otaegi, *Jon Mirande*, Bidegileak liburukia, EAEko Kultura Saila, 2000.

Txomin Peillen, *Jon Mirande, olerkaria (Jon Mirande, poète parisien)* Euskaltzaindia, 2013.

(\*) Roparz Hemon:

1900ean Bresten sortu eta 1978an Dublinalen zendu bretoierazko idazlea, irrati-gizona eta poeta zen Roparz Hemon. Alemaniarrekiko kolaborazioaz akusatua eta horregatik *indignité nationale* gatzigura kondenatua. Irlandar bihurtu zen orduan. 1950ean Mirandek Frantziar errepublikaren mendeko herriak artikuluan beretuko zuen ideia garatu zuen: « (...) *il se produisit un miracle : pendant quatre ans, de 1940 à 1944, un vent de liberté passa sur la Bretagne ; chaque vrai Breton put travailler presque sans tracas, et la vie de l'esprit fleurit. Pendant ces quatre années-là les Bretons conscients apprirent qu'ils étaient capables de s'occuper de leur pays seuls, une leçon qu'ils ne sont pas prêts d'oublier.*»

Hondar hamarkadetan Roparz Hemonen memoria hertsatu zen Bretainian. Adibidez eztabaida luzeetarik landa, 1988an Relecq Kerhuon herrian Diwanek sortu lehen kolegioa, Roparz Hemon deitzen zena, hamabi urte beranduago izenez aldatu zen ezkerreko jendeen aldetik etorri protesta-oldeen ondorioz. Soazic Daniellouk 2000. urtean Roparz Hemonen inguruko dokumentala bildu zuen herriaren zein hizkuntzaren hoberena lehiatuz deabruarekin uztartu zen belaunaldiaren destinoa ikertuz.



## Jon Miranderen poesiaz iruzkinak

Patri Urkizu

Ander Iturriotzek, Euskal Idazleen Elkarteko zuzendariak eskatu dit idatz dezadan zerbait Mirandez HEGATS aldizkarirako, eta beronen sortzaileetarikoa izan naizenez gero ezin ezetzik eman. Egia da aspalditxo ez dudala plazaratu deus Parisen 1925ean jaiotako euskal poetaz, baina hasi naiz gaiaz idatzi ditudan nire liburuen eta hauek burutze-ko erabilitako paperen artean arakatzen<sup>1</sup> eta zenbait irakurketaren ondoren hona ene gogoeta xumea eta ohar arruntak Jon Miranderen poemen edizio kritiko osatuago baterako.

### Corpusa eta edizioak

Arantxa Arzamendik ematen digun bibliografia zehatzaren arabera Miranderen lehen poema argitaratuak, (ez dira nahastu behar poema idatziak eta argitaratuak) Guatemalan plazaratu ziren EUZKO GOGOIA aldizkarian 1950eko 5-6. alean, eta azkena Txema Larreak apailatutako edizioak dionez Caracaseko EMAN-en 1967an. Errebista ezberdinetan sakabanaturik agertutako poemen bildumak ezberdinak izan dira, eta hauexek hain zuzen:

---

<sup>1</sup> Patri Urkizu (ed.), 1984, *Gauaz parke batean: Ipui izugarriak*. Elkar, Donostia; —, 1984, *Etsipenez. Jon Chahoren memorioizunak*. Elkar, Donostia; — (ed.), 1995, *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*. Susa, Zarautz; — & Aurelia Arkotxa, Arantxa Arzamendi (ed.), 1997, *Jon Miranderen orhoituz. (1925-1972) Antologia*. KM Kulturunea, Donostia.



- 1953 24 POEMA (Faksimilea Interneten ikus:  
Susa-Literatura )
- 1976 ORHOITUZ (Ed.Andolin Eguzkitza, Kriselu)
- 1984 ENE JAINKO-EIDOL ZAHARRA, LUR!  
(Ed. Xabier Olarra, Elkar)
- 1984 POEMAK 1950-1966 (Ed.Txema Larrea, Erein)
- 1992 ILHUN-ARGIAK – CLAROSCUROS (Ed. Felipe  
Juaristi et al., Euskal Herriko Unibertsitatea)
- 1999 OBRA OSOA (Ed. Luis Haranburu, Hiria)
- 2002 XX. MENDEKO POESIA KAIERAK  
(Ed. Koldo Izagirre, Susa)
- 2012 JON MIRANDE, OLERKARIA (Jon Mirande poète  
parisien) (Ed.Txomin Peillen, Euskaltzaindia).

Beraz, zortzi edizio ezberdin baditugu esku artean. Harelere ez daude dituzten poemak ez modu berean antolatutak ez irizpide berdinekin taxutuak. Kronologia da gailen batzuetan, adibidez, Larrearen edizioan, eta poema gehien duena beraxe da (67). Ondoren kopuruz Olarrarena dator (59), baina honek sail ezberdinetan ongi bereizten ditu: 1.1. Poema hautatuak, zeina den Mirandek prestatuak zeukana 1953an ediziorako, eta Miangolarrari bidali ziona argitara zezan; 1.2. Beste zenbait poema; 2.1. Kanta moldatu eta itzuliak; eta 2.2. Poema itzuliak. Ediziorik txukunenetakoa da hau.

Urte batzuk lehenago Eguzkitzak prestatuakakoak (*Poema guztiak*) azpimarratzen du liburu azalean baina hogeita hamalau (34) besterik ez zituen bildu. Felipe Juaristi, Iña-

ki Aldekoa eta Eduardo Gil Berak gaztelaniazko itzulpen eta guzti aurkeztu zutenak hogeita hamasei dauzka (36). Koldo Izagirrek hautatuak hogeita zortzi dira (28). Honek batzuetan ez du aipatzen nondik jasoak dituen eta bestee-tan kantarien disketarik jasoak direla dio, nabarmenki tes-tu originalen grafiatik aldenuz. Haranburu Altunak *Obra osoa* bi liburukitan argitaratu zuen eta lehenbizikoan age-ri diren POEMAK (87-159. or.) berrogeita lau dira (44). Urrun Larrearen ediziotik, halere gaur deskatalogaturik dagoen obra da, eta Miranderekiko *zorra aitortu eta ahal den moduan ordaindu*, asmoz burutua izan zen, Haranburuk berak dioen arabera sarreran. Peillenek bestalde, eta azke-nik, lau sailetan gaika banatzen ditu Miranderen poemak, honelaxe hain zuzen: *Thanatos* (7), *Eros* (14), *Mythos* (9) eta *Satira* (6). Beraz, orotara, hogeita hamasei (36).

Gauzak horrela, ezin daiteke esan Igor Estankonak be-zala, Peillenek iaz plazaratu “**Jon Mirande, olerkaria**” *bil-duma definitiboa da, euskaraz eta frantsesez emana, Oianone idazteko kapaz izan zenaren argazki osoa eta deformatu ba-koa*”, denik (ARGIA, 2013ko otsailaren 24a, 30. or.).

Zein da bere bizitza osoan Mirandek idatzi zituen edo iritsi zaizkigun poemak kopurua, alegia, **corpus** benetan osoa? Gehiena hurbiltzen dena, noski, zenbaki zehatzera, Txema Larrearen edizioa da, baina 1984an plazaratu poe-metarik at, badira batzuk hobeto eta beste zenbait argita-rapenetan eman izan direnak geroztik.

Adibidez, 1995ean moldiztegitatu nituen Miranderen gutunak artean aurki daitezke: *Eusko arima eder* (Ibiñaga-beitia´tar Andima´ri, 1951-IV-27), *Jainkoen bakean beti bizi zait* (Ibiñagabeitia´tar Andima´ri, 1953-I-25 ?), eta *Eztei be-*

rrri (Ibiñagabeitia 'tar Andima 'ri, 1955?-VI-12) eta *Herri-Kanta* bezala ematen duena “Nik Sohütan aurthen bildurik” *Aurthen jin da muda berri / Altxa mantharra eta sakha pitthili* (Peillen 'dar Txomin 'i, 1956-X-4). Baina azken honetaz nire zalantzak ditut, berak esan arren herritik jasoa dela ez ote den bere jenio bihurriak sortua.

Aipatu ditudan lehen hiru horiek lau urte geroago Haranburuk jaso zituen. Eta 1997an KM kulturuneko zuzendaritzak eskaturik, Aurelia Arkotxa eta Arantxa Arzamendirekin prestatu nuen Antologian eta artoski Joxan Muñozek argitaratzeko maketatuan, Federico García Lorca-ren *Antoñito Camborioren eriotza* eta Bing Crosby-ren *Lullaby Land* itzulpenak agertu genituen beste prosazko zenbait testurekin batera. Aiora Jakak<sup>2</sup>, bere aldetik berriki plazaratu artikuluan *Ene kutuntxu* (George H. Clutsam), eman digu ene artxiboko fotokopia kaxkarretan ere ageri zaidana. Artikulu honen eranskin gisa emango ditugun apunte pare batekin (Olarraren hitzak erabiliz) esango nuke, besterik agertzen ez den bitartean, iritsi zaizkigun poemen edota apunteen kopurua 73 dela. Urrun Txominen 36 poemen edizio “definitibo”tik, noski.

Kontua ez da, ordea, zenbat, baizik eta poema horiek modu argian nola aurkeztu eta nolakoak diren esatea. Zein mundu adierazten duten, gaurko munduko zein

---

2 Aiora JAKA, 2010, “Miranderen itzulpen argitarabe batzuk”, SENEZ, 39, 247-299. (Bada bertsio digitala) Onartzen ditut bertan neuk argitaratu poemez (1997) ematen diren irakurketa berriak, baina ez denak, batzuek uste baitut orain berriro ene fotokopia kaxkarrak irakurtzerakoan bion transkripzioan gaizki daudela. Tamalgarria dena da lan balios honek moldiztegitiko errakuntzak izatea, hala nola Euskaltzaindiak IKER-28 bezala plazaratu Aioraren tesi bikainak: *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan* (2012), azalean egile izenik ez ematea.

pentsemendu korronteetan kokatzen diren, zein gogoeta sorrarazten eta zein eragin duten. Zehatz ditzagun kontuak, polliki eta artoski, adibideak emanez. Has gaitzke EUSKAL ERRIARI, (1949-I-28), “Auld lang syne”-n doinuz kantatu behar denarekin, eta LOTAZILAK AMABI, (Kemper 1949) poemarekin.

Azken hau Per Denez-en<sup>3</sup> poema da, eta makinaz jotako bertsoiak dioskunez, *breizeratik euskaratua egillearen baiarekin*. Baina Larrearen edizioan lehenaren urtea ezartzen badu, bigarrenarena ez du ematen, eta gainera hitz lauz jasotzen du. Poemen iturriak eta argibideak ematerakoan, bukaeran, aldiz, esaten digu *beldur naiz ediziotan (IH eta EG) lar aldakuntza jazo ez ote diren*. Alegia, Peillenek prestatu *Jon Miranderen Idazlan Hautatuak* (Gero, Bilbao 1976) lanean eta EUZKO GOGOIA-n (aurrerantzean EG). Eta beldur horrek badu zergatia. IH-n orijinalak ez dituen h-ak ezarri zaizkio Léon Jassonek<sup>4</sup> fusilatzeke egunaren bezperan (16-7-46) idatzi poemari eta Mirandek itzulitakoari.

Halaber, ikus dezagun nola den JEIKI, JEIKI Poemaren bigarren bertsoa makinaz jotako testuan eta EG-n:

---

3 Per Denez [Pierre Denis] (Rennes 1921-Romillé 2011), hizkuntzalari, hizteggigile, hizkuntza metodo egile, unibertsitate irakasle, saiogile, itzultzaile eta nobelagile. Obra zabal eta estimatua utzi du, eta breizerara itzuli egileen artean Poe dago.

4 Léon Jasson (1946), nazionalista bretoiien partaide, Bezzen Perrot taldekoa, nazien kolaboratzailea, *Bretonische Waffen verban der SS*-an parte hartu zuen makien kontra eta Liberaziokoan preso hartu zutelarik Rennes-en fusilatu egin zuten.

|                                                                                                                                                                                                  |                                                                                                                                                                                        |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Jeiki, jeiki, Eüskaldunak,<br>gerlalat juan gitin<br>gerlalat juan gitin,<br>Laster süiya phiztuko da<br>oihanin eta mendin.<br>Eüskal lürra berriz ere<br>guria izan dadin<br>guria izan dadin. | Yeiki, yeiki, Uskaldünak,<br>Ehaitera yuaiteko<br>Ehaitera yuaiteko.<br>Aspaldian ginen bizi<br>Arrotzen esküpeko.<br>Hen odolak gure lürra<br>Orai dü gizentuko<br>Orai dü gizentuko. |
| Mekanografiatua                                                                                                                                                                                  | EG, 1950, 3-4, 7. orr                                                                                                                                                                  |

Ezberdintasun nabarmenak daude ikusten den bezala, eta lehen bertsoan ere Mirandek Sallaberryren *ahaidia*: “Jeiki, jeiki etxenkuak” aipatzen badu eta horren arabera ematen lehen bertsoa ez du EG-k ez honen jarraitzaileek horrelakorik egiten.

PARANOIA deitu sonettoa dela eta, zenbait ediziotan ez dira bertsolerroak bezala bereizirik, eta Mitxelenak, EGAN-eko zuzendari lanak egiten zituenez, lehen laukoaren laugarren bertsolerroa honela aldatu zuen:

J.M. : *Jana gatik, bethi dago zutik.*

EGAN : *Jan arren, hor dago bethi zutik.*

EZTEI BERRI titulatzen den poema Larreak besterik gabe ematen du, eta Peillenek kontsonante hasperendunak ez emateaz aparte (*ukho, phitz, supherki...*) Miranderen testu eta hizkera errespetatu gabe, ez du jaso poemak goi partean daraman grekerazko aipamena: ἡ χεῖρ ἔστι



Zure “Gaizkile baten azken orduak” irakurri nituen, eta atseginez irakurri. Baina eztut uste olerkiak erabat utzi bear zenituzkeenik. Ez ote daukazu ezer gure Ama eta Ugazama geiegi minberatuko eztituztenetarik?<sup>6</sup>

Euskaltzale sutsu eta poeta ere zen Nemesio Etxaniz apaizak Azkoititik 1953ko uztailaren 3an honakoa idatzi zion artean Parisen zegoen Andima Ibiñagabeitiari: *Miranderi nere goraintziak. Nik egia esan, ezin ulertu izaten ditut aren olerki asko. Ortan oso motela naiz. Laburdi'ko euskera jasotzen nekez ibili oi naiz...*<sup>7</sup> beraz, ez zitzaion Mitxelenari arrazoi puntu bat falta, Miranderi, idazten zituen poemei buruz argitasun zenbait proposatzerakoan eta giltza horiek eman zituen geroago zenbait poemarentzat (NIL IGITUR MORS EST, OTSO, eta LARRAZKEN GAU BATEZ).

AMETSETARIK poema dela eta, Felipe Juaristik ohar batean *Potka* dio (Andolin Eguzkitza eta Txema Larrea-ren edizioetan *Potha*). Eta aldamenean beste bertsio bat jasotzen du Santi Onaindiak<sup>8</sup> ehun amodiozko poema hoberenen artean kontsideratua baina ez dute ematen poemak daukan dedikatoria: (Yvette'ntzat), ez argitasunik nor daitekeen Yvette delako hori, eta hamaikagarren bertsole-rroa ez da originalean: *nihau nunduzan berriz ere...* (1975), ez *Nihaur ninduzun berriz ere... / nihau nunduzun berriz ere* (1992), baizik eta *Nihau nündüzün berriz ere...* Andima

---

6 Idem, 71.

7 Pako Soduperi esker ditudan gutunetarik.

8 Santi Onaindia (ed.), 1975, *Las Cien Mejores Poesías de Amor de la Lengua Vasca*. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 185-186.

Ibiñagabeitiak editatzeko makinaz jo zionean ere zenbait aldaketatxo ezarri zizkion zuberotar <ü>-a mantenduz batzuetan, baina *helthü* > *heldu* bezala ezarriz.

EUSKALDUN LAMINEI poema izan zen idatzi zuen azkenetariko poema. Daukagun mekanografiaturiko originalean 1961.3.3. data dakar eta hogeituro geroago agertu zen lehen aldiz XAGUXARRA aldizkarian<sup>9</sup>. Badu poema horrek gai eta forma berezirik. Eta bertsomoldea A12 B8 A12 b8 delarik lehena eta laugarrena bigarrenetik eta hirugarrenetik berezirik aurkezten dira. Hori dela eta, metrika kontutan harturik 12. bertsolerroan *ta* behar da transkribitu eta ez *eta*, halaber *gur dagizuet* eta ez *gaur dagizuet* (F. Juaristi ed. 1992: 129).

Eta detaile ttipi baina garrantzizko hauetaz aski. Asko dira, noski, baina uste dugu egileari zor zaion errespetuarengatik hark moldatu era eta forma berean eman beharko liratekeela poema guztiak. Ondoriozta dezakegu, bada, oraindik burutzear dagoela edizio kritiko sakon bat, testuen fidelotasuna eta argibideak behar bezala emango dituen.

### **Poema eta Kanten moldaketa eta itzulpenak**

Hona hemen zerrenda. Seguru aski ez da osoa izanen.

1. Euskal-Erriari (*Auld Lang synen*- doinuaz, MS 1949)
2. Jeiki, jeiki, (Euskal Kanta herrikoia, EG, 3-4 (1950))
3. Bi beleak (*The two corbies*, anonimoa), EG 3-4 (1950).
4. Ba nin adiskide bat (Ludwig Uhland<sup>10</sup>), EG 5-6 (1950).

---

9 Jon Mirande, 1981, "Euskaldun Laminei", XAGUXARRA, 2. Hordago, Donostia, 10-11.

10 Ludwig Uhland (Tubingen 1787-1862). Poeta eta antzerkigile erromantikoko alemana. Bere obren artean dauzkagu: *Gedichte* (1815) eta *Volkslieder* (1844-45).



5. Bela (Edgar Allan Poe<sup>11</sup>), EG 9-10 (1950).
6. Lotazilak hamabi (Per Denez), EG 11-12 (1950).
7. Goiztar txoriek kanta bezate (Leon Jasson), EG 5-6 (1951).
8. Mendi gailurretatik (Friedrich Nietzsche<sup>12</sup>), GERNIKA 18 (1952).
9. La belle dame sans merci (John Keats<sup>13</sup>), EG 3-4 (1952).
10. Hirur lili (Drei lilien, anonimoa), EUZKO DEYA 365 (1953).
11. Kantatzen du kantuz (Gaston III.a, Comte de Foix<sup>14</sup>), EUZKO DEYA 357 (1953).

---

11 Edgar Allan Poe (Boston 1809 – Baltimore 1849). Sinbolista frantsesengan eragin handia izan zuen XIX. mendean eta XX.ean jarraitu zuen izaten. Bere obren artean: *Poems* (1831), *The Raven* (1845), *La Barrique d'amontillado* (1846)... Baudelairek frantsesera itzuli zuen eta Mirandek euskarara. *Nire izua ez datorkit alemanengandik, nire barrendik baizik*, zioen bere buruaz eta sentimenduez.

12 Friedrich Nietzsche (Röcken 1844 – Weimar 1900). Filologo eta filosofo alemana, Gaztetandik Wagnerren adiskidea. Tragedia grekoan ikusi zuen pesimismoaren kontrako garai-pena, izpiritua apolineoaren (arte plastikoak) eta bozkario dionisiakoaren (musika) loturari eta batasunari esker. Alemaniako kultura zalantzan ezarri zuen, aurreiritzi moralak salatu eta balio orokorren aldaketa ageriz modu aforistikoan idatzi zuen. Bere obren artean: *Tragedia-aren jaiotza* (1872), *Gai jakituria* (1883-87), *Honela mintzo zen Zaratustra* (1883-1885), eta beste... Zaratustran Jainkoaren heriotza eta azken gizonarenarekin batera gizagoia iragartzen du, eta horrek sortuko dituen balio berriak. Naziek, haren obra arrebaren laguntzarekin beren ideologiarantz lerratu zuten.

13 John Keats (Londres 1795 – Erroma 1821). Poeta ingeles hau gazterik hil zen tuberkulosia jota, baina obra luzea utziz: *Endymion* (1818), *Psychéri Oda*, non ageri zaigun jainko-jainkosa paganoen gurtzaille eta zabaltzaille. Edertasunarekin eta egiarekin kezkatua, berretzat *Ederra Egia da, eta Egia Ederra*.

14 Gaston III.a, Foix-eko Kontea, Gaston Phoebus deitua (1331- Orthez 1391). Zaldun erdua, letra eta arteen adiskidea. 1358an *Jacquerie*-en asaldamenduen zapalketan parte hartu zuen. Orthezen zeukan kokatua bere gorte famatua. *Oraisons*, eta *Livre de la chasse* liburu ospetsua idatzi zituen.

12. Lekhoreko biziarena (Hugo von Hofmannsthal<sup>15</sup>), EG 1-2 (1954).
13. Eros arrosen artean (grekeratik<sup>16</sup>), EG 5-8 (1954).
14. Zaldiz zeruan (Stan Jones<sup>17</sup>), EG 1-2, (1957).
15. Erri-min (Friedrich Schiller<sup>18</sup>), EGAN 1-4 (1959).
16. Atzerriko neskatala (Friedrich Schiller), EGAN 1-4 (1959).
17. Ez diteke nor-nai izan pagano (René de Clercq<sup>19</sup>), EGAN 1-2 (1960).
18. Zai zurien kalean (Jean Paul Sartre<sup>20</sup>),

---

15 Hugo von Hofmannsthal (Wiena 1874 – Rodaun 1929), poeta eta dramagilea. Bere teatroa lirikoak eta metafisikoak da eta klasiko grekoak (Alzeste, Edipa, Elektra...) Erdi Aroko misterioak eta Calderón ere moldatu zituen. Richard Straussen operetako libretogilea ere bada: *Ariadna Naxosen* (1912), Itzalik gabeko anderea (1919)...

16 Poema hau seguruen Robert Brasillach (Perpignan 1909-1945), poeta frantses kolaborazionista eta De Gaulleren aginduz fusilatua izan zenaren *Anthologie de la poésie grecque (avec traduction et notices)*, Librairie Stock, Paris 1950, liburutik itzulia izango da gure ustez, liburu hauxe ageri baita Miranderen familiaren etxean dauden liburu azalen fotokopien artean.

17 Stanley Jones (Douglas (Arizona) 1914 – Los Ángeles (Kalifornia) 1963), mehatzari, suhiltzaile eta oihanzain bezala ere aritu zen letrista hau. *Riders in the sky*, unai zahar eta sonatuaren hitzen egilea, zeina Bing Crosbyk (Washington 1903 – Madril 1977) kantatu zuen, beste askoren artean.

18 Friedrich Schiller (Marbach 1759 – Weimar 1805). Poeta eta antzerkigile alemaniarra. *Sturm und Drang* mugimenduaren eraginez sortu zituen: *Brigantak* (1781), *Don Karlos* (1787), Felipe II.aren semearen hiltzeaz, *Maria Stuart* (1800), *Wilhelm Tell* (1804) ... eta beste. No-lazpait esateko Alemaniako Shakespeare dugu, halaber poeta bezala hor daude dotoreziaz beteriko: *Baladak* (1797) ...

19 René de Clercq (Deerlijk, 1877 – Maartensdijk, 1932) idazle, politikari, poeta eta konpositore flamenkoa.

20 Jean Paul Sartre (Paris 1905-1980), filosofo, eleberrigile, teatrogile eta kritikari frantsesa. Existenzialismoaren aitzat jotzen da, *Izatea eta Eza* (1943) liburuagatik. Joseph Meesmer-en doinuaz eta Sartreren hitzak kantatu ohi zituen arrakastatsuki Juliette Gréco, existenzialisten musa deituak.

19. Kattalin (Percy Montrose<sup>21</sup>, IGELA, I, 1962)
20. Apolonen irudi baten aintzinean (Saul Txernikhovski<sup>22</sup>, AR STOURMER, 1962)
21. Osto hilak (Jacques Prévert<sup>23</sup>, Ed. Larrea 1984)
22. Ene Bihotzeko Maite Argia (Hebrideetako maite kanta, ed. Larrea 1984)
23. Antoñito Camborioaren eriotza (Federico García Lorca<sup>24</sup>, ed. Urkizu 1997)
24. Lullabyland (Alec Wilder<sup>25</sup>, ed. Urkizu 1997)
25. Ene Kutuntxu (George H. Clutsam<sup>26</sup>, ed. Jaka 2010)
26. Mozkor zaite (Charles Baudelaire<sup>27</sup>, ed. Jaka 2010)

---

21 Percy Montrose-k 1884an sortu zuen herri balada amerikano ezaguna: *Oh, My Darling Clementine*-ren moldaketa.

22 Saul Txernikhovski (Mikhailovka, Ukraina, 1875 - Jerusalem, 1943), israeldar poeta eta itzultzailea. garrantzi handiko autoreen lanak itzuli zituen hebraierara: *Iliada*, *Odisea*, *Hiwatharen kantua*, Platon-en *Oturuntza* eta Molière-ren *Ustezko gaixoa*, besteak beste. Idazlanak: *Ikuspenak eta doinuak* (1898 eta 1901), *Eguzkitan* (1919), *Odol gainean* (1923), *Apoloren estatua baten aurrean*, *Worms-eko baladak* (1942), *Zeruko izan urrunak* (1944)...

23 Jacques Prévert (1900-1977), poeta, antzerkigile eta zine gidoilaria. Bere zenbait poema, Joseph Kosma, Christiane Verger eta Hanns Eisler-ek musikatuak, Edith Piaf, Juliette Gréco, Yves Montand eta bestek kantatu zituzten.

24 Federico García Lorca (Granada 1898 – 1936). Poeta eta antzerkigile. Francok fusilara zia. Beste hainbat obraren artean: *Romancero gitano* (1928), eta *Poeta en Nueva York* (1930) plazaratu zituen. Miranderen bibliotekan Buenos Airesen Losada argitaletxeak plazaratu: *Romancero gitano* (1924-27) ageri da.

25 Alec Wilder (Eochester 1907 – Gainesville 1980), konpositore iparramerikarra. Musika-len eta filmeen musiken sortzailea. Hala: *Pinnocchio* (1957), *Hand and Gretel* (1958)...

26 George Howard Clutsam (1866-1951) pianojole australiarra, Franz Schubert's-en moldaketak, zenbait konposizio eta idazlan egina.

27 Charles Baudelaire (Paris, 1821-1867). Besteen artean *Les fleurs du mal* (1857) eta *Poèmes en prose. Le Spleen de Paris* (1869) plazaratu zituen eta azken liburu horretatik *Enivrez-vous*, itzuli zuen Mirandek.

Aipatu Aiora Jakak Sarrionaindiaren itzulpenei buruzko bere tesian badu kapitulu bat honela titulatu: **Itzulpenaren eragina Miranderen sorkuntzazko lanetan**. Eta bertan aipamarratzen digu ez zituela hautatu iragan mendeetako autore “prestigiotsuen” lanak euskaratzeko, euskal itzultzaile gehienek egin bezala<sup>28</sup>, modernoak gehiago interesatzen zitzaizkiolako. Ez soilik Europa eta Ameriketako idazle ospetsuak (Poe, Kafka, Baudelaire...), — horiei Uhland, Keats, Schiller eta Sartre erantsi beharko genizkiekeelarik, bederen —, baizik eta baita herrialde txikiak egile ez hain ezagunak ere (Séamus ó Mainnin irlandarra, Bernat Manciet okzitaniarra, Per Denez bretoaia). Itzulpen hautaketa horretan garbi dago arrazoi ezberdinengatik hautatu zituela, eta Jakak esaten digun bezala, batzuk, kontu ideologikoengatik izan ziren begiz joak, beste asko besterik gabe *irudimen-atsegingarri* zitzaizkiolako, eta azkenik, hainbat lan probokazio moduan itzuli zituela, euskaldun munduko garaikideen eta hainbat abertzaleren itxikeria, itsukeria eta zurikeria salatzearren.

Nietzsche, Baudelaire eta Poeri eskaintzen die leku berezia bere azterketan Jakak eta zenbait baieztapen gehiago zehaztu eta findu beharko lituzkeelakoan nago, hala nola, *Baudelair-ek bere garaiko paristar gizartean sortutako eskandalu bera sortu zuen Mirandek bere garaiko euskal gizarte abertzale jatorrean*, eta ondorioztatzen digu erraz antzematen dela Mirandek *euskaratutako idazlanek eragin na-*

---

28 Nik uste erreferentzia txiki bat bederen merezi zutela itzultze ahaleginetan aritu ziren beste hainbat euskal autorek ere, hala nola: Serafin Barojak, zeinak klasikoak eta garaikide gaztelaniazkoak itzultzeaz at, Uhland-en *Eliz Galdua* ere hautatu zuen; gerra aurrean Esteban Urkiagak “Lauaxetak” eta Imanol Sotak burututakoak (W.B. Yeats, P. Pearse, M. Maeterlinck...) edota Antonio Labaienek eginak (F. Dürrenmatt, M. Frisch, E. Ionesco...)

*barmena izan zutela bere sorkuntzazko poema eta ipuinetan.*  
Baina nola?

### **Gaiez eta estiloaz**

Aspalditxo nioen bezala<sup>29</sup> Verinesen eginiko idazleen biltzar batean (*X edición de los Encuentros de Escritores y Críticos de las Letras españolas*) Txomin Peillenek Euskaltzaindian eginiko sarrera solasean, Miranderen bi poema eta hiru gutun argitaragabe aurkeztu zituen<sup>30</sup>: Poeren *Two Corbises*-en itzulpena, hala nola Soneto bat eta hiru gutun Jean Loustauri zuzenduak. Eta beste zenbait gauzaren artean zioen, *Ni ere kristotarra naiz — bai eta demokrata ere. Bainan izena baino nahiago dut izana (erraiten oi den bezala)*. Hogeita hiru urte zituelarik ez zegoen batere ados beren buruak demokratizatzen zituzten frantsesekin. Eta horregatik badu zerikusirik idatzi zuen terzetoarekin:

*Ez abesti latinik, ur deuni ez, apaiz!*  
*Ez garbairik, anaka, naizenean ilko:*  
*Anaiaren garbaia gezurra bai da maiz.*

Eta bere egitasuna eta benetazkotasunaren bilatze hori, saiatze hori izanen da bere ezaugarrietarik garrantzitsuenetakoa. Halaber, bere poetikaren giltzak, Andima Ibiñaga-beitiak eskaturik, idatzi zituen hitzaurre antzo, Caracasen Minagolarrak argitaratu behar zuen poema bildumarako. Lehenik esaten du izkiribatu dituela *Gogoak ahal eman ze-*

---

29 Patricio Urquizu, 1995, "Reflexiones sobre el Minotauro Vasco", *Literatura en el laberinto*. Ed. Cátedra, Ministerio de Cultura, Madrid, 177-191.

30 EUSKERA, 1989-2, Bilbao, 429-465.

*rautalakotz nabaski*, eta bere burua defendatzen du *olerki phanteistak* idazten omen dituelako kontra egiten diotenen aurrean esanez: *oroz lehen nihauren eta gogaide bakhan batzuen atseginerako idatzi ditut ene poemak – hots-“ for the happy few”*. Olerkiak maite dituela, atxikimendua diela forma berriei eta ez bertso-gintza klasikoari.

Bada beste agiri bat funtsezkoa bere poetika konprenitzeko eta hau da Andimarekin Pariseko *Radio Euzkadira*-ko prestatu zuten elkarrizketa “Olerkarienean”<sup>31</sup> deitua. Hemen gogoko dituenak eta txarresten dituenak aipatzen ditu, filiak eta fobiak. Ez dirudi koplarien bertso-moldea maite duenik, berak noizpehinka errima erabili arren maitteago baitu, poesia hitzen barne-erritmoan eraiki. Joko gisa hor ditu **Hiru Putattoak**, Intxauspeko alaba dendariaren doinuak kantatzeko moldatuak A I I A I I B I I B I I b6 bertso-moldean.

Bere olerkietan ordurarte inoiz ez erabilitako gaiak erabili dituela (masturbazioa, paidofilia, lesbianismoa...) eta noski horrek izugarritzko eskandala zekarkiokeela... Poemetan irauli zituela maitasun eta maitakeria, sinismen eta siniskeriak oro. Atseginak eta etsipenak ere, hauetarik ugarriago. Eta frantsesez, alemanez eta espainolez irakurriak izan arren poeta aski, bere ustez, *England'en bezalako olerkaririk ez da beste izkuntzetan sortu*. Euskaldunak ere irakurri ditu, Orixe, Zaitegi, Iratzeder, Mitxelena, baina Lauaxeta eta Zaitegi ditu gustokoenen artean. Eta bereak hautatzekotan, berari ez dagokion arren esatea: OTSO, ORTZIREN

---

31 Andima Ibiñagabeitia, 1953, “Olerkarienean”, GERNIKA, 23, 98-102.

TTUNTTUNA, ZAKHUR HIL BAT eta NIL IGITUR EST  
liratekeela.

OTSO poemaz ematen digun argibidean esaten digu funtsean bertan uste metafisiko bat agertzen duela, hots, izadia bat dela, osotasun bat dela, panteismoaren pentsakeran lerrotuz. Bi printzipio daudela elkarren artean borrokan, funtsean bat den izatean, alde batetik *geia* eta bestetik *gogoa*, hau da, materia eta izpiritua. Oihanean barrena dabilen bidaiaria, noski sinbolikoa, beste gizotsoek *erhanen*, hilko dute.

ORTZIREN TTUNTTUNA. Zazpi laukoz osatu poema. Euskal mitologian aditu zen Joxemiel Barandiaranek *Ortzi*, zein hitz bezala lehen aldiz Aymeri Picaud-en XII. mendeko hiztegitxoan ageri den, — *deum vocant urcia* —, *ortzadar*, *ortzantz (trumoi)*, *ortzargi*, *oskarbi*, *ortzegun*, *ostegun*, *ortzirale*, *ostirale*, *oneztarri*, *ozkarri* familiakoekin lotzen du, eta lurlean barrena sartzen zela harri hori kontaktzen eta gero urtez urte igotzen zela zazpigarreanean azalera iritsiz. **Thor** ipar herrieladeetako eta herri germanikoen mitologiako jainkoa da eta bere mailuarekin jiganteak borrokatzen ditu. Antzekorik ere badu eta Jupiterren geziekin. Posible litzateke, beraz, Barandiaranen ustez, Urtzi izatea euskaldunen jainkoa. *Ortzi-Thor*, berez, hibrido bat da Pío Barojak izendatua *Jaun de Alzate* nobelan. Gaia ez du soilik poema batean erabiltzen, beste bat honela izendatzen baitu: ORTZIREN ZALDUNEN GUDU-KANTA, benetan zoragarria eta haizkora zorrotzez landua, Ibiñagabeitiaren hitzak erabiliz. *Ortzi-Thor* Akher Beltzaren konpainian SANGUIS MARTYRUM poeman ere ageriko zaigu. Azken honetan, inbertsioa eginez, eliza katolikoaren otoiitzei

eta irkaitzez antzinako euskal erlijioeko jainkoei dei eginez (*zathozte, arren! zain gara*).

ZAKHUR HIL BAT dela eta, nabarmen ageri da bere panteismo joera eta izadi honetako izaki guzienganako jaidura eta nahia honelaxe bukatzen du: *Nik soilik nire Ekklesian / dut ohoratu hil anaia*. Ezaguna da ere zakurrak mitologietan dituen irudiak eta izenak: Zerbero da infernuetan atezain, eta germaniarrek Niflheim erresumako hilen ataria Garm deitu orak zaintzen du.

NIL IGITUR MORS EST poemaren giltzan argitzen digun bezala Lucrecius-en *De Natura Rerum* liburuko poema bati kendu dio titulua, *Nil igitur mors est ad nos neque pertinet hilum, / quandoquidem natura animi mortalis habetur*. Deus ez da guretzako heriotza eta ez dagokigu / izpiritua-ren natura hilkor baita. Honela hasten zen autore latinoak eta Mirandek mitologia germanikoa eranstean dio: *bi jainko-bele ahantziek...* Halere bele, sinbolo erromantiko ezkorrak bide luzea eman du hegan, jadanik Indiako *Mahabharata* obran ageri baitira beleak herioren mezulari gisara. Zibilizazio ezberdinetan ez du balio bera izan, eta esperantzarena ere izan daiteke beti gauza bera errepikatzen baitu: *cras, cras, cras*, alegia, bihar. Poetak, ordea, euskaraz trinko eta eder adierazten du bizitzaren eta heriotzaren arteko borroka honako hitz jokoaz: *Gizendak eri zirelarik / Bizi-min deitu minbiaz...*“Eta ez dena ez baitaiteke hil, gure ezagutza oro hizketa bat baizik ez da eta ezerk ez digu ustea zilegi egiten, hitz horien atzean izan ere zerbait badela”.

*Hitzaurre antzo* eta *Olerkarienean* eta ematen dituen zenbait poemaren giltzen testuekin batera bada beste agiri



bat euskaltzaleen mundua guztiz asaldatu zuena, eta “Liburu Lizunetaz” deitu artikulua<sup>32</sup> da. Hemen euskaldun-fededun binomioaren kontra jardun zuen, kontsideratuz euskaldun eta abertzaleen artean aurki zitezkeela, ez bakarrik kristauak, panteistak, neopaganoak, edo mahometanoak, ateoak ere ez zirela falta, eta, beraz, euskalduntasunak erlijioarekin ez zuela zerikusirik.

Gauzak horrela, bada poetaren poetika argitzeko ohi-ko argitalpenen agiriez at, beste ezagutza iturri bat idazle askoren kasuan bidean galdu izan dena, alegia, egile-argitaratzaile-adiskideen arteko gutunak. Hogeigarren mendeko hiru euskal idazle nagusiren gutunak plazaratzen saiatu gara: Jon Mirande (1995), Andima Ibiñagabeitia (2000) eta Koldo Mitxelena (2004). Mirandek biekin harreman zuzena izan zuen eta asko estimatzen zituen, Koldoren kasuan honi zenbait aldiz ezezkoa ematea suertatu zitzaion arren. Aldiz, Parisera joan zenean Mitxelena Martinet irakaslearen ordezkotza hizkuntzalaritza klaseak ematera, bere etxean errezibitu zuen Jon Koldok eta tratu ezin hobea eman zion.

Andimari 1951n idatzitako gutun batean esaten badio, *Bear genuke, laster, “terrorist” igikun bat eraldu — galiztar, katalandar, breiztar, flamendar, frystar eta beste minoritatekin batean — eta aundi-maundi zenbait garbitu, laterri aundi guzietan*, badirudi bost urte geroago damu dela zabaldu duen indarraren aldeko jokabideagatik eta honakoa diotso:

Ergelkeria izan da Euskaldunei indarraren Berri Hona aldarrikatzea, Eliza Amaren aurkha joatea

---

32 EUZKO-DEYA, Paris 1953, n° 355.

seme desleial antzo, gure herritar bihotz samurrekoak Germaniako basatien bizi-kontzeptuetara eramán nahi izaitea. Ergelkeria hoién bekhatuak damutzen nau txit - *mea maxima culpa* - eta ez dut gehiago egin nahi (1956-IV-11)<sup>33</sup>.

Jon Kortazarrek *Laberintoaren oroimena* saiakeran<sup>34</sup> Miranderen esentzia paganoa azpimarratzen du. Kristau-aurreko paganismo zeltikoa. Baina aspalditxo nioen bezala, ez faltatu arren mitologia zeltiarraren elementuak bere poesian, gailen ateratzen direnak euskal mitologiari buruzko erreferentziak dira (Akhelarre, Ortzi, Laminak...) eta izpiritu barojiano-nietzscheanoa.

Koldo Izagirrek ere eskaintzen dion kaierean (7-8. orr.) honela definitzen du paristarraren poesia:

Paganismoaren aldeko gerla deklarazio moduko bat dugu bere poesia, gauak, ilunpeak, itzalek girotzen dituzten eszena erdi-gotikoetan eta baladen doinu gozoan emana [...] Gaizkiaren poetika bat garatu zuen. [...] metrika baten barruan sartu zituen bere eduki ausartak. Berritzailea eta klasikozalea da batean.

So eginez zehazki antzinako mitoen goresmenari eta garai bortizkeriaz beteriko haien isla darabilen hizkerari, eredu arkaikoetan oinarritzen dela aurki daiteke. Hots, esate baterako ERESI sonetoan jadanik herri hizkeran

---

33 Patri Urkizu, 1995, Aip. Lib., 105.

34 Jon Kortazar, 1989, *Laberintoaren oroimena. Gure garaiko olerkigintzaz*. Baroja, Donostia.

1920rako galdua zen Ai- aurrizki botiboa hiru aldiz ageri da :

*Ai neza gal bizia goiz batez...*

...

*Ai nendi hil gazterikan, nihaur*

...

*Ai nitza gal hats, arima, odol.. (1, 4, 9. bl.)*

Hamalauko hau iruzkintzen duelarik Aurelia Arkotxak azpimarratzen ditu ere Mirandek eginiko hiztegi hautaketak ez direla batere inuzenteak eta horien zentzua garbi dagoela, *Zeren, haren ustez, **gudu**, germaniarrengandik heldu baitzaigu*, hala nola *iskilu, sala* eta beste...<sup>35</sup> Komunztadura batean doaz bada, elkarrekin josita eta bide bertsutik gogeta poetikoa eta hizkuntza literarioa.

### **Harreraz eta zabalkundeaz**

Aipatu azken adibide hau eta eredu honek izan duela jarraitzailerik ezin uka (Joseagus Arrieta, Joseba Sarrionaindia, neroni aspalditxo...), baina bere gazte garaian, berrogeita hamarreko hamarkadan euskal komunikabideetarik jaso zuen erantzuna gogorra izan zen. 1953an Mirandek eta Ibiñagabetiak prest zeukaten eta hainbeste maite zuten poemen liburuttoa ez zen argitaratu ahal izan, — Miangolarraren luzamenduak eta promesak adar jotze hutsa

---

35 Aurelia Arkotxa, "Mirande eta Thanatos: Heriotz heroikoa", *Jon Mirande orhoituz (1925-1972)*. Patri Urkizuren aipatu edizioa, 27-28. or.

izan baitziren<sup>36</sup> —, 1976 arte eta hau moldatzeko ohorea Andolin Eguzkitzari eta Kriselu argitaletxeari zor zaio.

Halaber, Andimak Salvatore Mitxelenari Habanara bidalitako gutun batean (1959-IX-21) honakoxea dio irakuri berri zuen *Haur besoetakoaz*:

*Mirandek bere azkenengo eleberria igorri dit, laburra eta luzea erabat, ia irurogei orrialde ditu ba. Oso ederra, bikainki idatzia, baina oso zikina korapiloa oso baitu likitsa. Ala ere psikologiz eta erran ederrez gainezka. Argitara nai luke, baina sortuko luken eskandalua ez litzake makala izango.*

Eta Koldo Mitxelenak Txomin Peillini igorritako gutunean (1959-III-30) hauxe zioen: **Aur besoetako** ere irakurri dugu: txit ederki dago baino zoritxarrez eztugu ikusten emen argitaratzeko biderik, oraingoz beintzat. Bi urte besterik ez Koldok bere hitzaurrez jantzirik Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* plazaratu zuela eta harrera benetan hotza izan zuen.

**Haur besoetakoak**, dena den, Gabriel Arestik argitaratu zuenez geroztik 1970ean (Lur, Donostia), azaleko hitzetan *ikaragarritasunean mamitutako edertasun imposible bat* bezala definituz, edizio ugari izan ditu: Hordago (1983), Erein (1987, 1996, 2007, 2010, e.book bezala 2012); Pamiela (1989); Orain S.A. (1995); Hiria (2000). Itzulpenik ere ez zaio falta izan: Eduardo Gil Bera, *La Ahijada* (Pamiela, 1991), esperantoz (sustatu.com, 2002), www.armiarma.com, eta

---

36 [Miangolarrak Ibiñagabeitiari 1954-V-3] "Ahora vamos al grano. 1º el libro de Mirande creo os lo puedo mandar dentro de 15 días. Espero ponerme como impresor a la altura del poeta y dejarle satisfecho. Trataré de sacar media docena en papel higiénico y poder satisfacer a nuestro amigo (*uzki-buxagai*)". (A. Ibiñagabeitia, 2000, *Erbestetik barne-minez. Gutunak 1935-1967*, Susa, Zarautz, 164.)

dudarik gabe, aipatu ez dudan beste zenbait lekutan ere. Ez dakigu ordea, zehazki, zein izan den liburu salduen kopurua, argitaletxe oso ezberdinen eskura iritsi baita eleberria.

Dakiguna zehatzago da, adibidez, Txomin Peillenek idatzi artikulua obra honi buruz<sup>37</sup>, 593 deskarga izan dituela, eta “La poesía vasca de la segunda mitad del siglo XX” titulua daraman nire artikuluak, non aurkezten ditudan, Jon Mirande, Gabriel Aresti, Juan Mari Lekuona, Joseba Sarrionaindia eta Koldo Izagirrereren bosna poema beren itzulpekin 47 Estatu ezberdinetako 2.551 deskarga eta jeitsitze izan dituela. Beraz datu hauetatik ikus dezakegu ez dela plataforma makala Internet munduan zehar gure kultura eta poetak zabaltzeko.

Carlos del Olmok idatzi *Jon gurea, Parisen hatzana* (1998), Toribio Alzaga sarian hobetsi genuen antzerkia, eta *Jon Mirande kabareta* Edorta Jimenez eta beste zenbaitek burutuak ere, adierazten digute harrera aski ona.

Horregatik Peillenen azken edizioan [2012:XXI] ohiko zehaztasunez dioenean *Joan den mendeko berrogeita hamar urteetan, Euskal Herrian, faxista zela aldarrikatzeak idazle baztertu bilakatu zuen*, ez dut uste iritzi zuzena denik (Ikus Miranderen testuak GERNIKA, EGAN, EUZKO GOGOIA – Baiona, ENBATA garaiko aldizkarietan) eta bere edizioa definitibotzat har dezakegunik, errepasu eta hausnartze berria eskatzen duten adierazpenak baizik ez baitira.

---

37 Txomin Peillen, 1992, “Jon Mirande Aphasorho y su novela La Ahijada”, *Revista de Lenguas y Literaturas catalana, gallega y vasca*. UNED, Madrid, 99-116.

Besterik ez, noizbait Jon Miranderen poesiari eta obra osoari (bai euskarazkoari bai eta beste hizkuntzetakoari<sup>38</sup>) behar bezalako eta merezi duen benetako edizio kritiko bat (ideiak, ingurunea, hizkuntza, estiloa, harrera eta eragina sakonki aztertuz) eginen zaion esperantzarekin, ongi izan, irakurle.

---

38 Ikus Goulven Pennaod-ek egiten duen Mirandek *Ar Stourmer*-en izan zuen parte hartzearen erresina (Francis Favereau, 2000, "Goulven Pennaod, Jon Mirande et la Bretagne". LAPURDUM, V, Baiona 293-305)

Ylitski, liltolki.

Beji roharbi  
aryian;  
mitua gorri  
ahuan.

Larria kein  
sehelian  
zankholuziale  
lsholkuan.

Hlaen alphuan  
ishraa;  
aho zytiale  
eratzun..

Ene labriagen  
kurrian  
maitiarena  
kurian.

Haurian eqin  
ezteiale  
hiltz' equneko  
jeiale.

abarzun gocho  
bizia  
bere larrian  
edortzia.

EZTEI BERRI

[no]

ἡ χεὶρ ἐστὶ γυνή μου  
Platon-ek (edo hertze batek)

Maitoa ez baitzara  
ni gana jin harzara  
emana gatik hitz,  
egiten dautzut ukho,  
ez zaitut nardatuko  
su hila ezin phitz.

Maitoa bihotz itsu  
zinen, hezgaitz, alditsu,  
zu galduz ez dut min:  
zu joanik, neska gazte,  
eskua dut emazte,  
jauskor, amoros, zin.

Hertzen beharrik gabe,  
nihau nihauren jabe,  
supherki soil, nombait  
zeru goran bezela  
Jainkoa ba naizela  
engoit' irudi zait.





## **Mirande, faxistak eta filosofoak**

Ander Iturriotz Lauzirika

Artikulu honen oinarria Baionan dago. Bertara gonbidatu baininduen *Elekatu-elikatu* izen iradokigarria daraman elkarteak Miranderi buruz antolatu nahi zuten jardunaldi batean esku har nezan. Eta, halako eskaerak beti kitzikagarriak direnez, lanean hasi nintzen.

Unea iritsirik, Baionan, ordu bete-edo eskaini ziguten, Itxaro Borda, Luzien Etchezaharreta eta hiruroi, Parisen jaiotako zuberotarraren pentsamendua eta obra aurkez genezan.

Ez bide genuen oso ongi egin, ez bide genuen asmatu Miranderekin. Emilio Lopez Adanek, aurkezpena eta galde-erantzunak amaitu osteko elkarrizketa sentitu batean, esaterako, Miranderen faxismoa behar bezala ez genuela sakondu adierazi zidan. Labur geratuko ginatkeen, seguruena, gau osoa izan bagenu ere.

Halakoetan, bere baitara egiten du batek, jantzi beharra sentitzen du batek. Testuetara itzuli nintzen, aurrean ikusi nituen begi urduri haien eraginez, metastasiak bezala, barrua hartu zidan zorabioaren ezintasunez.

Itzulera hori ere, Baionara bilarazi ninduten euskaltzale gazteei zor diet. Aberasteko aukera eskaini zidaten.

### **Miranderen ekarria**

Hain zuzen, Miranderen faxismoa hartuko dugu hizpide artikulu honetan, Miranderen pentsaerak izan zituen iluntasunetako nabarmenena, alegia. Baina, aitortu behar dugu, hurrengo orrialdeetan ideologia faxista baieztatu baino lehen, Mirandek erronka interesgarriak jarri zizkiola garai-ko Euskal Herriari.

Miranderen abertzaletasuna absolutizaturik haren ideologia faxista lausotzea edo ezkutatzea zuzena ez den hein berean, ideologiaren auzia absolutizaturik, Jon Mirandek Euskal Herriari —hurrenez hurren, euskal kulturari eta literaturari— egin zion ekarria bere horretan gutxiesten ere, ez da oso zuzena, gure ustez. Bere gogoeta asko eta asko oinarri-oinarrizkoak izan dira ezagutzen ari garen euskal Iratzartze edo Pizkunde moderno eta definitiboaren hasieran.

Euskara jarri zuen Euskal Herriaren ardatzean, are, Txillardegik nazionalismo etnolinguistikoa teorizatu baino lehenago ere<sup>1</sup>. Hain zuzen, hori izan baitzen, haren ustez, Nafarroako Estatuak egin zuen akats historiko larriena, euskararen inguruan kultura oso bat ez garatzea<sup>2</sup>. Zentzu horretan, euskara nahi zuen Euskal Herriaren hizkuntza bakar, Euskaltzaindia bera espainolez eta frantsesez mintzo zen garai batean<sup>3</sup>. Euskara batuarekin engaiatu zen, buru-belarri; euskara jaso nahi izan zuen, izan zedin euskaldunontzat kultura-bide<sup>4</sup>. Euskararen aldeko lan militantea aldarrikatu zuen<sup>5</sup>.

---

1 Ikus, esaterako, "Olerkarienean", in Peillen, Tx.: *Jon Mirande, olerkaria*, Euskaltzaindia, Bilbo, 2013, 37; edo, Mirande, J.: "Abertzaletasunaren inguruan", in *Miranderen lan kritikokoak*, Pamie-la, Iruñea, 1985, 46. Nazionalismo etnolinguistikoa buruz, Txillardegik: *Euskal Herria helburu*, Elkar, Donostia, 1994, 231-232.

2 Mirande, J.: "Euzkadi", in *Miranderen lan kritikokoak*, op. cit., 27.

3 Mirande, J.: "Herri saindu eta demokratikoaren parábola", in *Miranderen lan kritikokoak*, op. cit., 123.

4 Ikus, esaterako, "Olerkarienean", in Peillen, op. cit., 37; Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, Susa, Donostia, 1995, 37, 53, 56, 57, 68, 69, 101, 113, 114.

5 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, op. cit., 89.

Kultura jaso baten alde ere borrokatu zen<sup>6</sup>. Itzulpen-gintza estrategikoa zela ikusi zuen<sup>7</sup>. Sakonki ikertu zuen euskal kultura<sup>8</sup>. Talde-lana bultzatzen saiatu zen, egia esan, arrakasta handirik gabe<sup>9</sup>.

Abertzalea izan zen, politikan, abertzale separatista<sup>10</sup>. Nafarroaren gainean eraikitako Euskal Estatu bat aldarrikatu zuen<sup>11</sup>. Demokrazia historiko erreala —besteak beste, Frantziako Estatu ekarri duenak— bere baitan gordetzen duen aurpegi bikoitza ikusteko gaitasuna izan zuen, despotikoa baita, askatasunezko estalki edergarri baten azpian<sup>12</sup>. Estrategikoki ere, bide eragingarri eta pragmatikoak aholkatu zituen: naziekiko lankidetzaren arbuigarria proposa zezakeen<sup>13</sup>, baina, baita ere, Europako herri minorizatuaren arteko elkartasuna<sup>14</sup>, edo borroka armatua<sup>15</sup>.

Euskal Herriaren historia errealismoz irakurri zuen, bestalde, errealismo zikinez: Nafarroaren konkistaren osteko dekadentzia nazionalaz mintzatu zen<sup>16</sup>, gaur egun, Na-

---

6 *Ibidem*, 50, 58, 68, 102.

7 *Ibidem*, 90.

8 *Ibidem*, 26, 27, 64, 67, 72, 74-75, 81, 90.

9 *Ibidem*, 354, 66, 68, 102, 115.

10 Peillen, Tx.: "Jon Miranderen ordeinua bere lekuan", *JAKIN*, 106, Donostia, 1998, 13.

11 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, op. cit., 125.

12 Mirande, J.: "Euskaldungoaren etsaiak", in *Miranderen lan kritikoak*, op. cit., 32; "Abertzaletasunaren inguruan", *ibidem*, 45-47. "Frantziar Errepublikaren menpeko Herriak", *ibidem*, 50-53.

13 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, op. cit., 48.

14 *Ibidem*, 48, 63, 85.

15 *Ibidem*, 39, 114.

16 *Ibidem*.

*barralde* mugimenduaren inguruko historiografiak egiten duen lana iragarri. Erreforma luteranoaren porrota<sup>17</sup>, eta Kontrarreforma. Frantziako Iraultza eta foruen galera<sup>18</sup>. Txillardegik egingo zuen bezala, Euskal Herriaren gain-behera historikoaren mapa eraiki zuen eta, haren gainean, Euskal Herri historikoa berreskuratzeko proposamen ez-tabaidagarriago bat egin<sup>19</sup>.

### **Miranderen ekarriaren aitortza**

Joxe Azurmendik ez dauka zalantzarik Miranderen ekarpenaz:

Historian behera jarraitzen badiogu, aldiz, nola Miranderen bidez Euskal Herrira iristen den indibidual-elitismo hau, ikusten dugu, nola berehala indar hartzen duen Krutwigekin, eta bere burua “jenseits von Gut und Böse” ikusten duen mesianismoa edo anarkismo (nihilismo?) gisa batean zabaltzen den. Haize guztiok Mirandek ireki zuen Pandoraren kuxatik barreiatu bait dira (haren eragintza pertsonalagatik izan dela esan gabe), Miranderen inportantzia Euskal Herriko pentsamendu modernoaren historian nekez exajera liteke. Eragile bat ez bada, zentzu hertsian, aitzindari bat izan da<sup>20</sup>.

---

17 Mirande, J.: “Euskaldungoaren etsaiak”, in *Miranderen lan kritikoak*, op. cit., 33.

18 Mirande, J.: “Uztailaren Hamalauko Besta”, in, Peillen, Tx.: *Jon Mirande-ren idazlan hautatuak*, Gero, Bilbo, 1981.

19 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, op.cit., 53, 65.

20 Azurmendi, J.: Azurmendi, J.: *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan*, Susa, Donostia, 1989, 90.

Peillenek gertutik ezagutu zuen, hain zuzen, Mirandek Krutwigengan izan zuen eragina:

Gure tertulietan sartu zen baita lagun egin Raude bretoi abertzalearekin ere, zeinek bretoi abertzale-tasuna ikertu zuen. Rauderen arrebarekin adiskide min egin zen eta orduan sortu zitzaion *Vasconiaren* ideia. Rauderen idazkiak eta Miranderen ideiak gaztelaniaz ipini zituen hala nola Jon Mirandek *Gernika* aldizkarian aspaldian, idatzitako hiru artikulu kritikoak erabili<sup>21</sup>.

Estetikoki ere, modernitatea ekarri zuen Mirandek. Euskal literaturaren historian zantzua egin zuen.

Peillenek beti aitortu du Miranderen eragina beragan. Gabriel Arestik berak ohartarazi zion hartaz, nonbait:

Arestik berak gure literaturaren moldeak hautsiko dituenak behin esan zidan moduan “ez banu Miranderen lanik irakurri apika ez nuen sekulan euskaraz idatziko”. Ongi ulertu zuten Jokin Zaitegi jesuitak, Luis Mitxelenak eta Andima Ibiñagabeitiak Mirandek —ideiak bazter utzita— zer zekarkion euskal literaturari<sup>22</sup>.

Sarrionandiak egiazkotasuna eskertzen dio, eskaparazteko bilakatzen ari den literaturaren barruan:

---

21 Peillen, Tx.: “Euskal Idazle izatea 1950-1960 urteetako hamarkadan (Hausturaren belau-naldia)”, in, Apalategi, U.: *Belaunaldi literarioak auzitan*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 2005, 135.

22 *Ibidem.*, 127.

Bere burua hiltzeak, finean, bere obra itxurazkoa ez dela zihurtatzen du. Jon Miranderen obraren zintzotasuna, hau da, bere obra apasionatua dela, ez dela indiferentea. Bere obra egiatia dela ziurtatzen du (...)

Egia mota hauxe du Jon Miranderen obrak. Egiazkoa da, eskaparate eta esames hutsalez beteriko egunotako literaturan. Eta Jon Mirande, biziaren zentzora ailegatzeko eta bere perfekzio burrukan, heroea da, aktore txar eta dendariz beteriko gure herrian<sup>23</sup>.

Heterodoxo izatea eta boterearen aurka egotea ere eskertzen dio:

Heterodoxiak eta boterearen aurkako jarrerak ere badaude literaturan, baina goiz edo berandu neutralizatu egiten dira (...). Gabriel Aresti eta Jon Mirande, adibidez, egungo kultura ofizialeko oinarri bihurtu bide dira, bizi zireneko euskal kulturaz berturik egon ondoren (...)<sup>24</sup>.

Miranderen ideologia maite ez bazuten ere, belaunaldi oso batentzat eredu nola bilakatu zen gogorarazten dio Sarrionandiak Ruper Ordorika lagunari eta, ia-ia, bat dator Azurmendiren ikuspegiarekin:

Jon Mirandekiko mireste hori Gabriel Arestirekin hasi zela nik uste. Gogoratzen diat orain hi Deus-tuko unibertsitate usain kanonikoko haretan hi

---

23 Sarrionandia, J.: *Ni ez naiz hemengoa*, Pamiela, Iruñea, 1985, 178

24 *Ibidem.*, 221.

Kattalin irakurriaz erdikantatzen. Bagenizkian Jon Mirande laket izateko arrazoiak: bere kalitate literarioagatik, bere modernitateagatik, bere heterodoxiagatik, bere pertsonalitatea korrontearen kontra eusten frogatu zuen kemenagatik. Ez genian bere ideologiagatik maite, baina egiazko fazismoa ez zia-goan Pariseko bere hilobi ezezagunean, geure inguruan ziagoan oraindik ere gogaikarri, frankismoaren hondarren lardarian, gurutzearen, ezpataren, kapitalaren eta espainoltasunaren jabegoan. Gure aldameanean, gero, igande goizetako euskal mundua, txistua eta pilotarena, kristau-demokrata eta bizkaitarra, erdirakoia eta odol zurikoa. Orduan, debeku politiko eta ostrazismo moralen giro haren kontestuan, Jon Miranderen obra postumoa orijinala, ausarta, imitaezina zuan<sup>25</sup>.

Beti eztabaidagai izan den literaturaren eta ideologiaren arteko harremanen auzira etorriz, Sarrionandiak Miranderen erreferentzialtasuna aitortuko du:

Jon Mirande ez genian bere ideologiagatik maite. Autore edo obra baten balio globala ez diagok bere ideologian, balio global hori esfera desberdinen ondorio duk, eta hor ideologia ez duk esfera bat besterik. *Barrera ideologikoaren* arazoa duk, baina irakurlearen hesparru ideologikoak berak asumitzen duen ideologiarena baino zabalagoa izan behar dik. Pedro de Axular, Gustave Flaubert, Ezra Pound, T.S. Eliot,

---

25 Sarrionandia, J.: *Marginalia*, Elkar, Donostia, 1988, 134.



Fernando Pessoa edo Jorge Luis Borges bezalako autoreetan hartu beharrekoa duk beren ideologia arbiuatu arren, beren esperientzi intelektual eta humanoa baliotsua dela<sup>26</sup>.

Gatozen, baina, gureru. Esan bezala, ez baita Miranderen ekarria artikulu honen gaia. Aitzitik, Miranderen ekarriari begiratu dioteneke izan duten hutsune edo akats bat zuzentzen saiatu nahiko genuke, zuberotar idazlearen ideologiak zeuzkan iluntasunei lotu, hain zuzen.

### **Faxismoaren salaketa euskal kritikan**

Emilio Lopez Adanek salatu zuen, oso aspaldi, euskal kulturaren ikerketan Miranderi egin zaion harrera abegikorra, maiz erlatibizatu baita haren faxismoa eta, galdu, neurri batean, perspektiba. Ez du ulertzen jarrera hori eta kritika gupidagabea egiten dio Miranderi. Izan ere, faxismoaren ideologiaren barruan lerrokaturik, pentsamendu politiko konbentzionala salatu dio, batetik:

Eskuin muturreko pentsamendutik ikusita, guztiz konbentzionala da. Nazien arrunckeriak onartzen ditu humanitatearen eraikuntza gorenak balira<sup>27</sup>.

Eta aurrerago:

Arruntkeriak metatzen ditu: beltzak zuriak baino gutxiago dira, eta zibilizazioen gainbeheran lehen arrazoa garbitasun arrazialaren galtzea omen da<sup>28</sup>.

---

26 *Ibidem.*, 134-135.

27 Lopez Adan, E.: "Jon Mirande, eskuin muturreko idazlea", JAKIN, 106, 1998, 48-49.

28 *Ibidem.*, 50.

Topikoak eta aurreiritziak metatzen ditu gizarteen eta herrien izaerari buruz ari denean, halaber:

Naturan, zioen, ez da arrazen eta jendeen arteko berdintasunik; natura aristokratikoa da, arraza batzuek besteak baino gehiago dira eta gizon batzuek beste pertsona guztiak baino gehiago. Indartsuenek gobernatu behar dute eta kitto. Demokraziaren oinarriak juduen bihurrikerian eta koldartasunean aurkitzen omen dira. Juduek arraza europarraren garbitasuna endekatzen dute eta diruaren bidez zurgatzen herrien odola. Ez dira gauza borroka garbian irabazteko, eta gehiengoaren legea inposatu nahi diete jaun burgoiei (...). Kristautasuna, demokrazia, sozialismoa eta komunismoa gero, denak dira arbola bereko adarrak (...). Jaunen erresuma, berriz, totalitarioa da: nagusiak nagusi, esklaboak esklabo, eta arraza gaizkileak, fuera!<sup>29</sup>

Ikuspegi horretatik, Euskal Herriari buruz ere ez zuen ekarri handirik egin, bestalde:

Miranderen herria, burgoi, azkar eta krudela, jaunen arrazakoa, mitologia nazi-germaniarren transposizio hutsa da, eta ez du inongo oinarri historikorik... delirio arrazista-germaniar hori pobre eta estereotipatua da<sup>30</sup>.

---

<sup>29</sup> *Ibidem*, 54-55.

<sup>30</sup> *Ibidem*, 49.

Zehazkiago adieraztearren:

Hasteko, euskaldunak europar jatorrizko herrien artean kokatu zituen eta beraien historia “arioa” mitifikatua gureganatu (...). Euskaldunak omen dira lehen populuetarikoak, munduaren ikusmolde pagano eta magikoa zuten sartaldeko herri-aztien partaideak (...). Linguistika ere dakar laguntzaile: euskal gerla-hiztegian aurkitu zituen hitz nahikoa bere us-tez germaniarrek utzita (...). Oinarri fantastikoetan finkaturik, aise du baieztatzea gure lehengusu eta irakasle germaniarrak bezala izateko sortuak ginela (...)<sup>31</sup>.

Ildo kritiko berari loturik, Aurelia Arkotxa entseatu zen, geroago, Miranderen ideologia nazi hori esplikatzen. Eskutitzen agurrean darabiltzan leloak aipatu ditu: *Heil Hitler*, edo, *Juduak ill! Perish Juda! Die Juden zum krematorium!*, esaterako; Peilleni Hitlerren aurka egitea nola zentsuratu zion; Hitlerren Alemanian mintzatzeko askatasuna zegoela nola adierazi zuen<sup>32</sup>. Europar herri minorizatuen alde ari denean ere, munduko gainerako herri minorizatuak ez ditu begirunez hartzen, mestizajea ekidin nahi du eta balizko euskal Estatuari egozten euskal garbitasunaren zaintza<sup>33</sup>.

Lopez Adanek ideologia horren kondena eskatzen du, okaztagarria zaio izugarrikeriak eramangarri egiten dituen Miranderen jarrera:

---

31 *Ibidem*, 51.

32 Arkotxa, A.: “Jon Miranderen pentsamendua. Nazional-sozialismoaren inguruan ohar batzuk”, in, *gipuzkoakultura.net*, 1.

33 *Ibidem*, 2.

Alta, Auswitchz gertatu eta, oso tolerantzia gutxi diet faszismoaren baloreak bereganatzen dituztenei. Abertzaleak zirelako eta ustez hori zela gure aberriaren aldeko hoberena? Berdin zait: kondena gorriena<sup>34</sup>.

Eta ez ditu onartzen justifikazioak, inola ere. Ezin du onartu, esaterako, Arestiren zabaltasuna. Ez ditu ahanzten bilbotarrak *Haur besoetakoa* nobelari buruz esan zituenak, nonbait:

Funtsean sinbolo bat dela, errebeldiazko azken garrisia zoro bat, gizarte intolerante baten kontrako aldarri desesperatu bat.

Eta Miranderen liburutik har dezakegun irakaskintzarik harrigarriena, hau da: obra hau, libertadeari eskaindutako kantu bat dela; gezurra badirudi ere. Munduko hippiek inposiblearen bazterretan libertade amesgarri horri dedikatutako abesti eder, gaitz eta ezin bat<sup>35</sup>.

Azurmendik bere saiakeretan erakutsi duen erlatibismoa ere ez zaio bidezkoa iruditzen:

Ez dakit noraino Azurmendiren aukera afektibo guztiz barnatua, herri mutu eta beldurtuaren haur

---

34 Lopez Adan, E.: "Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan", [www.susa.literatura.com](http://www.susa.literatura.com) (Hegats, 1994), 2.

35 Aresti, G.: "Haur besoetakoa", *Anaitasuna*, Bilbo, 1970.

argia izateak, ez duen kutsatzen Miranderi buruzko egiten duen erreflexioa<sup>36</sup>.

Eta aurrerago:

Eta, hain zuzen, hori dago eskas, nire ustez, Azurmendiren liburuan; eruditoak nabardura anitz aurkitzen du Miranderengan, eta nabardura horien izenean esaten digu Mirande faszistatzat hartzea sinplekeria dela<sup>37</sup>.

Egia esango badugu, Lopez Adanen kritika gehienekin gatoz bat: Miranderen ideologia eta, neurri txikiagoan, konpromiso politikoa faxismoarekin adosten da.

Gauza batean ez gaude ados, ordea, *Beltza*-rekin, lehenago ere esana dugunez: faxista izan arren, Mirandek ekarri teoriko ugari egin zizkion Euskal Herriari, euskarari buruz, kultura jaso beharrari buruz, naziotasunari buruz eta, baita ere, historiaren interpretazioari buruz. Hori guztia agerian uztea, gutxienez, aitortu behar zaio Azurmendiri. Faxismoarekin izan duen lausoak ezin du Azurmendiren azterketa erabat gezurtatu.

Beste baterako utziko dugu guk geuk ere auzi hori.

### **Faxismoarekin ezeroso**

Gerora ere, Miranderi buruz hitz egin behar izan duenak oro, hala moduko justifikazio bat aurkitu behar izan du, aldez edo moldez.

---

36 Lopez Adan, E.: "Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan", *op. cit.*, 2.

37 *Ibidem*.

Bitzta osoan zehar haren lagun izan den Txomin Peillenek Miranderen faxismoa desideologizatu zuen, lehen:

Bere fazismua sentitzeko manera bat zen, ez ideologia bat; etika bat zen, pagan kutsukoa, ez politika bat. Horregatik, Frantses eskuindarren aldetik gaizki ikusia zen<sup>38</sup>.

Analisietan doitasuna eskatu du, halaber. Argazki bat ere badago, 1970ean *Le Prix du Ressemblment Breton* delako literatura sariketaren kariatara ateratakoa, eta Mirande ageri da bertan Jean Marie Le Penn eta Goulvaen Pennaod-ekin. Hura ikusirik, erraz uztartzen da Mirande lepenismoarekin<sup>39</sup>. Peillenek esplikatzten digu hori ere, Mirande bi orduko lepenista izan zela argudiatuz:

Behin, bretoien literatura sariketa batean —"Le Prix du Rassemblement breton"— Le Pen ezagutu zuen (...). Hark gonbidatu zuen Mirande mitin batera, sartzean erosi zuen karta eta entzun zituenean hango astakeriak karta hartu eta urratu, bi ordutako lepenista hark, ezin euskalduntasuna bihotzean zeukan batek nekez onar zezakeen bere buruaren ukatzea Frantzia handiaren izenean. Gainera bazekien Le Pen bretoin abertzaleekin ibili ondoren jakobino negozioan sartu zela<sup>40</sup>.

---

38 Peillen, Tx.: *Jon Mirande-ren idazlan hautatuak*, op. cit., 23.

39 Sarean ere iruzkin ironikoren bat aurki daiteke, zentzu horretan, sareak ahalbidetu duen doakotasun arriskutsuz egina.

40 Peillen, Tx.: "Jon Miranderen ordeinua bere lekuan", op. cit., 14.

Dena den, Peillenek ez du inoiz ezkutatu Miranderen nazizaletasuna:

Mirande borroka armatuaren, indarkeriaren alde, eta nazismoaren alde zen<sup>41</sup>.

Tamalez, Mirande nazi-fanatismoak itsutzen zuela ere esan du<sup>42</sup>.

Peillenek argitaratu berri duen *Jon Mirande, olerkaria*<sup>43</sup> liburuan, bestalde, aleman naziak oso gogoko ez zituela esango digute haren ilobek. Hori frogatzeko, bere familian bertan pairatu behar izan zuen alemanen basakeria gogoratzen digute:

Frantses askoren gisa Mirandetarrek beren haragian bi gerlen inarrosaldia pairatu zuten. Erran bezala, Jonen aita amek 1914-1918 urteetako Gerla Handian esku hartu zuten. Amaren aldetiko bi osaba Jean-Pierre hogeita hiru urterekin gerla hasieran hil zen, bestea Pette, zauritua, zango bat galdu zuen (...). Aitaren aldetik, Maria izebaren Vergne senarra lehen gerlan arnastu gasaren kausaz. 1929 urtean halaber Angelié aitona<sup>44</sup>.

Eta konstatazio hori egin ostean, argia iruditzen zaie Mirandek aleman naziei buruz iritzi onik ezin eduki izana:

---

41 Peillen, Tx.: "Euskal Idazle izatea 1950-1960 urteetako hamarkadan (Hausturaren belau-naldia)", *op. cit.*, 138.

42 Peillen, Tx.: *Jon Mirande, olerkaria*, *op. cit.*, 180.

43 *Ibidem*.

44 Angelié, Ch.; A. Angelié; J.P. Aristorena: "Jon Miranderen biografiaz", in, Peillen, Tx.: *Jon Mirande, olerkaria*, *op. cit.*, 22.

Hortik dator Jon Mirande idazlearen ingurunean alemanenganako baita nazien aldeko ikuspegia ez zela batere goxoa.

Alderantziz, Jonek gerra ondoan eskuin muturreko bretoi abertzaleekin adiskidantzak egiten zituen<sup>45</sup>.

Beste alde batetik, Miranderen faxismoak izan zezakeen oinarri pragmatikoa azpimarratu dute ilobek, halaber. Ipar Europako nazio gutxitu askotan gertatu zena eredutzat harturik, Euskal Herriak jasaten zuen menpeko egoeratik askatzeko onartuko zuen Mirandek Alemaniaren inperio faxista:

*Breizh Atao* talde horretako bretoi abertzaleek uste zuten Alemania naziak Frantzia zatikatuko zuela eta Europa berri bat, eskualde autonomoak federatuz, sortuko zela<sup>46</sup>.

Mirandek berak aitortzen digu pragmatismo politiko hori, “Frantziar Errepublikaren menpeko herriak” izeneko idatzian:

Orain dala ogei bat urte, Frantziak Alemaniaren kontrako gudua galdu eta atzerritar gudariak haren lurrian<sup>47</sup> zeudelarik, aski nabarmenki buragertu ziran abertzale-igikundeok. Ergelkeria litzateke delako abertzaleak maixeatzea, “nazi”ekin lankidetu zirelakoan. Irlandarrek ba dute esaera bat: “England’s

---

45 *Ibidem*, 23.

46 *Ibidem*.

47 Jatorrizkoak *lurrea dakar*.



difficulty, Ireland' oportunitz". Zuzen ta bidezko da geuk ere halaber joka dezagun zangopean gaituen Estatuaren aldera<sup>48</sup>.

Ez dira ari istoriorik asmatzen. Garai hartan, ipar Europako nazio gutxitu batzuetan, Britainian ez ezik, Normandian eta Flandrian, helburu pragmatiko jakin batekin onartu zen Alemaniaren inperio faxista.

Azurmendik ere azpimarratu du pragmatikotasun hori: makiabelismo gehiago ikusiko du, horretan, faxismoa baino<sup>49</sup>.

Euskal Herrian bertan, izan zuen aldekorik, lehenago ere, pragmatismo horrek, Garat-ek Napoleonen inperialismoan itxaropena jartzen duenean, esaterako. Mirandentzat ez da ezezaguna, noski, Garaten planteamendua<sup>50</sup>.

Baina pragmatikotasun estrategiko horrek ez du salbuesten, ez du ontzen Miranderen faxismoa, noski.

Faxismoa kulturgintzaren, euskalgintzaren eta literaturaren bidez lausotu da beste batzuetan. Lurdes Otaegik, esaterako, ez du ukatzen Miranderen faxismoa, Parisen izan zuen lehen sozializazio politikoari erreparatzen diotenean:

Il Mundu Gerraren zurrunbiloan, eta artean oso gazte zelarik, nazi bretoiak ezagutu zituen eta haiekiko harremanak eramanean zuten beragan oso era-

---

48 Mirande, J.: "Frantzitar Errepublikaren menpeko herriak", in, *Miranderen lan kritikoak*, op. cit., 54.

49 Azurmendi, J.: *Mirande eta kristautasuna*, CAP, Donostia, 1978, 51.

50 Mirande, J.: "Euzkadi", in, *Miranderen lan kritikoak*, 29

ginkorrak bilakatuko ziren nazional-sozialismoaren ideiak hartzera<sup>51</sup>.

Ematen du, ordea, gertakari hori ezin duela bere horretan utzi, ezin duela jantzi gabe utzi. Eta nazi bretoi horien abertzaletasuna azpimarraturik, alegia, nazi bretoien kultur harrotasuna azpimarraturik, Miranderi buruzko ikuspegi kulturista garbiago bat eskaintzen du:

Giro horretan, bere euskal nortasunaz ohartu zen eta hizkuntza zeltikoekiko interesa piztu zitzaion. Gerorxeago, Europako antzinako hizkuntza guztiak ikasteko asmoa hartu omen zuen<sup>52</sup>.

Abertzale bretoi nazien eraginez jabetu zen europarra zela, hain zuzen, euskalduna zelako:

15-20 urte zituelarik, Pariseko bretoi naziekin eta hauen Spengler-zaletasunarekin harremanetan jarri zen: honela jabetu zen europarra zela eta euskalduna. Orduz geroztikoa da Mirandek euskara eta euskal kultura ezagutzeko eginiko ahalegin handia, bai eta Europako aintzinako kultur hizkuntza guztiak menderatzeko saio erraldoiaren arrazoia ere<sup>53</sup>.

### **Azurmendiren irakurketa**

Azurmendik ere ulertu nahi izan du, esan dezagun, erlatibizatu —ez justifikatu, noski— Miranderen faxismoa. Euskal Herriak jasan zuen krisiaren inguruabarrean, Miranderen

---

51 Otaegi, L.: *Jon Mirande (1925-1972)* Eusko Jaurilaritza, Bilbo, 2000, 2.

52 *Ibidem*.

53 *Ibidem*., 11.

erantzun bortitza irtenbide baten bilakuntzan jarri du. Hori salatu dio Lopez Adanek, hain zuzen, arestian.

Izan ere, Azurmendik ez du argi ikusten Miranderen faxismoa tipo ideial bat bezala. Tipologizazioaren ariketak arazoak baititu, egia esan. Ez dirudi faxismo klasikoa. Moralari begira, sexu jarduerari buruz, bereziki, oso aurre-ratua dago, arlo batzuetan: inmoralista da; familiaren eta bizitzaren estilo ordenatu baten mesedetan, faxismoak sexualitatea ia tabu bihurtu zuen bitartean<sup>54</sup>. Nietzscheren ezkerreko irakurketa batekin aldera liteke, batzuetan. Horrela dio Azurmendik:

Faxista hau ez da faxista. Inmoralista hau funtsean moraltasun radikal garbi bat esijitzen ari da. Pagano hau mistiku bat da. Izpiritualista hau, poeta sensual-sensuala. Sineste hau, eskeptiko galdu bat azkenean<sup>55</sup>.

Baina, agian, tipologia ideal hori haustera datorrena Europaren eraikuntzan Euskal Herria bezalako nazio txikiei eskaintzen dien aitormena dateke —nahiz eta jakin, bada-kigun, nazismoaren inguruan ere halako ideia batzuk garatu zirela—. Jarrera horrek, defentsa horrek, Parisko giro faxista klasikoan arazo ugari sortuko bazion ere<sup>56</sup>, nazio txikien alde ageri da beti. Arazo ugari sortu ziolako, hain zuzen, ez da ongi lotu faxismo klasikoarekin.

---

54 Moose, G.L.: *La cultura europea del siglo XX*, Ariel, Bartzelona, 1997, 159, 169. Hitler bera kezu da garaiko publizitatean, artean, zineman, antzokietan eta bestelako aretoetan dagoen erlaxamendu eta erotismoaz (Hitler, A.: *Mi Lucha*, Antalbe, Bartzelona, 1984, 130).

55 Azurmendi, J.: *Mirande eta kristautasuna*, op. cit., 147.

56 Peillen, Tx.: *Jon Mirande-ren idazlan hautatuak*, op. cit., 23.

Azurmendik anarko-faxismoa deituko du, edo faxismo libertarioa, edo faxismoaren tankeraz jantzi den faxismoaren ukazioa<sup>57</sup>. Ez dakit gehiegi esatea ez ote den. Baina, batzuetan, herri-faxismo anti-inperialista dirudi, euskal faxismo abertzalea, agian. Beste batzuetan, Espainiako faxismoaren aurka, esaterako, faxismo antifaxistatzat har liteke —nahiz eta, pasarte batean, gerra garaian euskal abertzaletasunak frankismoarekin bat egin behar zuela iradokitzen duen—.

Azurmendiren ikuspegia ez zaio lotzen, zehazki, ideologia politikoari. Hurrenkera filosofikoagoa da berea:

Alde honetatik, ere Miranderen interesa ebidentea bait da, bera izan delako adibidez kristautasunaren lehenengo kritikoa euskaraz, berak predikatu delako lehenik indargintza (biolentzia) 36ko gerra ondorenean, paganismo zaharra berpiztu nahi zuelako (euskal arima zaharra alegia, Oteizak baino lehen), etab. Filosofia berri bat, euskal munduan ordura arte ezinezkoa zirudien bat, errepresentatzen du alde orotarik<sup>58</sup>.

Oinarrian, egitura politiko bat ez ezik, moral bat edo metodo zientifiko bat ekarri duen arrazionalismo modernoaren kritika holistiko samarra da. Zentzu horretan, Miranderen aurka egon diren aurreiritzi merkeak salatzen ditu Azurmendik, Pascal, Hume, Rousseau, Schopenhauer, Nietzsche, Spengler..., arrazionalismoaren kritikak filoso-

---

57 Azurmendi, J.: *Mirande eta kristautasuna*, op. cit., 38.

58 Azurmendi, J.: *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan*, op. cit., 5.

fiaren historian barrena izan dituen filosofo askoren le-  
rroan jartzen duenean:

Ezin utz genezake aurreiritzi bulgare merke batzuek  
eragotz diezagutela Mirande bere zuzentasunean  
ulertzea. Ezta ere, ez diogu kapritxo literario erro-  
mantikotzat hartuko, tesi epistemologiko eta antro-  
pologiko guztiz benetakoa izan zuena: intuizioaren  
lehentasuna<sup>59</sup>.

Inguruabar epistemiko horrekin lotzen du behin eta be-  
rriro Azurmendik Mirande, eskuinarekin bezala ezkerre-  
rekin:

Inon Mirande aparte edo bakarrik baldin badago,  
beraz, euskaldunen artean izango da (...) Guzti hon-  
etan, bestela, ez bakarrik eta ezta bereziki esku-  
inean ere dago, eskuineko zein ezkerreko pentsa-  
tzaile anitzen laguntasunean baizik<sup>60</sup>.

Horretan arrazoia dauka Azurmendik. Baina arrazoia  
dauka, halaber, Lopez Adanek: ezkerreko eta eskuinekoek  
partekatuko zuten Miranderen irrazionalismoa edo in-  
tuizionismoa baina, Miranderen funtsezko ideia politiko  
gehienak eskuinekoek baizik ez zituzten partekatzen, fa-  
xista eta naziek, alegia. Eta hori ere azpimarratu behar da,  
ausarki.

Eman baitezake, Mirandek erakusten duen arrazakeria  
nabarmena ere zalantzan jarri nahi duela Azurmendik:

---

59 *Ibidem*, 39.

60 *Ibidem*, 38.

Mirande, bere modura, “arrazista” da, eta bere “faxisismoaren” fama, neurri batean, horri dago lotuta. Dena den, Miranderen arrazismoa ulertzeko, bistan dago, haren arraza kontzeptua ulertuz hasi beharra legokeela, eta hori ez da egin ohi dena<sup>61</sup>.

Mirandek arraza zuri Europarra daukala gogoan argudiatzen du Azurmendik:

Dagoena, hortakoz, arraza zuri haundi bat da. Eta gaztelauak, galegoak, euskaldunak, etab., herriak dira, alegia, arraza bakar hori historian zehar eta kulturalki zirkunstanzien arabera hartuz joan den herri-forma desberdinak: “Il n’y a pas de race basque —mais il y a un peuple basque formé historiquement”<sup>62</sup>.

Miranderi hitzez hitz lotzen zaio Azurmendi baieztapen hori egiterakoan. Baina arraza zuriaren nagusitasunaren teoria, hastapeneko teoria arrazistan ez ezik, aurreiritzi nazien idearioaren oinarrian dagoela ere hartu behar da aintzat.

Gero, oro har, ez du ulertzen euskal iritzi kolektiboan Miranderen arrazakeriari eman zaion garrantzia:

Arrazakeria dela ta guk, abertzale gaisuok, dauzkagun konpleso larriak eta Miranderen konplesorik batere eza, dira kausa, nire ustez, orain jende asko lehen-lehendaniak errezeloz edo gelditzen bada Mi-

---

61 *Ibidem*, 109.

62 *Ibidem*, 109.

randeri buruz eta, bestela Mirande asko gustatzen bazaio ere, distantziaturik jartzen bada haren “ideologia” delakotik, harekin identifikatzeko beldurrez edo lotsaz bezala. Orduan ez da gustora aipatzen haren pentsamendua. Inportantzia poetari eta estelistari emanez komodoago gaude, agian zerbait pentsatzen ere bide zuena alde batera utzirik.

Arrazista omen zen, esaten dizute ahape-ahapetik. Faxista omen zen... Holakorik! Isilaldi signifikatibo bat gero. Inpresionatuta gelditzen zara.

Baina, Miranderen irakurlearentzat, gero, haren arrazismoa eta faxismoa baino gauza xebleareagorik ez dago<sup>63</sup>.

Gertakari horretan ere, arrazoia du Azurmendik: ideologia jakin bat zeukan sortzaile batek eskaintzen digu atsegin estetikoa. Ez digu besterik esan Sarrionandiak. Baina, Miranderen arrazismoa eta faxismoa, berehala ikusiko dugunez, ez dira xeblekeria bat, aitzitik, ideologia gaitzesgarri eta kaltegarri bat ez ezik, bere inguruan nagusi zen engaiamendu bat baizik.

Miranderen idazlan hautatuak argitaratu zenean, GERO argitaletxeak zentsuratu zituen artikuluko politikokoak ez dituela ezagutzen aitortuta ere, ez du Azurmendik Miranderen faxismoa eta arrazakeria baieztatzeke nahiko motiborik ikusten:

---

63 Azurmendi, J.: *Mirande eta kristautasuna, op. cit.*, 47.

Lehenengo, asuntoari ematen zaion inportantzia emateko, ez dago oinarririk haren pentsabideetan. Haren obra literarioan, alegia. Haren faxismoaz eta arrazismoaz dakigun gehien-gehiena eta zehatzena, lagunen testimonioetatik eta gutun partikularren batzuetatik dakigu.

Gero, lagunen lekukotasunetan ere ez du arrazoi nahikorik ikusiko ideologia koherente bat esleitzeko Miranderi:

Gero, bai lagunen testimonioak eta bai bere aitorrak, inguru horretan, ideologia baten koherentzia izatetik oso urrun daude. Kirten ateraldi faxistoide batzuk zituela Mirandek, hori da agertzen diguten dena. Aitzitik, Mirande faxista bazen, ikaragarri orijinalen bat zela, esan beharko dugu<sup>64</sup>.

Mirandek berak darabilen pasarte ironiatsu bat jartzen du adibidetzat<sup>65</sup>:

...Eskuintiar naiz ene maneran edo hobeki erraiteko “faxista”, jende xingleek dioten bezala<sup>66</sup>.

Eta beste asko ere jar zitezkeen, esaterako, X. Kintanari, bizitzaren ia amaieran, agur moduan idatzi ziona:

Dena dela, “fascista” hunen goraintzirik hoberenak har itzazu<sup>67</sup>.

---

<sup>64</sup> *Ibidem.*, 48.

<sup>65</sup> *Ibidem.*

<sup>66</sup> Mirande, J.: in, Peillen, Tx.: *Jon Mirande-ren idazlan hautatuak*, op. cit., 58.

<sup>67</sup> Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak*, op. cit., 253.



Baina estilo ironiatsu horrek ez ditu Miranderen aitoren guztiak maila berean estaltzen, ez behintzat, Azurmendik jartzen duen bigarrena<sup>68</sup>:

...Egiteko asko izan dut azkenengo urte ontan Parisko eta Flandretako razistekin, Beltz eta Juduen gaindikako peligroa uxatu bearrez. Bainan zail da zerbait egitea, Frantzes ofizial geienak, naiz esku-bitar naiz ezkertar izan, gure kontra baitaude: eta larri ibilli izan gera dembora batean, lagunok eta ni, gobernuak jazarririk. Dena dela, Arraza Zuriaren aldeko guduari ez diogu uko egingo!<sup>69</sup>

Jakin baitakigu, Mirande benetan ibili zela lan politikoa burutzen, flandriar hauekin ez ezik, lagun zituen abertzale nazi bretoiek, Arraza Zuriaren aldeko gudan engaiatua, alegia, eta bera ez bezala, berarekin ibilitakoren bat atxilo eraman zutela. Azurmendik berak aintzat hartzen du Mirande egoera arriskutsuan egon zena<sup>70</sup>:

...Perilean nago Euskal Herrian demokratek urde faxistatzat atxikiko nautela, latin herrietako faxistek urde demokratatzat atxikiko nautelarik... eta funtsean ez naiz bata ez bertzea, europar razista baidzik<sup>71</sup>.

---

68 *Ibidem*.

69 *Ibidem*., 163.

70 Azurmendi, J.: *Mirande eta kristautasuna*, op. cit., 48.

71 Mirande, J.: in, Peillen, Tx.: *Jon Mirande-ren idazlan hautatuak*, op. cit., 64.

Ideologia faxistarekin egin duen bezala, Miranderen arrazakeria erlatibizatu egingo du Azurmendik:

Beraz, Arraza Zuriak batez ere kultura jakin bat dirudi, ez arrazarik. Eta Arraza Zuriaren gudaria, mehatxaturik uste duen europar kulturaren gudari da batez ere<sup>72</sup>.

Beltzak maite ez bazituen, frantsesak ere ez zituen maite. Baina arabiarrek bai, Peilleni jasotzen dionez, materialismorik gabeko sozialismo spenglertar bat eraiki nahi zutelako<sup>73</sup>. Peillenen lekukotasun garrantzitsuari erreparatzen dio, inguruabar horretan:

Frantses aberatsak juduzale baldin badira, pobreak, esteiariak, antisemita dira (...). Ez zion sentipen horrek judu gizon edo beltz gizon berezi baten kontra gorrotorik sortzen; asko estimatzen baitzituen benetako belztasuna eta judutasuna begiratzen zutenok. Gorroto gehiago zuen Europaren deskultuzazale diren jende horietaz (...). Gorroto zituenak, ideologia ahulgarriak dira; hain zuzen, juduek besteentzat munduan sakabanatuki eta Israelen debekatuak direnak; bakezaletasuna, hain kristau den marxismu jatorra eta hain judu den kristautasuna<sup>74</sup>.

Azurmendik argi adierazten ditu pasarte horretatik aterra dituen ondorioak:

---

72 Azurmendi, J.: *Mirande eta kristautasuna*, op. cit., 49.

73 *Ibidem*.

74 Peillen, Tx.: *Jon Mirande-ren idazlan hautatuak*, op.cit, 24.

Gauza inportante bat, behintzat, ikasi dugu: dirudienez Miranderi ederki iruditzen zitzaion beltzek beren belztasuna, judeguk beren judutasuna eta edozeinek bere tokitasuna eta berezitasuna begiratzeari. Begira beza bakoitzak berera, besterena hondatu gabe. Europar kulturarentzat arrisku iruditzen zitzaizkion neurrian gorrotatzen zituen, hortakoz, juduak, beltzak, oriak eta kolore guziak, zuri-zuriak ere.

Hori horrela, Miranderen arrazismoak eta faxismoak zentzu kulturala dute, ez politikoa. Hots, ez arrazismorik eta faxismorik daukagu egiaz. Gehienez ere “harrokeria viktorianoa” genuke, axal-axaletik arrazista eta faxista koloreztaturik. “Jestoak” ditu faxistak, Mirandek<sup>75</sup>.

Beraz, Azurmendiren ustez, ezin da esan Miranderen faxismoak garrantzi politikoa izan zuenik:

Miranderen faxismoak inportantzia politikorik ez duela batere, esango genuke, harena ez delako zentzu politikoa. Faxismo politikorik ez dela, beraz. Eta faxismorik ez dela, hobe<sup>76</sup>.

Eta argudiatzen du Azurmendik:

---

75 Azurmendi, J.: *Mirande eta kristautasuna*, op. cit., 50-51.

76 *Ibidem.*, 54.

Mirande, faxistak baino gehiago, teoria kultur-kritiko (gehienez ere prefaxista) ezagun batzu gogorazten ditu., O. Spengler bereziki<sup>77</sup>.

Spenglerren kulturen azterketa egin zuen bere, eta, ondorioz, euskal kulturaren biziraupena jarri zuen lehen mailan. Zentzu horretan:

Ez xenofobo eta ez faxista zen Mirande, abertzale (abizpirituzale, beharbada) radikala baino<sup>78</sup>.

Horretan ezin gara bat etorri Azurmendirekin. Izan ere, Mirandek maiz erakutsi baitu jarrera inperialista, Afrikako beltzekin edota Amerikako natiboekin. Demokraziak Frantziari eragin dion bigunkeriaren ondorioak kritikatzan dituenean, esaterako, Paris beltzez eta arabiarrez betetzen ari delako kexatu ez ezik, kolonien galerarekin, Frantzia bere ergelkeria ordaintzen ari dela dio, esan gabe uzten duelarik, Europako Estatu bat den heinean, koloniak izateko eskubidea duela<sup>79</sup>. Ez du ulertzen, bestalde, bere garaiko Euskal Herrian ezkerretik sortzen ari den jarrera anti-inperialista. Txillardegiren kasua da horietako bat:

Miraz nago nola hura bezalako atzerritar batek, deus segurrik jakin gabe, esaterako, Frantzia eta Argelia edo Afrika Beltzaren arteko problemetan,

---

<sup>77</sup> *Ibidem.*, 54-55.

<sup>78</sup> *Ibidem.*, 61.

<sup>79</sup> Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, op. cit., 130.

halaz ere parte hartzen duen (jende zurien kontra, jakina) auzi nahaspilatu horretan<sup>80</sup>.

Ez al da adierazgarria, Theresa haur besoetakoarentzat asmatzen duen barne-ipuina edo ameskeria?:

Theresaren apaingarriztat, urre eta harbitxixko altxorrak bilduko zizkieten mehatzetan esklabo larru beltzek; haien gainean izanen zen haur zuri eta horaila agintari, ezin lurrunduko printzesa bat bezala<sup>81</sup>.

Mirandek euskal kulturaren biziraupenaz zeukan kezka ukazina da. Baina, berriro ere, kulturgintzak ezin du lausotu bere ideologia faxista eta horrekiko konpromiso politikoa. Auzi honetan, ezin baita neutrala izan.

Oso argiak dira Miranderen testuetan ideario naziarrekin bat egiten duten gogoetak eta sinboloak. Lagunei bidalitako gutunetan, bestalde, nahikoa datu badago Miranderen faxismoa eta arrazismoa baieztatzeko. Berehala ikusiko dugu hori. Eta, Arkotxak frogatu duenez, literaturan darabiltzan irudi eta metaforetan ere itzal berbera sumatzen da<sup>82</sup>.

### **Faxismo aitortua**

Bitxia da Miranderen hasierako garapen ideologikoa. Lehendabiziko eskutizetan Sabino Aranaren teorietatik gertu agertzen den gizona<sup>83</sup>, naziek garatu zituzten ideia

---

80 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak* (1948-1972), *op. cit.*, 184.

81 Mirande, J.: *Haur besoetakoa*, Kriseilu, Donostia, 1970, 64-65.

82 Arkotxa, A.: *op. cit.*

83 Ikus, Jean Loustau jaunari bidalitako gutunak, in, Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak* (1948-1972), *op. cit.*, 21-25.

beltzak defendatzera igarotzen baita, bat-batean. Lehen aldiz, 1950. urteko eskutitz batean agertzen da nazismoaren eragina izan dezakeen *Seig Heil!* —Garaipen Osoa!— agurra<sup>84</sup>. Bertan, Jainko handiak ere aipatzen ditu eta, halaber, Satan, bere Aita maitea<sup>85</sup>. Urte berean hasiko da Nietzscheren *Zaratustra* euskaratzen<sup>86</sup>. Hurrengo urteko eskutitz batean, 1951.ean, hain zuzen, *Juduak il!* leloa darrabil, agur batean eta, halaber, *Perish Juda!* eta *Die juden zum krematorium!*<sup>87</sup>, Arkotxak ere ohartarazi digunez. Odol-garbitasunaren kontzeptua ere berehala erabiliko du<sup>88</sup>. Aranismoetik faxismora, lerrokatze argia antzematen da 1951.erako, jadanik.

Aurrerantzean, maiz aitortzen du Mirandek bere nazismoa<sup>89</sup> edo nazional-sozialismoa<sup>90</sup>:

Ni apheztiar ez ba naiz ere, eskuintiar naiz ene maineran, edo hobeki erraiteko *faxista* jende xingleak dioten bezala. Ezin dezaket beraz lanik egin euskaldunen edo euskaltzaleen artean sozialismuaren onerako<sup>91</sup>.

---

84 *Ibidem.*, 28.

85 *Ibidem.*

86 *Ibidem.*, 27.

87 *Ibidem.*, 30 eta 31.

88 *Ibidem.*, 35.

89 *Ibidem.*, 131.

90 *Ibidem.*, 145.

91 *Ibidem.*, 140.

*Sentimendu nazi beltzak* dituela aitortzen dio Ibiñaga-beitiari<sup>92</sup>. Peillenek Algeriako arabiarren berri ematen diorean, berriz, bere pentsaera arrazistan indartzeko argudioak aurkitzen ditu<sup>93</sup>. Irakurri dugun pasarte esanguratsu batean, argi eta garbi aitortzen du Mirandek bere arrazakeria:

Dakhusazun bezala, perilean nago Euskalherriko demokratek urde faxistatzat atxikiko nautela, latin herrietako faxistek urde demokratatzat atxikiko nautelarik... eta funtsean ez naiz ez bata ez bertzea, europar razista baizik. Bainan zenbaitek burhunaxala lodiegi dute hori enthelegatzekotz<sup>94</sup>...

U.F.A.T. talde naziarekin izan zuen harremanik. Talde horrek argitaratzen zuen aldizkaria jaso ez ezik<sup>95</sup>, lanak bidali zizkien argitara zitzaten, Euskadi Handiari buruzko bat, esaterako<sup>96</sup>.

Argentinako nazional-sozialista erbesteratuen aldizkaria ere jasotzen zuen eta bertan argitaratu zioten euskal mitologiari buruzko lan bat, Barandiaran eta Caro Barojaren idatzietan oinarritua: "Volküber lieferung der Basken"<sup>97</sup>.

---

92 *Ibidem.*, 143.

93 *Ibidem.*, 162.

94 *Ibidem.*, 183.

95 *Ibidem.*, 50, 51.

96 *Ibidem.*, 65.

97 *Ibidem.*, 133.

Bere lagunetako batzuk antisemita izateagatik atxilotu zituztenean, bera ere larri ibili zela aitortzen du<sup>98</sup>. Larritasunaren gainera, halere, lagun arrazistekin batera jarraituko du, lehenago ere ekarri dugun aipamenean jasotzen denez:

Egiteko asko izan dut azkeneko urte ontan Parisko eta Flandreetako razistekin, Beltz eta Juduen gandiko peligroa uxatu bearrez (...); eta larri ibili izan gera dembora batean, lagunok eta ni, gobernuak jazarrik. Dena dela, Arraza Zuriaren aldeko guduari ez diogu uko egingo!<sup>99</sup>

Aitorpena eztaba daezina da. Batetik, juduak eta beltzak arriskutsuak dira Europarentzat. Bestetik, Arraza Zuriaren aldeko borroka da berea. Elkartu ere, elkartuko da, bere hitzak erabiliz, faxistekin, haien egitasmoekin egingo du bat<sup>100</sup>.

Hil zenean, frantses eskuindarrek, *Le Devenir Européen* aldizkarian egin zioten omenaldi bat, 1972. urtean, zenbaki berezia eskaini baitzioten. Bertan itzulpenak argitaratu eta haren bizitzaren berri eman zuten<sup>101</sup>. Koloretako ikurrina bat agertu zuen lehen orrialdean eta, barruan, Mirandek

---

98 *Ibidem.*, 163.

99 *Ibidem.*

100 *Ibidem.*, 177.

101 Peillen, Tx.: *Jon Mirande-ren idazlan hautatuak, op. cit.*, 376.



egindako irudi batzuk bildu zituen, hilarriak eta lauburuak<sup>102</sup>.

Beste omenaldiren bat ere izan zuen, dena den, hileta elizkizunetan bertan, familiak berriki azaldu duenez:

Jendetza eta apeza isipua eskuan benedikatzen zuten bitartean identifikatu gabeko bi gizonen nazien gisa eskuineko besoa altxatuz ikusi zutenen harridura, haserre baita nazka eta lotsa eragin zuten; bata Georges Pinault, olerkariaren adiskidea zitekeen eta bestea eskuin muturreko bretoia, Roger Hervé edo Yves Jeanne<sup>103</sup>.

#### *Le Devenir Européenne eta Breiz Atao*

Giro horretan sozializatuko zen politikoki eta kulturalki Mirande. Batetik, aipatu berri dugunez, hileta-elizkizunetara agertu zen Yves Jeanne, Nantes hiriko aktibistak zuzendu zuen *Le Devenir Européenne* eskuin muturreko aldizkariarekin izan zuen harremana.

Bestetik, giro bertuan mugitzen zen, *Breiz Atao* lehen alderdi nazionalista bretoiarekin. Goulven Pennoad, beronen sortzailea eta Miranderen lagun handia, hain zuzen, na-

---

102 Mila, E.: "L'influence du national-socialisme sur les inspirateurs d l'ETA", [www.voxnr.com](http://www.voxnr.com). Artikulu hau espainiar militante folkista batek idatzia da, eta Espainian ohikoa den ikuspegia darabil Euskal Herriarekin, Mirande eta Krutwig Miguel Angel Blancoren heriotzarekin lotzen ditu, esaterako. Halere, datu interesgarririk badu.

103 Angelié, Ch. eta A.; J.P.Aristorena: "Jon Miranderen biografiaz", *op. cit.*, 28.

ziekin kolaboratzeagatik salatu zuten<sup>104</sup>. Urkizuk damaigu harreman horren berri, zehatz-mehatz dokumentatu duen Miranderen memoria-nobelan:

Horrela jakin nuen nola “Gwalarn” aldizkari inguruan zenbait gizon trebe, jakintsu, poeta eta literaturgile bildurik hala nola Ropar Hemon, Youveen Dreizen eta Jekez Riou breiztar kultura goi mailara jaso nahian ziren, baina nola erresistentziak kolaborazionismoaren aitzakiz errebista suntsitu, ezabatu, debekatu eta zuzendariak gartzeleratu zituen. Eta nola 1946. urteko uztailaren 17an, goiz nabarrean hil zuten Leon Jasson olerkari bikaina, zuela lau mende Bezet Perrot, apez abertzale breiztarra, Yan Vari Perrot aba izeneko gudu zalduntzaren eragile eta sortzailea bezala, orain bertako partaide omen zelako Leon. Honek bere heriotze bezperan poema bat idatzi zuen breizeraz eta horrela betikotasunaren bidea hartu, ez baitzen inolaz ere isildu zantpatzaile eta erahiltzaile zirenen aurrean<sup>105</sup>.

Parisen bertan breiztarrak zituen lagunik gehienak, haiekin ibiltzen eta elkartzen baitzen:

---

104 Frantzian bezala, Bretaina, Normandia edo Flandriako eskuin nazionalistaren artean idartu zen pentsakera faxista hau, topiko lar ezagun batzuek harago aztertze gaitasunik ez dudala aitortu behar dut, lehen-lehenik. Nire gabezia estaltze aldera, Mirandek aipatzen dituen lagun eta taldeei buruzko dokumentu bila ibili naiz sarean eta bertan aurkitu dudana informazioa ekarri besterik ezin dut egin. Lortu ditudan iturrien beraien baliozkotasuna epaitzeko ere zailtasunak ditut, noski. Aurkitu ditudan ustegabeko bitxikeria batzuekin ere azti ibili nahiko nuke. Batek ez daki, sarean, non dagoen pornografia.

105 Urkizu, P.: *Etsipenez. Jon Chaoren memorioizunak*, Elkar, Donostia, 1984, 60-61. Ikus Mirandek itzuli zuen poema hau, in, Peillen, Tx.: *Jon Mirandere-*n* idazlan hautatuak*, op. cit., 289-290.

Roger Hervé irakaslearekin, Morvan Marchal arkitektoarekin, Goulvenn Pennaodekin, Yan Poupinot gaztearekin, eta beste batzuekin ere. Ia denak breiztarrak, batzu gartzelatik iraganak, eta Breiz Atao alderdiaren eraikitzaile eta bultzatzaileak<sup>106</sup>.

Beste nazionalitate batzuetakoak ere bazebiltzan haiekin batera:

Gurekin zebiltzan ere Josep Sanas katalandarra, Henric Spieut okzitandarra, Sixma van Heemstra, Joanes Tomasse gantoistarra<sup>107</sup>.

### ***Folkismoa gerra osteko Europan***

Inguruabar horren atzetik, agian, Bigarren Europako Gerraren ostean Europako iparraldean eta Frantzia garatu zen eskuineko ideologia *folkista* eta *antisemita* bat egon liteke<sup>108</sup>.

Miranderen pentsamenduan eta obran ageri diren klabe batzuk folkismo horretan agertzen dira, behintzat: neo-paganismo etnizista eta komunitarista; azterketa historikoen bidez, oinarri etnikoa duen erlijio panteista eta politeista bat berreraikitze asmoa, horretarako, bereziki, zelden eta germaniar-eskandinaviar paganismoak hartuko dituen eta, halaber, helenismoaren eta hinduismoaren ekarpenak; kristautasunaren dogmekin hautsi beharra; partikularizazioak ezereztatzen zituen unibertsaltasunaren ukapena;

---

106 Urkizu, P.: *Etsipenez. Jon Chaoren memorioizunak*, op. cit., 85.

107 *Ibidem*.

108 François, S.: "L'extrême droite folkista eta l'antisémitisme", *Le Banquet*, 24, 2007, I, in [www.revue.lebanquet.com](http://www.revue.lebanquet.com).

arraza zuriaren, arraza indo-europarraren gorespena eta, ondorioz, arrazakeriazko jarrera; antisemitismoa eta negazionismoa; aristokrazia zaharraren eta herri gerrarien mistika; erreferentzia erromantikoak; neobitalismoa; odolaren eta indar naturalen gorespena; dinamismo indogermanikoa, estatismo kristauaren aurka; esoterismoa, okultismoa eta irrazionalismoa<sup>109</sup>. Hauek guztiak, jakina denez, nazismoak sozializatu zituen, urte batzuk lehenago.

Estrategikoki ere, Mirandek garatu zuen ideia berbera zebilen giro *folkista* hartan, Britainian, Normandian edo Flandrian, eskuineko mugimendu nazionalistak igurikimez bete zituena: nazismoak burutu ezin izan zuen balizko proiektuari jarraikiz, Europako estatu jakobinoak hautsiko zituen mugimendu nazionalisten elkertasuna.

Inspirazio iturritzat, mapa bat ere bazeukaten gogoan, antza, Estatuaren gainera, Europako herriak erakusten zituena. Peillenek aipatzen duenez, Hervé Glemarec bretoiak, 1955. urtean, *L'Europe des Ethnies* Europako gutxiengoei buruzko liburuan bat argitaratu zuen, esaterako<sup>110</sup>.

Badago argudio bortxatu samarra darabilenik ere, mapa haien oinarrian Hitlerren zerbitzu sekretuek diseinatu zuten Europa berriaren mapa jartzen duenik, alegia<sup>111</sup>. Faxismoak ez zuen deslegitimatuko, noski, mapa hori. Ipar Europan garatu zen abertzaletasun faxistak abertzaletasuna bera deslegitimatu ezin dezakeen bezala.

---

109 Françoise, S.: *op. cit.* 2-6; Sauquillo, J.: "Friedrich Nietzsche", in Vallespín, F.: *Historia de la Teoría Política*, 5, Alianza, Madrid, 1993, 93-94.

110 Peillen, Tx.: "Euskal Idazle izatea 1950-1960 urteetako hamarkadan (Hauskuraren belaunaldia)", *op. cit.*, 135.

111 Mila, E.: *op. cit.*

## **Faxismoa, nazismoa**

Ikerlarien ustez, liberalismoaren garaipenaren aurka sortu zen erreakzio kontserbakor eta kontrairaultzailea hartu behar da faxismoaren jatorritzat: gizarte ilustratuaren ideiarri egiten baitzion aurka<sup>112</sup>. Mussolinik eta Goebbelsek, bi-biek esan zuten faxismoak 1789. urtea baino lehenagorara zeramala historia<sup>113</sup>. Inguruabar horretan sortzen dira Mirandek partekatuko dituen ideia asko eta asko: karisma, gizakien arteko ezberdintasuna, aristokratismoa, autoritatea, fedea, diziplina, sakrifizioa, heroismoa, bortizkeria, antimaterialismoa, arrazoiaren eta positibismoaren aurkako jarrera, kaskarkeria, demokrazia parlamentarioaren arbuioa, nahimena, ekintza zuzena, gizarte darwinismoa, indarra eta biziraupenaren aldeko borroka, arraza, kultura ulertzeko modu mistikoa, esperientzia subjektiboa, bitalismoa, irrazionalismoa, intuizioa, erromantikotasuna<sup>114</sup>... Antzinako Erregimenera itzuli nahi da<sup>115</sup>. Antzinate zoriontsuago batean jartzen da begirada.

Antropologia politiko kontserbakor horretatik elikaturik, faxismoak ez ditu, berez, modu koherentean garatuko lerro teorikoak, aitzitik, anti-ideologia bat bilatuko da: anti-liberala, anti-sozialista, anti-marxista, anti-parlamentarioa, anti-kapitalista, anti-igualitarista, anti-demokratikoa, an-

---

112 Del Aguila, R.: "Los fascismos", in, *Historia de la Teoría Política*, 5, Alianza, Madril, 1993, 192.

113 Wilford, R.: "Fascismo", in, Eccleshall, R; V. Geoghegan; R. Jay; R. Wilford: *Ideologías políticas*, Tecnos, Madril, 1993, 236.

114 Sabine, G.H.: *Historia de la Teoría política*, FCE, Madril, 1995, 653-655; Del Aguila, R.: "Los fascismos", *op. cit.*, 193-196, 215.

115 Del Aguila, R.: "Los fascismos", *op. cit.*, 193-194

ti-materialista<sup>116</sup>... Hiper-nazionalismo estatistik, halaber, anti-internazionalismoa eta anti-unibertsalismoa ekarriko ditu<sup>117</sup>. Gizarte darwinismoaren garapenak, bestalde, arrazen teoria, anti-semitismoa, eremu bitalaren teoria, inperialismoa eta, hauekin batera, biolentziaren eta gerraren aldarrikapena, osasuntsua eta sendagarria baita berau historiari begira<sup>118</sup>. Horrezaz guztiaz gain, filosofiaren matematizazioa eta mekanizazioa arbuatuko da, eta teknikak dakarren diziplina, eta arrakastaren eta boterearen filosofia, eta eskolak inposatzen duen azalezko jakituria, eta metropoli handiaren zabarkeria, eta diruaren eta prestigioaren filosofia<sup>119</sup>.

Nazismoak eta arrazakeriak izan zituen sorburu teorikoak oso zabalak dira, adituen ustetan: F.L. Jahn, A. Gobineau, R. Wagner, H. Chamberlain, K. Pearson, P. Lagarde, J. Langbehn, O. Spann, F. Galton, J. W. Burgess, M. Grant, G. Vacher de Lapouge, Ortega y Gasset<sup>120</sup>... Autore hauen ideiek arrakasta izugarria lortu zuten Europan eta Estatu Batuetan.

Azurmendik sakonki aztertu du Espainian arrazakeriak izan zuen zabalpena. Datu batzuk ekartze aldera: XIX. mendearen amaieran garezur hispanikoaren bila hasi zen

---

116 Sabine, G.H.: *Historia de la Teoría política*, op. cit., 653; Del Aguila, R.: "Los fascismos", op. cit., 208.

117 Del Aguila, R.: "Los fascismos", op. cit., 210.

118 Sabine, G.H.: *Historia de la Teoría política*, op. cit., 653-654, 663, 666-667; Del Aguila, R.: "Los fascismos", op. cit., 225-226.

119 Bourdieu, P.: *La ontología política de Martin Heidegger*, Paidós, Bartzelona, 1991, 23.

120 *Ibidem*, 20; Wilford, R.: op. cit., 224-225; Nisbet, R.: *Historia de la idea de progreso*, Gedisa, Bartzelona, 1996, 399-410.

Antropologia Akademia: 1894. urtean, esaterako, Federico Olariz Anatomia katedradunak bi milatik gora gazezur hispaniko garbi bildu zituen; 1912.ean, *Liga Nacional Antimasonica* y *Antisemita* sortu zen; 1913-1914. urteen artean, *Fiesta de la Raza Española* ospatu zen, alegia, Espainiako jai nazionala; 1919.ean, berriz, *Raza Española* aldizkaria argitaratu zen<sup>121</sup>.

Arima eta arraza espainola definitzerakoan pentsalariek zerabilten terminologiari ere erreparatu dio Azurmendik. Menéndez Pidal: *espíritu de un pueblo, alma nacional, âme populaire, génie poétique de la race, alma ibera, misterioso vínculo de la raza, idea nacional hispánica, idea unitaria hispánica, particularismo racial*<sup>122</sup>. Unamuno: *hondón del alma, hondón de mi raza, nimbo colectivo, subconsciencia popular, alma inconsciente, sede de toda virtud, archivo de los sentimientos profundos e inexplicables, depositario de la verdadera continuidad histórica, corazón milenario, soporte de la constitución interna de un país, una unidad de destino*<sup>123</sup>. Ortega y Gasset: *arrazaren arima, arima etnikoa, karaktere etnikoa, arrazaren izpiritua, herriaren inspirazio historikoa, herriaren destinoaren erabakitzailea historian*. Ortega y Gasseten iritzi batzuk ere bildu dizkigu: “*el individuo no existe... , la única realidad es la nación, nuestra nación*”; “*sus ideas, pasiones, alegría, tristeza, son modulaciones del alma de la raza toda*”; “*el individuo no puede orientarse en el universo sino a través de su raza*”; “*estamos ligados en nuestras profundidades orgánicas a ese fon-*

---

121 Azurmendi, J.: *Espainiaren arimaz*, Elkar, Donostia, 2006, 182-183.

122 *Ibidem.*, 23-26.

123 *Ibidem.*, 83-92.

*do de tendencias étnicas, imperativo biológico que rige inexorablemente nuestro destino*"<sup>124</sup>. Antzeko kontzeptuak, antzeko inguruabar teorikoa partekatzen zuten Durán, Menéndez Pelayo edo Giménez Caballerok eta, euskal jatorrizkoen artean, Pio Barojak berak.

Baina, aipatutako autore arrazistekin batera, paradigma teoriko zabalago baten eragina aipatu behar da: filosofoak (Schopenhauer, Nietzsche, Bergson, Sorel...), soziologo, politologo eta giza psikologoak (Tönnies, Mosca, Schmitt, Pareto, Sombart, Michels, Le Bon, Spengler, Jünger...), poetak (Ezra Pound, T. S. Eliot...), eta abar<sup>125</sup>.

Hauen guztien ekarpenen gainera egin zuten lan, noski, Rosenberg, Gentile edo Rocco bezalako ideologo faxistek.

Hitz batean, kultur-giro oso bat zegoen arraza eta nazismoa babesten. Alemaniari bagagozkio, zehazki, historialariek antzinako germaniarren arraza goretsiko dute; *völkisch* nobelagileek odola eta lurra laudatuko dute; zirkulu esoterikoek esperientzia espiritualak bilatuko dituzte; egunkariek antisemitismoa bultzatuko dute; antzerki nazionalak errepresentazio heroikoak eskenaratuko ditu; zinemak irudiak jarriko dizkie, hurrenez hurren, masei eta naturara itzultzen, mendietara igotzen ziren herritar burgoiei; biologiak, filosofia arrazistak eta zuzenbideak argudioak eskainiko dituzte; irakaskuntzak ideologia zabalduko du; eta, poliki-poliki, unibertsitateak ere bere egingo du

---

124 *Ibidem.*, 157-243.

125 Mosse, G. L.: *La cultura europea del siglo XX*, op. cit., 146-153; Wilford, R.: op., cit., 224-228; Bourdieu, P.: op., cit., 26; Franzé, J.: *¿Qué es la política?. Tres respuestas: Aristóteles, Weber y Schmitt*, Catarata, Madril, 2004, 186-189.



kultura hori, ikasleek bezala irakasleek; eta artista-taldeek, halaber<sup>126</sup>.

Kracauerrek izugarri deskribatze interesgarria eskaini zion, esaterako, Alemaniako zinema espresionistari<sup>127</sup>. Kracauerren ustez, Hitler boterera iritsi izana ezin zaio egotzi soilik propagandaren eraginari; aitzitik, ia erlijio baten antza hartu zuen nazismoa, moralitatea suntsituta zeukan gizarte erretxindu eta grinatsu batetik elikatu zen<sup>128</sup>. Alemaniako zinemak erakusten du ongi, aldagai ekonomiko eta politiko ezagunekin batera, nolako barne-norabidea izan zuen herriak<sup>129</sup>. Bere baitan bildutako masak erakusten baititu, giro antsiatsu batean<sup>130</sup>: amildegi emozionalak<sup>131</sup>, horrore-asebetetzea, sadismoa, suntsiketa-irrika, suntsiketa-orgiak, tortura, umiliazioa, grina kontrolaezinak, bortizkeriaren eta miseriaren metaketa<sup>132</sup>... Planteamendu ideologikoak ere argiak dira: epika nazionala eta idealismo heroikoa —mendi-zineman edo lorpen atletikoen bidez, oso nabarmen—, autoritatearekiko menderakuntza; sistemarekiko aho bateko uztarketa; naturaren glorifikazioa; intelektualak arbuiatzea; naturaren azpitik, arrazoiaren mendekotasuna; lurraren gorazarrea —geroago

---

126 Bourdieu, P.: *op., cit.*, 20-23.

127 Kracauer, S.: *De Cagliari a Hitler. Una historia psicológica del cine alemán*, Paidós,artzelona, 1985.

128 *Ibidem*, 96, 192.

129 *Ibidem*, 9, 19.

130 *Ibidem*, 61.

131 *Ibidem*, 58.

132 *Ibidem*, 74, 75, 81, 82, 88, 92, 95, 96, 102, 204.

nazien literaturak odolarekin eta aberriarekin lotuko duena—<sup>133</sup>... Areago, Kracauerren ustez, zinemak erakusten duen Alemaniaren intra-historia honek esplikatu luke ingurugiro intelektuala bera, Spenglerren obrak izan zuen arrakasta, besteak beste<sup>134</sup>.

### **Europaren gainbeheraren ideia**

Inguruabar filosofiko eta historiko horretan garatu ziren ideia nagusien artean, Europaren gainbeheraren ideia ageri da. Inperialismo zahar eta nostalgikoaren dekadentzia topiko bilakatu zen XX. mendearen hasieratik aurrera <sup>135</sup>.

Spengler jarri ohi da Europaren eta mendebaldeko zibilizazioaren gainbeheraren hipotesiaren sortzailatzat. Egiari zor, ordea, esan beharko litzateke Spenglerren bidez lortu zuela arrakasta beste autore askok garatu zuten ideia horrek, eta arrakastarekin batera, onarpen zabala<sup>136</sup>. Aldez edo moldez, ideia horren inguruan kokatu dituzte adituek, besteak beste, Tocqueville, Burckhardt, Schopenhauer, Nietzsche, Kierkegaard, Weber, Sorel, Adams anaiak, Inge, Freeman, Teggart...; edo, literaturaren mundura etorritik, Eliot, Joyce, Pound, Yeats edo Huxley<sup>137</sup>.

Schopenhauer, Nietzsche, Spengler, Ortega y Gasset: Miranderen inspiratzaile nagusienak izan zirenak hartuko ditugu adibidetzat. Schopenhauerrek historiaren bi-

---

133 *Ibidem*, 108, 109, 115, 137, 138, 147, 234, 240, 242, 244, 251.

134 *Ibidem*, 88.

135 Touchard, J.: *Historia de las ideas políticas*, Círculo de Lectores, 1990, Madrid, 1990, II, 512.

136 Nisbet, R.: *op.*, *cit.*, 444.

137 Nisbet, R.: *op.*, *cit.*, 440-446.

lakaera baikorrari buruzko ideia maiseatuko du —eta Hegel, bidenabar, beronekin lortuko baitzuen gorentasuna ideia horrek—, aitzitik, gaizkia eta pairamena jartze-ko munduaren oinarrian<sup>138</sup>. Gizarte bizitza garaikidea ez zen salbuespena Schopenhauerren ikuspegian: basatiek elkar jaten zuten bezala, zibilizazioa biolentzia baita, gudarosteak, gerra<sup>139</sup>. Nietzscheren ustez ere, ez da lekurik baikortasunarentzat. Atzera ari gara, okerrera. Kultura judegu-kristauak, beronen moral ahulak eragin duen gainbehera salatuko du, zentzu horretan, filosofo saxoniarrak, jendetzaren kategoria lauak inposatu baititu, eta eragotzi, espiritu sortzaile aristokratikoak. Ez zuen besterik egin Sokratesek aristokrazia homerikoaren balioak eraldatu eta gainbeheratu zituenean. Spenglerrek, hain zuzen, azterketa luze eta sakona eskaini zion Mendebaldearen gainbeherari, organismo orori bezala, zahartzaroa iritsi baitzaio, espiritua agortzea, kulturaren zurruntasuna. Ortega y Gasset, azkenik, estu lotzen zaio gainbeheraren filosofiari, masa barbaroen esku jausi baita mendebaldeko gizartearen gidaritza. Berehala aztertuko dugu hau guztia sakonkiago

### ***Mein Kampf***

Testu arketipikorik bada, ordea, Adolf Hitlerrek idatzi zuen *Mein Kampf* liburua izango da, zalantzarik gabe. Merezki du bai basakeria gertuagotik ezagutzea, Mirandek bere liburutegian zeukan obra horretan barrena.

---

138 Schopenhauer, A.: *Sobre la voluntad en la naturaleza*, Alianza, Madrid, 1987, 196.

139 Schopenhauer, A.: *El arte del buen vivir*, Alianza, Madrid, 1983, 230.

Alemanien gainbehera juduei egozten die Hitlerrek. Alemania ez ezik, gizateria bera daramate juduek hondamendira<sup>140</sup>. Juduak dira mundua gobernatzen duten merkataria<sup>141</sup>. Alemaniaz ere juduak nagusitu dira, eta higuin espirituala ari dira txertatzen nazioaren bizitzan, Herio Beltza<sup>142</sup>. Juduen esku daude egunkariak, artea, literatura eta zinema eta, horien bidez, arbuiatu egiten dute kultura alemana<sup>143</sup>. Juduek sortu dute doktrinarik suntsigarriena, Sozial Demokrazia, demokrazia liberala, alegia; juduen mende daude alderdien zuzendaritzak eta propaganda tresnak<sup>144</sup>. Hitz batean, juduak Estatu bat dira Estatuaren barruan<sup>145</sup>. Ez dira erlijio bat, esan ohi denez, erlijio hori arraza juduaren iraupena bermatzen duen doktrina besterik ez baita<sup>146</sup>.

Marxismoa bera juduen asmakizuna da<sup>147</sup>. Marxen marxismo internazionalistak nazio libreak desagerrarazi nahi ditu, juduen arrazaren interesa gordetzeko, mundu mailako finantzen inperioaren alde egiteko, beti ere<sup>148</sup>. Norbakoaren garrantzia eta arrazaren oinarria ukatzearekin, suntsitu egin ditu marxismoak kultura oren oinarriak

---

140 Hitler, A.: *Mi Lucha*, Antalbe, Bartzelona, 1984, 30, 32, 40.

141 *Ibidem.*, 80.

142 *Ibidem.*, 28.

143 *Ibidem.*, 28, 29, 128.

144 *Ibidem.*, 22, 24, 29, 30, 42, 215.

145 *Ibidem.*, 75.

146 *Ibidem.*, 76.

147 *Ibidem.*, 31, 148.

148 *Ibidem.*, 174, 289-290.

eta, baita ere, nazioen burujabetasun ekonomikoa<sup>149</sup>. Marxismoaren eta judaismoaren nahasketa horrek areagotu egin du, noski, lehenagotik ere gainbehera zetorren Alemania<sup>150</sup>. Zehatzago, Alemaniaren boltxebizazioaren bidez konkista unibertsala burutu nahi du arraza juduak, juduen diktadura ezarri munduan<sup>151</sup>.

Sistema parlamentarioak erakusten du ongi perbertsio horren gauzatze historikoa. Gehiengoaren boterea onartuz, baztertu egiten dira jarduera politikotik benetako buruzagiak, apaldu egiten dira egitasmoak<sup>152</sup>. Agintaritza berriak ez dauka eskumenik, aldeztatik jaso behar baitu biltzar orokorraren onarpena<sup>153</sup>. Gehiengoaren boterean gerizatuz, inork ez du beregain hartzen erantzukizuna, inori ezin zaio konturik eskatu politikan<sup>154</sup>. Parlamentarien ginetik, erabakiak hartzen dituzten alderdi politikoek ere, ez dute erantzukizunik nahi<sup>155</sup>. Jarlekua lortzeko lehiatzen diren politikariak prest daude sineste eta abiaburuez gabetzeko, jarlekuaren lorpen hutsa baitu helburu politika parlamentarioak<sup>156</sup>. Kultura burgesaren ajea berbera da: sari materialak neurtzen du gizabanakoaren balioa, urreak,

---

149 *Ibidem.*, 149, 150.

150 *Ibidem.*, 78.

151 *Ibidem.*, 301, 305, 306, 318.

152 *Ibidem.*, 44.

153 *Ibidem.*, 47.

154 *Ibidem.*, 43, 135.

155 *Ibidem.*, 47.

156 *Ibidem.*, 172.

aberastasunak, jabetzak<sup>157</sup>. Parlamentarismoa sistema kol-  
darra da, ez du inoiz balio izan arraza baten patua buru-  
tzeko<sup>158</sup>.

Demokrazia ere dei dakioke: sufragio unibertsalare-  
kin eta eskubide berdintasunarekin hondamendira doa  
mundua<sup>159</sup>. Nortasunaren printzipio sortzailearen gai-  
netik jartzen da gehiengoaren nahia<sup>160</sup>. Zenbakia, jude-  
gu-marxismoaren propagandan<sup>161</sup>. Jaiotzak eskaintzen  
du, esaterako, hiritar izateko eskubidea, eta ez arrazak:  
Alemanian jaiotako beltz bat automatikoki bilakatzen da  
alemaniar<sup>162</sup>.

Ez dauka horrek zerikusi handirik benetako demokrazia  
germanikoarekin, noski<sup>163</sup>. Bertan, askatasun osoz hauta-  
tzen zen buruzagiak erantzukizun guztia hartzen zuen be-  
regain, egin eta agindu, bere bizitza jartzen zuen jokoan<sup>164</sup>.  
Izaera horrek galarazi egiten zuen makurren eta alprojen  
goranahia, ezgai eta koldarrek ihes egiten baitiote erantzu-  
kizunari<sup>165</sup>. Garapena, ez baita inoiz izan askoren zeregina  
eta, bai, ordea, ahalmen sortzailea izan duen gizabanako

---

157 *Ibidem*, 202-312.

158 *Ibidem.*, 48.

159 *Ibidem*, 201.

160 *Ibidem.*, 212.

161 *Ibidem*.

162 *Ibidem*, 205.

163 *Ibidem.*, 47.

164 *Ibidem.*, 48.

165 *Ibidem.*, 48-49.

batena<sup>166</sup>. Aitzitik, gehiengoa beti izan da ergela eta koldarra<sup>167</sup>. Izatez, horrelakoa da natura<sup>168</sup>.

Doktrina judu-marxistak, ordea, errefusatu egiten du naturaren izaera aristokratikoa, indarraren eta oldarraren lehentasun eternoa; banakoaren balioa ukatzen du, halaber; eta borrokatzen, nazioaren eta arrazaren garrantzia<sup>169</sup>.

Egoera kaltegarri orokor horretatik irten eta behialako bikaintasuna lortzeko, lehen-lehenik, bere nazioaren iraupena bermatuko duen borondate nazionala, herri-espirtua berreskuratu beharko du Alemaniak<sup>170</sup>. Sineste berri bat, fede berri bat, borondate berri bat, Sigfrido germaniarraren ezpata, askatasuna berrezarriko duena<sup>171</sup>. Garaipena ez baitute armek bermatzen, herritarrek baizik: gizon-ema-kumeek osatzen dituzte nazioa defendituko duten harresi sendoenak<sup>172</sup>.

Beharrezkoa da, beraz, helburu salbatzaile eta askatzaille hori beregain hartuko duen herri-mugimendu bat antolatzea, mugimendu borrokalari indartsu bat<sup>173</sup>, buruzagi

---

166 *Ibidem.*, 44, 210.

167 *Ibidem.*, 44.

168 *Ibidem.*, 211.

169 *Ibidem.*, 32, 44.

170 *Ibidem.*, 154, 155, 156.

171 *Ibidem.*, 166.

172 *Ibidem.*, 154, 193, 197. Heraklitoren gogoeta bat bide dago metafora honen atzean, polisaren harresia herritarren indarrarekin parekatu baitzuen (Fr. 44, Diógenes Laercio, in Kirk, G.S.; J.E. Raven; M. Schofield: *Los filósofos presocráticos*, Gredos, Madril, 1987, 307). Ilkus antzeko gogoeta bat, in Machiavelli, N.: *Printzea*, XX. atala, Elkar, Donostia, 1986.

173 *Ibidem.*, 159, 173.

baten gidaritzapean, buruzagi bakarraren autoritate eta erantzukizun absolutuan oinarritua. Nortasun indibidualarentzat, gizon bakar baten lan sortzailearentzat ordezkorik ez dagoenez<sup>174</sup>, ezingo da ibili, noski, parlamentarismoari begira edo gehiengoaren sufragioaren bila, ez sistemaz, ez eta formaz ere<sup>175</sup>. Irabazi politikoen atzetik dabilzan gezurti, odolgabe eta koldarren ereduak ez du balio horretan<sup>176</sup>. Diruaren oso gaintik egon behar du beti idealak; idealismoa nagusitu behar zaio berekoikeriari, alegia, ezpataren noblezia<sup>177</sup>. Ulertzen baita, mugimendu pangermanista horrek ezin duela alderdi politiko berri bat sortu: aitzitik, bizitzari buruzko ikuspegi berri bat sortu behar du, nazionalitatean eta arraza garbitasunean oinarritua<sup>178</sup>. Mugimendu horren indarra kideen fanatismoan eta intolerantzia datza<sup>179</sup>.

Izan ere, ohiko alderdi politikoen ustearen aurka, Alemaniaren gainbehera ez baita ekidingo ekonomiaren hobekuntzaren bidez, ezaugarri etiko eta arrazazkoak konponduz baizik<sup>180</sup>. Pozointze morala, nahimenaren eta biziraupen senaren ahultasuna ekarri duen judu-marxismoa borrokatuz, bereziki<sup>181</sup>.

---

174 *Ibidem.*, 162.

175 *Ibidem.*, 159.

176 *Ibidem.*, 165.

177 *Ibidem.*, 123-124, 143.

178 *Ibidem.*, 56, 109, 114.

179 *Ibidem.*, 161, 216-217.

180 *Ibidem.*, 118, 123.

181 *Ibidem.*, 121.



Mugimendu nazional horrek ahalegin guztiak egin behar ditu herritarren aldekotasuna lortze aldera<sup>182</sup>. Bere zerbitzura jarriko ditu propaganda<sup>183</sup>, hezkuntza<sup>184</sup>, hedabideak<sup>185</sup>, zerbitzu militarra<sup>186</sup> eta sindikalgintza<sup>187</sup>. Azken

---

182 *Ibidem.*, 154, 156.

183 Propagandan trebatu beharko du herri-higikunde horrek, propagandak garrantzi handia baitu psikologikoki eragiteko masaren grinetan (*Ibidem.*, 60); goi-mailako erretorika eta azalpenak alde batera utziz, herri xehearen bihotza irabazi beharko du (*Ibidem.*, 156, 158, 171); asmatu beharko du bere diskurtsoa herritarren maila intelektual apalarekin egokitzen, oso gai gutxiri buruz hitz eginez, besteak beste (*Ibidem.*, 91). Kontuan hartu beharko du herriak iazera femeninoa duela, ez diola arrazoipide abstraktuari erreparatzen; aitzitik, sentipenez eta sentsazioez gidatzen da herria eta, beraz, gizon sendo eta buruzagi oldartsuak estimatzen ditu (*Ibidem.*, 17, 93, 156). Jendetzak ez dauka adimen handirik. Gauzak ezberdintzen ez dituenek, oinarritzko bulkada singleen bidez erantzuten du, positibo ala negatibo; maitasun ala gorroto, eta abar (*Ibidem.*, 93). Zentzu horretan, hitzeko bortizkeria darabilen buruzagia masen psikologoa da, masak hunkiarazi behar ditu (*Ibidem.*, 221, 280).

184 Heziketak aberriaren handitasuna eta harrotasuna irakatsi behar du, kontzientzia nazionala elikatu (*Ibidem.*, 16, 38). Historiaren irakaskuntzak garrantzi handia dauka: arrazen auzia lehenetsi beharko du eta, nazioaren etorkizunari begira, metodikoki, ondorioak eta irakaspenak atera beharko ditu (*Ibidem.*, 194-195). Jakingai zehatz batzuk irakatsi beharrean, iazera edo aiurria hezi behar da eskolan, erantzukizuna izaten, borondatea sendotzen eta abertzaletasunaren hazia erein (*Ibidem.*, 125, 188, 192, 193). Estatuak erabaki handiz hartu behar ditu tresna honen uhalak (*Ibidem.*, 127). Programa oso bat izango du oinarrian: gorputz-ariketa, moralitate nazionala, arrazaren defentsa, iragan loriatsuaren historia (*Ibidem.*, 129-132). Gorputzaren heziketa ezinbestekoa da arrazari eusteko ezezik, belaualdi berriengan ausardia txertatzeko, beste arrazen gainetik daudela ikustarazteko (*Ibidem.*, 188-190). Gehienetan beharrezkoak ez diren jakintza zientifikoekin, ordea, ez dira nekatu behar ikasleak (*Ibidem.*, 194). Klase intelektualari buruz ere mesfidati agertzen da Hitler: ez daukate borondaterik eta ausardiarik, ezer gutxi partekatzen dute herritarrekin (*Ibidem.*, 200-201).

185 Kazetaritzak berak, eskolaren lana osatu beharko luke, herritarren egunerokotasunean eragiten baitu sakonki (*Ibidem.*, 127).

186 Soldaduska litzateke eskolaren jarraipen naturala eta haurra herritar bilakatu delako frogantza, bertan irabaziko baita auzi publikoetan eskuhartzeko eskubidea eta, halaber, ezkontzeko eta haurrak izateko eskubidea (*Ibidem.*, 191). Gudalostea zerbitzatuz egiten da onenen arteko bereizketa (*Ibidem.*, 199).

187 Sindikatu nazionalak ere sortu beharko dira, —miseria gorritik ezezik— internazionalismoaren erokeriatik erazurik, milioika langile bihur daitezen kide baliagarri nazioarentzat (*Ibidem.*, 157, 158). Klase-borroka eragin beharrean, noski, langileen benetako prosperitateaz kezkatu behar du sindikatuak, nazioaren prosperitatea baita langileena beraiena (*Ibidem.*, 289-290).

helburutzat, Estatu germaniarra osatzea du mugimendu horrek, jatorriz homogenea den komunitateak, patuak esleitu dion eginbeharra bete dezan<sup>188</sup>.

Arrazari dagozkion auziei erantzun behar die Estatuak, oroz gain<sup>189</sup>. Hastapeneko arraza-osagaiei eustea da Estatuaren lehen zeregina; erregenerazioa bultzatzea; ezkontza arauturik, odol nahasia baztertzea; arraza Jainkoren irudira antzaldatzea; munstroak galaraztea, tximu-gizakiak ekiditea<sup>190</sup>. Ezagutza mediku modernoak aplikatuz, osasuntsuak direnei soilik onartuko zaie haurrak izatea, garaia baita, zaldiak, zakurrak edo katuak hobetzen diren bezala, giza arraza gorentzeko<sup>191</sup>. Politikoki ere, herritarrak, mendekoak eta atzerritarrak bereiziko dira: arraza garbikoak baino ezingo dira izan herritarrak<sup>192</sup>. Estatu ez da helburua, beraz, arraza eta zibilizazio gorenari eusteko tresna baizik; Estatuak ezin du gizateria jaso sortu, Estatu eraiki duen arrazak ezaugarri sortzailerik ez badu bere baitan<sup>193</sup>.

Historiaren irakaspena argia da: odol-nahasketa eta arraza-mailaren ahuldurak ekarri du, oro har, zibilizazioen gainbehera<sup>194</sup>. Arioak beste herri makurrageokin nahasi diren bakoitzean, hain zuzen, endekapena gertatu da kultu-

---

188 *Ibidem.*, 75, 86, 254.

189 *Ibidem.*, 173, 185.

190 *Ibidem.*, 181, 184.

191 *Ibidem.*, 185-188.

192 *Ibidem.*, 206.

193 *Ibidem.*, 180.

194 *Ibidem.*, 143, 179.

raren eramaile izan den arraza horretan<sup>195</sup>. Odol-nahaske-  
tak pozoia txertatu du arraza alemanean<sup>196</sup>.

Hiru arraza-kategoria daude, egon: gorena, jatorri arioa,  
alegia, arraza sortzailea dena; bigarrena, kulturari eusten  
diotenen arraza; eta, azkenik, kultura suntsitzen duena<sup>197</sup>.  
Batetik bestera urra-ezinak dira mugak: beltz bat edo txi-  
natar bat, alemanen mintzoa ikasita ere, ezin da bihurtu  
aleman<sup>198</sup>. Hizkuntzak ez du arraza egiten, odolak baizik<sup>199</sup>.

Mundu honetan miresten dugun oro —zientzia, artea,  
trebetasun teknikoa eta asmamena— nazio gutxi batzuen  
emaria da, arraza bakar batena, agian<sup>200</sup>. Arraza arioa de-  
sagertuko balitz lurlean ezagun den edertasun guztiaren,  
kultura gorenaren eta giza arrazaren amaiera izango litza-  
teke<sup>201</sup>.

Arraza arioaren beste muturrean, arraza judua, kultura-  
ren suntsitzailea, arraza parasittoa gainerako nazioen gor-  
putzaren barruan<sup>202</sup>. Juduen arraza mehatxua da<sup>203</sup>. Mun-  
duko nazioez jabetzen badira giza arrazaren amaia izango  
da<sup>204</sup>. Derrigorrez behar du alemanak izan antisemita, go-

---

195 *Ibidem.*, 139, 180.

196 *Ibidem.*, 182, 184.

197 *Ibidem.*, 140.

198 *Ibidem.*, 179.

199 *Ibidem.*, 179.

200 *Ibidem.*, 140, 141, 174.

201 *Ibidem.*, 140, 180.

202 *Ibidem.*, 144, 145.

203 *Ibidem.*, 151.

204 *Ibidem.*, 33.

rrotagarria baita arraza judua: Jainko Guztiahaldunaren izenean juduak borrokatu behar ditu Alemaniak<sup>205</sup>.

Juduak ez ezik, txekiarrek, poloniarrek, hungariarrek, ruteniarrek, serbiarrek, kroaziarrak..., Hitlerrek arbuia egiten ditu Alemanian dauden beste arraza guztiak, alemanak ez diren gainerako arraza guztiak<sup>206</sup>.

Baina etorkizun batean arraza gorenak hartuko du berriro munduaren zuzendaritza<sup>207</sup>. Arraza gorena den heinean, Alemaniak atzerriko lurraldeak hartzeko eskubide moralak dauzkala argudiatzen du Hitlerrek liburuaren lehen orrialdean bertan: politika koloniala legitimatuta dago Europaren barruan<sup>208</sup>. Izan ere, behiala lehenetsi den ohiko politika komertziala gaitzetsiz, konkista da, Inperioa, Alemaniak bizirauteko daukan bide bakarra<sup>209</sup>. Estatuak bermatu beharko du, zentzu horretan, populazioaren berrezko hazkuntzaren eta beharrezko lur-azaleraren arteko oreka naturala<sup>210</sup>. Mundua ez da sortu arraza koldarrentzat<sup>211</sup>.

## **Mirande eta filosofoak**

Miranderen ideologia politikoa balizko lerraduran kokatzeko, inguruabar teoriko zabala egin dugu, orain arte. Ale-

---

|     |                                 |
|-----|---------------------------------|
| 205 | <i>Ibidem.</i> , 31, 32, 33.    |
| 206 | <i>Ibidem.</i> , 62             |
| 207 | <i>Ibidem.</i> , 175.           |
| 208 | <i>Ibidem.</i> , 9-10, 43, 295. |
| 209 | <i>Ibidem.</i> , 67, 68, 295.   |
| 210 | <i>Ibidem.</i> , 309-314.       |
| 211 | <i>Ibidem.</i> , 51.            |

gia, harremanean jarri dugu folkismoarekin, faxismoarekin eta nazismoarekin.

Zertxobait harago joan beharra dugu, halere, hain zuzen, mugimendu politiko horiek elikatu zituen giro filosofikoan barneratuz, Miranderi berari jarraiki. Euskal idazlearen pentsamendua Schopenhauer, Nietzsche, Spengler eta Ortega y Gasset-ekin jarriko dugu harremanean, bigarren bidaia batean.

Joxe Azurmendik egin duen ahalegin berbera errepikatuko dugu, beraz, neurri batean, lehen hiru pentsalariei Ortega y Gasset erantsita —Mirandek berak garrantzia aitortzen dionez—. Baina, filosofiaren eztabaida partzialki baino ez dugu ukituko. Aitzitik, lehenetsi egingo ditugu, arriskuak arrisku, pentsalari horiek gizartearen izaeraz eta antolaketaz egin zituzten gogoetak. Filosofoen ideia politikoak ekarriko ditugu, bereziki. Esan dugunez, filosofo horien eta beste batzuen gogoetekin osatu baitzuen faxismoak bere programa ideologikoa eta, agian, Mirandek berak ere.

Zentzu horretan, erabat zuzena da —ia tautologikoa— lau filosofo horien —eta, batez ere Nietzscheren— ideia politikoak Miranderengana nazismoaren bidez iritsi zirela esatea. Nabarmenkeria bat da. Baina esan egin behar da, bidaia teorikoa, periplo ideologikoa, nahastura horretan burutzen baita.

Gaian sartu aurretik, ordea, baimena hartuko dugu, Mirandek lau pentsalari horiei egin zizkien aitortzak, hurrengo atalean biltzeko.

## Nietzsche eta Mirande

Batere zalantzarik ez da: Miranderengan eragina izan zuten lau filosofo horien artean, Nietzsche agertzen zaigu, lehen-lehenik, leku goren batean. Autoreak berak erakusten du filosofo saxoiari eskaini zion garrantzia, hartaz egiten dituen gogoeta ugarietan. Aitortu ere, behin eta berriro aitortuko du zuberotarrak Nietzschek sorrarazi zion zale-tasuna eta eragin zion itzala.

Hasiera-hasieratik, euskaraz trebatzeari ekin zionetik bertatik, Nietzsche-ren itzulpenak hartu zituen laborategi-tzat. Nietzsche-ren obra itzuliz, euskal irakurleari nahi zion eskuragarri jarri berari hainbeste erakutsi zion maisuaren esana. Itzulpen horien artean dago “Haus Hohen Bergen”<sup>212</sup>. Liburu entzutetsurik bada, *Also Sprach Zarathustra* ezaguna euskaraz ematen ere hasi zen<sup>213</sup>. Gerora, obra horren lehen atala besterik paratu ez bazuen ere, asmoa erakutsi zuen obra osoa itzultzeko<sup>214</sup>.

Sortu zion lilurak bultzaturik, Nietzsche-ri buruzko saiakera-lanak egin nahi ditu: “Nietzsche eta izan-aren filosofia” izeneko bat, eta “Gizagoia Nietzsche-ren irakaskizunean” hurrena<sup>215</sup>. Saio bat ere idatzi zuen —120 bat orrialdekoa— *Gizagaindia Nietzsche-ren araura*, edo, *Gizagaindikoa Nietzsche-ren gogamenean* izenburua jarriko zio-

---

212 Peillen, Tx. *Jon Mirande-ren idazlan hautatuak*, op. cit., 26.

213 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, op. cit., 38; Peillen, Tx.: *Jon Mirande, olerkari*, op. cit., XXV.

214 *Ibidem.*, 157.

215 *Ibidem.*, 38.

na<sup>216</sup>. Galdu egin da, tamalez. Peillenek eskuetan izan zuen, irakurri egin zuen, kopiarik gorde gabe, halere, oharririk ere jaso gabe:

Zoritxarrez, baliman galdu egin da Jonek Nietzsche-z idatzi zuen berrogeita hamar orrialdeko saioa: “Giza gaindikoa Nietzsche-ren arauera”. Eskuetan izan dut eta irakurri, duela hogeitau urte, baina kopiarik, ez oharrikerik hartu; idazlea ez zen ausartu inori aurkeztera argitara zezan. Behin Jonek erre egin zuela esan zidan<sup>217</sup>.

Patri Urkizuk aurkitu du Estibalizko artxibategian Andimari bidali zion saiakeraren laburpena<sup>218</sup>. Gutxi da, ordea.

Nietzscheren eragin teorikoak, bestalde, konstanteak dira Miranderen pentsamoldean. Azurmendik argitu digu auzi hori ongi. Miranderen beraren aitopenak ez dira gutxi. Giza arimari buruz ari denean, adibidez, Nietzscheren Betiereko Itzuliaren teoria aplikatzen du ustezko gertakari parapsikologikoen frogatzat<sup>219</sup>.

Nietzsche hartu zuen eredutzat, nonbait, bizitzan ere. Peillenen lekukotasuna argia da:

---

216 *Ibidem.*, 119, 120, 157.

217 Peillen, Tx.: *Jon Mirande-ren idazlan hautatuak*, *op. cit.*, 301; “Euskal Idazle izatea 1950-1960 urteetako hamarkadan (Hausturaren belaunaldia)”, *in, op. cit.*, 134.

218 Peillen, Tx.: “Euskal Idazle izatea 1950-1960 urteetako hamarkadan (Hausturaren belaunaldia)”, *op. cit.*, 134.

219 Mirande, J. “Jakintza berri bat: psikologi gaindikoa”, *in* Peillen, *Jon Mirande-ren idazlan hautatuak*, *op. cit.*, 328. Testuinguru berean aipatzen du Mirandek Bergson filosofo intuitibista (ikus, 317 eta 328).

Nietzscheren ideiek kutsaturik unibertitate ikasketen aurka izan zen, meritokraziak behar duelako norbaiten balioa egin, ez ikasketen asto larru delakoak: horregatik eta bere erruz gure poetak lanbide hits batean, bulego batean, bizitza irabazi behar izan zuen; bestalde bi aukera izanik ezkontzeko, hautuak saihestea erabaki zuen ezkontzak idazle bati, intelektual bati, kalte egin diezaiokeelako.

Jon Miranderi, aberatsen kapitalismoa, sos gosea, eta aurrezki egitea nazkagarri zitzaizkion. Halaber, garai-ko gadget eroste eta kontsumismoa, telebista, garbigailu, eta automobil izateak barregarri zitzaizkion<sup>220</sup>.

Bizitzaren nekeak akituta dagoen batean, Nietzscheren aholkuari lotzen zaio:

Nietzschetartu behar dut osoro, gogor izan nadin Bizitzaren khakegingarrien aurrean<sup>221</sup>.

Nietzscherekin partekatzen du munduaren ikuspegi pessimista bera, eta gauzak diren horretan maitatzeko joera (*amor fati*)<sup>222</sup>.

Abertzaleengandik baztertuta dagoelako, poliki-poliki arima aldatu zaiola aitortzen duenean, Zaratustraren garapenaz gogoratzen da<sup>223</sup>.

---

220 Peillen, Tx.: *Jon Mirande, olerkari, op. cit.*, XXIV.

221 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972), op. cit.*, 90.

222 *Ibidem.*, 120.

223 *Ibidem.*, 127.



Nietzscheren estiloa maite du literaturan. Aitortu digu, esaterako, *Haur besoetako*a nobela, Nietzscheren espiritarekin garatu duela:

Nietzsche'k dio nonbait, idazki guztietatik norberak bere odolaz idatzi behar duena baizik ez duela maite. Nik ez ba dut ene ipuintxoia ene odolaz idatzi, ene nigarrez egin dut behintzat<sup>224</sup>.

Ez da batere harrigarria, hortaz, Goncourt Sariatz idatzi zuen artikulu bat zela-eta, —antisemitismo ez ezik— nietzschekeriaz salatuz, EGAN aldizkarian egin zitzaion kritika gogorrari erantzuten dionean, Mirandek patxada eta egonarria erakustea<sup>225</sup>.

Baina, esan bezala, guri eragin politikoak interesatzen zaizkigu, bereziki. Eta, horretan, Miranderen lekukotasuna argia da, berriro ere. Europaren eraikuntzaz ari denean, Nietzscheren proiektua aipatzen du<sup>226</sup>. Beltzen eta horien erasoari aurka, Europa babestu beharra aldarrikatzen duenean, halaber<sup>227</sup>. Nietzscherengan ere aurkituko du, bestalde, *indarkeria maite ukaitera lagunduko gaituzkeen* “*gudu-zalduntza*” delakoaren ideia<sup>228</sup>.

---

224 *Ibidem.*, 154. Ikus, halaber, 158.

225 Mirande, J.: “Ene artikulu baten “kritika”ren ondotik”, in *Miranderen lan kritikoak*, op. cit., 108.

226 Mirande, J.: “Euzkadi eta Europa”, in *Miranderen lan kritikoak*, op. cit., 58.

227 Mirande, J.: “Kultura eta folklorea”, in *Miranderen lan kritikoak*, op. cit., 82.

228 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, op. cit., 114.

## **Spengler, Schopenhauer, Ortega y Gasset**

Nietzscherekin batera, Spengler izan zen Miranderen inspiratzaile nagusia. Roger Hervé irakasle bretoiaren bidez ezagutu zuen filosofoa<sup>229</sup>. Peillenen lekukotasunaren arabera, Europaren gainbehera esplikatu nahi zuen filosofo germaniarraren obra erraldoiak eragin izugarria izan zuen Miranderengan:

Filosofia aldetik, Spengler-en Sartaldearen erortzea liburuak asko hunkitu zuen<sup>230</sup>.

Berak ere aitortzen du, autore hau daukala Europaren gainbeheraren aztertzaile gorentzat<sup>231</sup>.

Spenglerren soziologia politikoa oso gertutik jarraitu zuen Ortega y Gasset pentsalaria ere estimatzen zuen Mirandek:

Ene ustea baita espainitar oldozle hau izan dela, O. Spengler-en ondotik, XX-garren mendeko Europaren ongi-ezaren kausak hobekien ikhertu eta ikhusi dituen<sup>232</sup>.

Beste behin ere aipatzen du pentsalari espainola, hain zuzen, metodologikoki, errealismoaren aldarrikapena egiten duen batean:

---

229 Pennaod, G.: "De viris illustribus: Mirande-tar Jon", in Peillen, Tx.: *Jon Mirande-ren idazlan hautatuak*, op. cit., 272.

230 Peillen, Tx.: *Jon Mirande-ren idazlan hautatuak*, op. cit., 19.

231 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, op. cit., 121.

232 *Ibidem*.

Niketetz, Ortega y Gasset-ek idatzi duen bezala oso-  
ro sinesten dut: “salba biderik hoberena dela begien  
ongi irikitzea, gauzen argi ikustekotz”<sup>233</sup>.

Ezin dugu aipatu gabe utzi, azkenik, Schopenhauer. Be-  
roni zor zaio nahimenaren kontzeptua, bestea beste,  
Nietzsche bere egin eta garatu bazuen ere. Joxe Azur-  
mendik iradoki zigun, aspaldi<sup>234</sup>.

Aipamen bakar batzuk baino ez ditugu aurkitu Mirand-  
eren testuetan, gutxi eta esoteriko samarrak. Aita hil ostean,  
esaterako, pesimismoak goia jotzen du Miranderengan, eta  
orduantxe agertzen da Schopenhauer:

Lanolako eguratsa geroago eta jasangaitzago da.  
Gertu nengoke jende ta gauza denak antzara pe-  
rratzera bidaltzeko. Baina segur naiz ez dudala ezer  
besterik lortuko, eta orrengatik amor eman diot  
zoriari. Bakarrik, zai nago ameskaitz au amai dadin.  
Dakutsun bezela, Schopenhauereren filosofiara eman  
naiz azkenekotz<sup>235</sup>.

Parapsikologiaren alorra aztertzen aritu zenean, bestal-  
de, Schopenhauer jarri zuen Mirandek giza gorputzaz ha-  
rago bide dagoen mundu espiritualaren ikerketa bultzatu  
eta azkartu zuten pentsalari handien artean<sup>236</sup>.

---

233 Mirande, J.: “Irlandara, haren egoera eta egungo estatua”, in Peillen, Tx.: *Jon Mirande-ren idazlan hautatuak*, op. cit., 207.

234 Azurmendi, J.: *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler, Miranderen pentsamenduan*, op. cit.

235 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, op. cit., 141.

236 Mirande, J. “Jakintza berri bat: psikologi gaidikoa”, in Peillen, *Jon Mirande-ren idazlan hautatuak*, op. cit., 317.

## Nietzscheren filosofia politikoa

Nietzscheren mundu-ikuspegi politikoarena topiko bilakatu da, ia-ia. Topikokeria horretan jausteko arriskuan sartzen da bat, hain zuzen, laburdurak erabili behar dituenen. Lantxo apal honek, ordea, askoz gehiagorik ezin du eman.

Giza gorputza, giza gorputzaren berezko izaera bitalista suntsitu eta debekatu duen mendebaldeko kultura, ustez, garatua, endekapena antzeman zuen Nietzschek. Europa osoa etorri da gainbehera: leundu egin ditugu ohiturak; moral kristaua gailendu da, errukia, hurkoarekiko maitasuna; berdintasuna da lege, berdintasuna da eskubide bakar<sup>237</sup>. Sena zapuztu dugu, gorputzaren indarrak lotu, bizitzaren autoiraupenerako ahalmena indargabetu..., anemia bilakatu dugu ideal<sup>238</sup>. Artaldearen sena da gurea<sup>239</sup>.

Historia zaharra da, historia luzea da. Sokratesekin hasi zen, lehen-lehenik, balioen eraldaketa hori: Homeroren moral aristokratikoaren aurka, arrazoiarekin eta bertutearekin lotu baitzen zoriona<sup>240</sup>. Sokratesen aurka, Heraklito aldarrikatzen du Nietzschek, gerra<sup>241</sup>.

Gero etorriko da moral judu-kristaua: makurrak bihurtuko ditu on; txiroak, ahulak, apalak..., Jainkoaren bedein-kapena jasotzen dutenak; aitzitik, gorenak, indartsuak izan-

---

237 Nietzsche, F.: *La genealogía de la moral*, Alianza, Madril, 1991, 22; *Crepúsculo de los ídolos*, Alianza, Madril, 1991, 112-113; *Ecce homo*, Alianza, Madril, 1989, 27.

238 Nietzsche, F.: *Ecce homo*, Alianza, Madril, 1989, 90.

239 Nietzsche, F.: *La genealogía de la moral*, *op. cit.*, 32.

240 Nietzsche, F.: *Crepúsculo de los ídolos*, *op. cit.*, 39; *Ecce homo*, *op. cit.*, 68.

241 Nietzsche, F.: *Ecce homo*, *op. cit.*, 70.

go dira gaiztoak, ankerrak, lizunak, ase-ezinak...<sup>242</sup>. Jopuen iraultza gertatu da<sup>243</sup>. Politika faltsutu da, giza ordenua faltsutu da, heziketa faltsutu da<sup>244</sup>.

Modernitatearekin batera, berriz, Frantziako Iraultzak areagotu egingo du fartsa<sup>245</sup>. Europan nagusitu diren ordezkari-tza-sistema konstituzionalak herriaren eta ongi komunaren zerbitzari bilakatu gaitu, alegia, artaldeko animalia<sup>246</sup>. Gurpil zoroak ez du gelditzerik izan: komunismoarekin, sozialismoarekin..., bizitzari egiten zaio eraso, bizitzaren suntsitu nahi da<sup>247</sup>.

Naturaren aurkako moralak da hori, moral osasuntsuak ezinbestean erantzun behar baitio bizitzaren senari<sup>248</sup>. Hortik eratorriko da, hain zuzen, Nietzscheren filosofia-aren oinarrietako nagusia: bizitza aldarrikatuz, moral dekadenteei ozartzea<sup>249</sup>.

Gainbehera dator Europa, hain zuzen, soziologian, indar-antolatzaile oro apartatzailea delako, amildegien sortzailea, menderatzailea<sup>250</sup>. Eta, berdintasunak —Sokrate-sekin, kristautasunarekin, sozialismoarekin...— distantzia

---

242 Nietzsche, F.: *La genealogía de la moral, op. cit.*, 39-40; *Ecce homo, op. cit.*, 69.

243 Nietzsche, F.: *La genealogía de la moral, op. cit.*, 42.

244 Nietzsche, F.: *Ecce homo, op. cit.*, 53.

245 Nietzsche, F.: *Más allá del bien y del mal, op. cit.*, 63.

246 *Ibidem.*, 129.

247 Nietzsche, F.: *La genealogía de la moral, op. cit.*, 87.

248 Nietzsche, F.: *Crepúsculo de los ídolos, op. cit.*, 56-57.

249 Nietzsche, F.: *Así hablaba Zaratustra*, Edaf, Madrid, 1976, 37-38, 47-48, 75, 100, 299; *Crepúsculo de los ídolos, op. cit.*, 35, 36.

250 Nietzsche, F.: *Crepúsculo de los ídolos, op. cit.*, 113-114.

hausten du, suntsitu egiten du norberak izateko duen borondatea, besteen gaintetik gailentzeko duen beharra; ez baitu onartzen aberastasuna, alegia, giza eredu ezberdinak egon ahal izatea<sup>251</sup>.

Beste garai batean, ordea, doiagoa izan zen giza mundua: naturari, bizitzari egokitzen zitzaion moralak nagusitu zen orduan. Jende aristokratikoak sortu zituen baloreak; bote-retsuek, gorenek, sentipen jasoa zutenek, beren portaera definitu zuten ontzat, ukatzen baitzuten makurra, arrunta eta apala zenaren portaera<sup>252</sup>. Izan ere, bizirik dagoen heie-  
nean, gizabanakoak nagusitzeko beharra du, botere-nahimena du, goratu nahi du, aurrez aurre jartzen zaizkion eragozpenak gainditu<sup>253</sup>. Lehia horretan ageri da giza aberearen berezko ankerkeria, selekzioaren benetakoa legea<sup>254</sup>.

Bizitzari eustea, espeziari eustea baita eskakizun filosofiko behinena bizirik dagoen, bizirik egon nahi duen giza aberearentzat<sup>255</sup>. Eta senak nagusitasuna eskatzen du: botere-nahimena da bizitza, gailentasun-irrika, giza biologia<sup>256</sup>. Bizitzaren gertakarian nahimena da kausalitate bakarra<sup>257</sup>. Arrazoiak baino aginpide handiagoa dauka senak<sup>258</sup>.

---

251 *Ibidem.*, 113.

252 Nietzsche, F.: *La genealogía de la moral*, op. cit., 31.

253 Nietzsche, F.: *Así hablaba Zaratustra*, op. cit., 94, 104, 106; *Ecce homo*, op. cit., 72.

254 Nietzsche, F.: *Así hablaba Zaratustra*, op. cit., 203; *Ecce homo*, op. cit., 1989, 132. *Más allá del bien y del mal*, op. cit., 176-177.

255 Nietzsche, F.: *Más allá del bien y del mal*, op. cit., 24.

256 *Ibidem.*, 26, 34. *La genealogía de la moral*, op. cit., 87.

257 Nietzsche, F.: *Más allá del bien y del mal*, op. cit., 62.

258 *Ibidem.*, 120. Freudek garatuko zuen, geroago, hipótesis hori.

Zentzu horretan, legeari begira, berdintasunik ezin da egon gizabanako baten eta bestearen artean, eztabidaezina baita gizabanakoak ezberdinak direla<sup>259</sup>. Aitzitik, berdinak direnen artean aplika daiteke bakarrik zuzenbidea, hau da, boteretsu direnen artean; baina, inola ere ez, ezberdinak direnen artean<sup>260</sup>. Hori bada araua, ezin du besterik jaso giza legeak: perbertsioa litzateke demokrazia berdintzailea.

Oinarrizko ezberdintasun hori guztia antzematen eta onartzen ez duen sozialismoa, esaterako, filosofia dekadentea besterik ez da<sup>261</sup>.

Distantziaren ukapenak ekarri duen gainbeheraren aurka, balioen eraldaketa berri bat proposatzen du Nietzschek, behin eta hurrena, distantzia, gorenaren eta makurren arteko bereizketa<sup>262</sup>. Nahimena, diziplina, selekzioa<sup>263</sup>. Mirandek itzuli zuenez, *burgoi* baten agerpena, alegia, giza agintarien agerpena<sup>264</sup>. Napoleon berri bat, agian<sup>265</sup>. Edo, Zesar. Zarathustrak iragarri zuen betiereko itzulera, ekidin-ezina den benetako bizitzaren nagusitasuna<sup>266</sup>.

Etorkizunari buruzko inguruabar horretan sortuko dira, hain zuzen, Nietzscheren ideiarik polemiko eta arrisku-

---

259 Nietzsche, F.: *Así hablaba Zaratustra*, op. cit., 93-94, 117.

260 Nietzsche, F.: *Crepúsculo de los ídolos*, op. cit., 126. *La genealogía de la moral*, op. cit., 81.

261 Nietzsche, F.: *Crepúsculo de los ídolos*, op. cit., 114. *Más allá del bien y del mal*, op. cit., 134.

262 Nietzsche, F.: *Ecce homo*, op. cit., 51.

263 Nietzsche, F.: *Más allá del bien y del mal*, op. cit., 135.

264 Nietzsche, F.: *Ecce homo*, op. cit., 57; *Más allá del bien y del mal*, op. cit., 135.

265 Nietzsche, F.: *La genealogía de la moral*, op. cit., 61.

266 Nietzsche, F.: *Ecce homo*, op. cit., 93.

tsuenak: kasta gailen eta menderatzaile berri baten eskutik, Europak mehatxu behar du izan, Estatu txikien arteko zatiketaren gaintu behar du, eta lotu lur osoa mendean hartzeko borrokari<sup>267</sup>. Horretarako, bat izan behar du Europak, sintesi berri bat lortu<sup>268</sup>. Arrazen nahasketa izateari utzi beharko dio, nahasketa hori denez gainbeheraren ezaugarria<sup>269</sup>. Botere handiagoa lortzeko nahimenak baitakar aurrerapena, botere txikiagoen gaintik nagusitu nahiak, alegia; gizateria —masa— sakrifikatzea eskatzen du aurrerapenak, giza espezie indartsuago baten mendean atxikitzea<sup>270</sup>.

Baina Europak ez du batasun eta nagusitasun hori lortuko, ez du handitasuna berreskuratuko, ez badu gaintik kentzen kristautasunaren zama, kristautasunak gainbeheratu baitu europar arraza, senaren aurkako borroka sistematikoarekin, indartsuak indargabetu eta itxaropen handiak ahuldu dituenen<sup>271</sup>. Arima, espiritua postulatu duen moral judu-kristaua autoengainua da, itsukeria, gezurra bilakatzeko borondatea, bizitzaren aurkako krimena<sup>272</sup>.

Giza bizitzari eta gizarte egiturari buruzko ideia horiek —Schopenhauer, Spengler edo Ortega y Gassetek partekatuko zituztenak— alternatiba bat eskatzen zuten liberalismoak garatu zuen ordezkartzaren bidezko sistema demokratikoarentzat. Elite indartsu baten etorrera ere iragartzen

---

267 Nietzsche, F.: *Más allá del bien y del mal*, op. cit., 150.

268 *Ibidem*, 214.

269 *Ibidem*, 129.

270 Nietzsche, F.: *La genealogía de la moral*, op. cit., 89

271 Nietzsche, F.: *Más allá del bien y del mal*, op. cit., 89.

272 Nietzsche, F.: *Ecce homo*, op. cit., 128-132.



zen. Eta, berehala, Nietzschek ozenki errefusatuko zuen arren, nazismoa bilakatuko zen alternatiba hori, zoritxarrez.

### **Manipulazio baten historia**

Gauza ezaguna da nazismoak izugarri irakurketa propioa egin zuela Nietzsche-ren filosofiarekin. Filosofoaren nortasuna eta obra zakuratu zuen historikoki. Hitler beragandik hasita: 1933.eko azaroaren 2.ean *Nietzsche-Archiv* delakora agertu zen eta filosofoaren arrebak, B. Förster antisemitarekin ezkondu<sup>273</sup>, Nietzsche-ren makila eskaini zion; zeremonia sinboliko hartan, Hitlerren argazkia Nietzsche-ren eskulturarekin lotuta geratu zen betirako<sup>274</sup>. Aurrerantzean, naziek patrozinatuko zuten, hain zuzen, *Nietzsche Artxibategia*. Beste zeremonioa batean, Hitlerren *Mein Kampf* eta Rosenbergen *Der Mythos des zwanzigsten Jahrhunderts (Hogeigarren Mendeko Mitoa)* liburuekin batera gordeko zuten Nietzsche-ren *Hala mintzatu zen Zaratustra* obra, I. Mundu Gerrako Errusiako garaipena omentzeko monumentuaren oinean<sup>275</sup>.

Manipulazio sinboliko eta teoriko horrek esplikatzen du Nietzsche-ren itzala inguruabar berri batera aldatzea. Izan ere, 1918. urtea baino lehen, Nietzschek dimentsio antiautoritarioa izan zuen Alemanian, berdintasunaren alde borrokatzen ziren anarkisten artean, edo feminismoaren barruan. Indar berberaz errefusatzeko zuten pangermanistek, antisemitek, nazionalistek eta militaristek. Wiemar-eko Errepublikaren ostean, ordea, gauzak zeharo aldatu ziren<sup>276</sup>.

---

273 Herri Alemanaren Alderdia sortu zuen, hain zuzen.

274 Sauquillo, J.: *op. cit.*, 83.

275 *Ibidem*, 86.

276 *Ibidem*, 94.

## Nietzsche antisemitismoaren aurka

Nietzsche berak maiz agertu zuen nazien aurkako jarra: nazismoarekin bat letorkeenarekin harremanik ez izateko eskatu zuen; arrebak gaitzetsi zuen senar antisemita hartu zuelako; *Herri Alemanaren Alderdia* arbuia zuen<sup>277</sup> ... Askotan erakutsi zuen, halaber, juduek sortzen zioten mi-respena. Juduak alemanak beraiek baino interesgarriagoak zitzaizkion: haien gorentasuna neurtzeko, jatorri judua zeukaten aleman jakintsu, artista, poeta, idazle eta musikarien zerrenda egin zezaten eskatu zien antisemitei<sup>278</sup>. Judu delikatu eta abegitsuen aldean, alemanak arruntak eta jasanezinak zaizkio<sup>279</sup>. Juduen erlijioa gogor maiseatu ostean, dagoen arrazarik gogorrena dela aitortzen du, beti jakin duelako arraza bezala garaile ateratzen, iraupenaren borrokan indartsu izaten<sup>280</sup>. Beste batean, antisemita eta nazionalisten espiritu hertsia eta dekadentea salatuko du<sup>281</sup>. Aberriaren ideia ere arbuia du eta, orobat, aleman herria, herri astuna baita, askatasunerako gaitasunik gabea, eta, era berean, lanbrotsua, iluna<sup>282</sup>.

Kristautasunaren ostean alemaniak garatu duen kultura, filosofia eta historia ere ez ditu oso begiko: Goethe, Beethoven, Mozart, Händel edo Bach, haiengan ikusi uste den izaera alemana baino nahiago ditu liburu europarrak,

---

277 *Ibidem*, 83.

278 *Ibidem*, 84.

279 Nietzsche, F.: *Ecce homo*, *op. cit.*, 120-121.

280 Nietzsche, F.: *Más allá del bien y del mal*, *op. cit.*, 206-207.

281 Nietzsche, F.: *Genealogía de la moral*, *op. cit.*, 181.

282 Nietzsche, F.: *Más allá del bien y del mal*, *op. cit.*, 52-53, 66, 197.

gustu alemanaz harago altxatzen direnez; filosofo aleman guztiak batera hartuta baino interesgarriagoa zaio edozein frantses: Montaigne, La Rochefoucaud, La Breuyère...; Leibniz eta Kant eragozpen dira Europaren zintzotasun intelektualari begira; Fichte, Schelling, Schopenhauer, Hegel..., denak faltsu alenak; historialari alemanak, politikaren eta elizaren bufoiak; hitz batean, azken lau mendeetan, Alemaniak eragin ditu kulturaren aurkako atentatu guztiak<sup>283</sup>.

Kontraesanik badago, ordea: Alemania modernoa gaitzesten zuen indar berarekin laudatzen baitzuen Nietzschek beste Alemania bat, kristautasunaren aurreko arraza sendoa, alegia.

### **Nietzsche eta nazismoa**

Nietzscheren eta nazismoaren arteko harreman teoriko kausalarena iritzi askotarako auzia izan da, noski, hemen luzatu ezin duguna. Denetarik dago, ardura eta erantzukizun historikoa egozten diotenetatik hasita, Ilustrazioaren egitasmo askatzailearekin lotzen dutenenganaino<sup>284</sup>. Eztabaida itxi gabe dagoela esango genuke. Itxiezina dela, agian. Derrigorrez sortu behar ditu kontraesanak kontraesanak dauzakanak.

Egia da, maiz oso kritiko agertzen dela, ia esker muturreko, politikan, esaterako, bere garaiko langileen egoeraz ari denean, ikusten baitu, borondaterik gabekoak nahi direla, edozein agindu beteko dutenak, edozein egoeratarago kituko direnak eta, iragartzen du, ondorioz, joputza

---

283 Hirschberger, J.: *Historia de la Filosofía*, II, Herder, Bartzelona, 1986, 341.

284 Sauquillo, J.: *op. cit.*, 88.

mota berri bat sortu dela, paradoxikoki, tirania berrien bidez konponduko dena<sup>285</sup>.

Printzipioz, inmoralismo filosofikoa proposatuko zuen Nietzschek, bestalde<sup>286</sup>. Gertakari moralik ez dagoela konstatatuko zuen filosofikoki, gertakarien interpretazioa baita morala<sup>287</sup>. Baina, gero, moralak jerarkiari men gin behar ziola gaineratuko zuen<sup>288</sup>, indartsuen kategoriak legitimatuko zituen.

Gehien argudiatu den kontzeptuari buruz ere, alegia *botere-nahimenari* buruz, aditu gehienak bat datoz: indibidualismo arradikalarekin lotu zuen Nietzschek, bizitza publikoari ihes egiten dion ego autentikoarekin<sup>289</sup>. Ondorioz, gizaki hobek sortarazteko metodologia hori, oinarrian, askatasun ontologikoaren aldarrikapena zena, gaizki ezkontzen zen autoritarismoarekin edo militarismoarekin<sup>290</sup>. Halere, ereduak ematen dituenean, Cersar Borgia, Napoleone eta Julio Zesar gorensten ditu<sup>291</sup>.

Denarekin ere, proiektu totalitario naziak erabiliko zituen ideia eta kontzeptu ugari garatu zituen Nietzschek. Halako oinarri ideologiko bat erein zuen<sup>292</sup>. Izugarri erraz

---

285 Nietzsche, F.: *Más allá del bien y del mal*, *op. cit.*, 195.

286 Nietzsche, F.: *Ecce homo*, *op. cit.*, 126.

287 Nietzsche, F.: *Más allá del bien y del mal*, *op. cit.*, 99.

288 *Ibidem.*, 166.

289 Dannhauser, W.J.: "Friedrich Nietzsche", in Straus, L.; J. Cropsey, *Historia de la Filosofía Política*, F.C.E., Mexiko, 1993, 796; Hirschberger, J.: *op. cit.*, 338.

290 Sauquillo, J.: *op. cit.*, 96, 108, 113-116.

291 MacIntyre, A.: *Historia de la ética*, Paidón, Bartzelona, 1988, 218.

292 Sauquillo, J.: *op. cit.*, 86.

jarriko zion fazismoari bere ideien manipulazioa<sup>293</sup>. Eta, horretan, arduragabe jokatu zuela esan da<sup>294</sup>. Kontuan hartu behar da, gainera, bere proposamen estetizista edo intuitionista gutziz egokia zitzaiola sistematizaziorik ez zeukan ideologia naziarri: erraz osa zezakeen fanatismoaren puzzlea. Ez aipatzearren pasarte baten eta hurrengoaren artean, egon dauden kontraesan ugariak<sup>295</sup>.

### Spengler

Organizismoa darama filosofiara Spenglerrek. Historiak, kulturen historiak gertakari organikoekin partekatzen du garapena: hurrenez hurren datoz jaiotza, gartzaroa, zahartzaroa eta heriotza<sup>296</sup>. Beraz, orain arte historia interpretatzeko erabili den eskema, Antzinaroa, Erdi Aroa eta Garai Modernoa lerro hautsiezinez lotzen zituena, ez da baliagarria<sup>297</sup>. Are onartezinagoa da, modernitatearekin hasi den hirugarren erreinu horretan gorentasuna, betegintzarrea, lortuko delako ustea, eskolastikoekin batera sozialistek beren egin dutena<sup>298</sup>. Gizateriak ez baitu helburu bat, ideia edo egitasmo bat<sup>299</sup>. Aitzitik, kultura bakoitzak du bere garapena, gainbeheratu eta gehiago ez berpiztera daramana<sup>300</sup>.

---

293 Dannhauser, W.J.: *op. cit.*, 797.

294 MacIntyre, A.: *op. cit.*, 218.

295 Hirschberger, J.: *op. cit.*, 343.

296 Spengler, O.: *La decadencia de Occidente*, Planeta-Agostini, Bartzelona, 1993, I, 25.

297 *Ibidem*, I, 44, 49.

298 *Ibidem*, I, 45.

299 *Ibidem*, I, 48.

300 *Ibidem*, I, 48.

Eta, gorputz adintsu baten antzera, Mendebaldeko kultura, zibilizazioa, gainbehera ari da, XIX. mendeaz geroztik<sup>301</sup>. Frantzia eta Ingalaterra iritsi dira jadanik estadio horretara, Alemania lerratzen ari da<sup>302</sup>. Gainbehera hori, kultura bat zibilizazio bilakatzen denean hasten da, espiritua endekatzen denean, alegia, kulturaren mugimendua zurruntzen denean<sup>303</sup>.

Gizaki hiritar bat ekarri du Europako zibilizazioak, formarik gabeko masak bezala agertzen dena: tradiziorik eta erlijiorik gabe bizi da, gauzen morroi, adimentsu, hotz, zientzia-zale<sup>304</sup>. Amaitu dira espiritu erromantikoak<sup>305</sup>. Arrazionalismoa dago nagusituta, ilustrazioa, emaitzen eta ondorioen fedea<sup>306</sup>. Irrazionaltasunik ez dago, ezagutu ezin den heinean<sup>307</sup>. Naturara itzuli gara, baina ez bizidun natura batera, aitzitik, intelektualki ulertutako natura batera<sup>308</sup>. Dirua da zibilizazioaren abstrakzioa, dirua da azken helburua<sup>309</sup>. Zibilizazioa dirua da, dirua da zibilizazioaren gauzatzea<sup>310</sup>.

---

301 *Ibidem*, I, 36, 62.

302 *Ibidem*, I, 63.

303 *Ibidem*, I, 61.

304 *Ibidem*, I, 62-63, 64.

305 *Ibidem*, I, 69, 78.

306 *Ibidem*, II, 356.

307 *Ibidem*, II, 356.

308 *Ibidem*, II, 356.

309 *Ibidem*, I, 65.

310 *Ibidem*, II, 119-120.

Herririk ez dago Europan, jadanik: masa dago, dabil, no-raezean<sup>311</sup>. Hildako gorputzak, arimagabeko masak, historiak utzi dituen material ahituak<sup>312</sup>. Inperio klasikoetan bezala, herrialde guztien bizitza puntu bakar batean erabakitzen da eta, horren ondorioz, lurrarekin batera hazten diren herrien formak suntsitu egin dira<sup>313</sup>.

Kultura sortu zutenak oro, bestalde, noblezia, eliza, pribilegioak, dinastiak, konbentzio artistikoa... , bertan behera jausi dira<sup>314</sup>. Gizartea indartu egin da, eta ez Estatuak; eskubide naturalak inposatzen dira irabazitako eskubideen gainetik<sup>315</sup>. Artea kirol bilakatu da, *l'art pour l'art*, ikusle eta erosleen begirakoa, amaitu dira pintura edo musika gorenak<sup>316</sup>. Filosofiak berak galdu egin du azken zentzua: zurrundu egin da, kamustu, hegaztiaren ikuspegi gorena galdu da; predikuaeren, propagandaren, zientzia espezialistaren garaipena da<sup>317</sup>.

Europako zibilizazioaren egitura eta izaera hori guztia perbertsio bat da, goitik behera. Giza errealitatea berez baita aurkaritza, adostezintasuna, eraso eta defentsa, liskar eta gerra; gerra da gauza handi guztien sortzailea<sup>318</sup>. Gerra da oinarrizko politika, bizitza duen gertakari ororentzat,

---

311 *Ibidem*, I, 64.

312 *Ibidem*, I, 64.

313 *Ibidem*, I, 62, 68.

314 *Ibidem*, I, 64.

315 *Ibidem*, I, 63.

316 *Ibidem*, I, 66, 72.

317 *Ibidem*, I, 76.

318 *Ibidem*, II, 422.

gizonen artean bezala, arrazen artean<sup>319</sup>. Beraz, inoiz bake unibertsalik izan bada, gizateria osoaren joputzaren gainean eraikitako bakea izan da, agintari indartsu gutxi bartzuen nagusigoaren menpekoa<sup>320</sup>.

Boterearen adierazlea baita zuzenbidea; indartsuenaren zuzenbidea da, historian, guztientzako zuzenbide; irabazleak dauka zuzenbidea ezartzeko eskubidea<sup>321</sup>. Demokratiak aldarrikatzen dituen justizia, bertutea eta askatasuna, aitzitik, abstrakzio galkorrak dira, irudi mistiko hutsak<sup>322</sup>.

Antzaenez, etorri hurren zegoen holokaustoak erabiliko zuen ideia zehatzagorik garatu omen zuen Spenglerrek. *Preussentum und Sozialismus* izeneko obran, Asiako arrazak eta koloreko arrazak gailen ez zitezen, Alemaniak europar zibilizazioaren mugak zaindu behar zituela adierazi zuen<sup>323</sup>. Europaren gainbeheraren kausa nagusia *pseudomorfozia edo kultura-nahasketa izan zela uste zuen Spenglerrek*<sup>324</sup>. Nazional-sozialismoaren proposamena ere bere egin omen zuen: sozialismoa garbitu, internazionalismoz eta marxismoz gabetu behar zela aldarrikatu zuen<sup>325</sup>. Gainbeheraren irtenbidetzat, bestalde, nazioaren benetako bertuteetara biltzea proposatu omen zuen<sup>326</sup>.

---

319 *Ibidem*, II, 512.

320 *Ibidem*, II, 512..

321 *Ibidem*, II, 424, 426.

322 *Ibidem*, II, 510.

323 Touchard, J.: *Historia de las ideas políticas*, Círculo de Lectores, 1990, Madrid, 1990, II, 499.

324 *Ibidem*, 514.

325 *Ibidem*, 500.

326 *Ibidem*, 514.



## Ortega y Gasset

Ortega y Gassetek erabat partekatu zuen Spenglerren analisia: Europa noraezean sartu da, gainbehera eta basakeria sasoi batean sartu da<sup>327</sup>. Errendapen organiko horren oinarrian masa-gizakiaren sorrera jartzen du, presaka egindako gizakia baita berau, leku batean eta bestean berdin-berdina dena; iraganik gabea, historiak gabetua; barruan ere, intimitatean, hutsik dagoena; hitz batean, gorentasunik gabeko gizakia<sup>328</sup>.

Masa-gizaki garaikide horrek ez du nahi besteengandik bereizi, ez du nahi bere burua bikaindu, eta, are gutxiago, ahalegindu, identikotasunaren mesedetan<sup>329</sup>. Proiekturik ez du, norabiderik gabe dabil, orainaldiari erabat doituta<sup>330</sup>. Ez dauka sentiberatasunik, ez dauka zeregin historikoak burutzeko espiriturik<sup>331</sup>.

Sortu ez ezik, gailendu egin da masa-gizakia, nagusitu, matxinatu, mendebaldearen egiturari, lehen lekuak hartu ditu gizartean<sup>332</sup>. Horretan, erabat eraldatu da masa klasiakoaren izaera: definizioz, funtzioz, izatez, masa denak ez du izan nahi, aurrerantzean, masa; uko egiten dio bere betebeharrak biologikoari<sup>333</sup>. Galdu egin du gorenei zor zien be-

---

327 Ortega y Gasset, J: *La rebelión de las masas*, Planeta-Agostini, Bartzelona, 1993, 70, 93, 100, 113.

328 *Ibidem*, 17.

329 *Ibidem*, 44-45.

330 *Ibidem*, 74.

331 *Ibidem*, 76.

332 *Ibidem*, 28, 42-43, 45.

333 Ortega y Gasset, J: *España invertebrada*, Revista de Occidente, Madril, 1959, 92, 101.

girunea<sup>334</sup>. Aristofobiaz gaixotu da: gorrotatu egiten ditu gorenak<sup>335</sup>. Makurrenak, txarrenak, gorenen eta onen gai-  
netik jarri dira<sup>336</sup>. Goren eta on bilakatu dira, Nietzschek  
iradoki digun bezala. Masak suntsitu egin du berezia, indi-  
biduala, kualifikatua eta gorena dena<sup>337</sup>.

Guzti-guztiari buruz inposatu ditu bere ideiak masa ma-  
txinoak, politikari buruz bezala, literaturari buruz; baina  
ideia horiei eusteko, ez dauka aristokraziak zeukan irizpi-  
de eta bermerik<sup>338</sup>. Epaiak funtsatzeko ahalmena suntsitu  
izanaren emaitza ezin larriagoa izan da: araugabetasuna, ba-  
sakeria<sup>339</sup>... Zibilizazioaren oinarriak aintzatesten ez dituen  
masa-gizaki horren eskuetan dago Europaren patua<sup>340</sup>.

Hiperdemokraziarekin zuzenbide erromatarra nagusitu  
da: giza abereari jaiotzetik bertatik ezagutzen zaizkio es-  
kubideak<sup>341</sup>. Modu pasiboan lortu ditu eskubideak masak,  
batere ahaleginik egin gabe; patuak eskaini dizkio pribile-  
gioak<sup>342</sup>. Prestakuntzarik gabeko masa batek hartzen ditu

---

334 *Ibidem*, 91.

335 *Ibidem*, 122-123.

336 *Ibidem*, 100.

337 Ortega y Gasset, J.: *La rebelión de las masas, op.cit.*, 48

338 *Ibidem*, 92.

339 *Ibidem*, 93.

340 *Ibidem*, 100.

341 Ortega y Gasset, J.: *España invertebrada, op. cit.*, 136-137.

342 Ortega y Gasset, J.: *La rebelión de las masas, op.cit.*, 86.

erabaki publikoak<sup>343</sup>. Maila intelektualean ere horrelaxe gertatu da<sup>344</sup>.

Gertakari soziologiko horrek ekarri dituen ondorioak erabat galgarriak izan dira Europarentzat: behiala aniztasuna eta ugaritasuna zena homogeneizazio bilakatu da<sup>345</sup>. Historia ez dabil, beraz, progresismoak eta arrazionalismoak nahiko zuketzen bezala, hobekuntza ezinbesteko baten bila; aitzitik, atzeraka ari da<sup>346</sup>. Kalte hau bikoiztu egiten da, kontuan hartuz gero, nazioen artean ere, masa-herriak sortu direla eta, hain zuzen, herri sortzaile handien aurka altxatzeko asmoa dutela<sup>347</sup>.

Masen nagusitasun hori ez dator bat historiak erakutsi duen egituraketa politiko eraginkor bakarrarekin. Izan ere, gutxiengoek eta masek osatu dute beti gizartea; bereziki prestatuta dauden banakoek osatu dute gutxiengoa eta, alderantziz, prestakuntzarik gabekoek masa<sup>348</sup>. Zuzentzeko eta agintzeko gaitasuna dutenak, batetik, eta ez dutenak, bestetik: bereizketa hori unibertsala da<sup>349</sup>. Bai baitaude, gizarte orotan, eginbehar batzuk prestakuntzarik gabe burutu ezin direnak, eta, horren ondorioz, masarentzat iritsezinak direnak, besteak beste, gobernu eta auzi publikoei

---

343 *Ibidem*, 47.

344 *Ibidem*.

345 *Ibidem*, 25.

346 *Ibidem*, 30, 34.

347 *Ibidem*, 147.

348 *Ibidem*, 44; Ortega y Gasset, J.: *España invertebrada*, *op. cit.*, 115, 120.

349 Ortega y Gasset, J.: *España invertebrada*, *op.cit.*, 98.

buruzko eztabaida<sup>350</sup>. Herriak oinarrizko funtzioak betezen ditu bakarrik, biziraupenari lotzen zaio, alegia; ez dauka zientzia, artea, erlijioa edo Estatu osatzeko gaitasunik, ez du inoiz eragin zibilizatorik<sup>351</sup>. Badaki masa dena, aristokraziari jarraitu behar zaiola itsuki, eta horrek ekarriko diola garapena<sup>352</sup>. Gizartearen egitura aristokratikoak, hau da, gutxiengo baten bikaintasunak segurtatzen du bakarrik ordena egokia, zuzendu, eragin eta ordezkatu egiten baititu masak, bere horretan jokatzen utzi gabe<sup>353</sup>. Aristokrazia bikain batek bakarrik erantzun diezaioke bere baitatik harago dagoen arau goren bati<sup>354</sup>. Hori naturaren legea da, gizartearen biologia<sup>355</sup>.

Bizitza borroka den heinean<sup>356</sup>, aristokraziak, diziplinaren bidez lortzen ditu bere pribilegioak, bere ahaleginarekin konkistatzen ditu lehentasunak<sup>357</sup>. Noblezia exijentzia baita, saiakera etenik gabea, berez datorkigun izaera gainditzeko asmoa<sup>358</sup>. Zuzenbide germaniarraren eredua da<sup>359</sup>.

Soziologia zurrun horri men eginik bakarrik aurki dezake irteera Europa gainbeheratuak, sakoneko lur histori-

---

350 Ortega y Gasset, J: *La rebelión de las masas*, op.cit., 46.

351 Ortega y Gasset, J: *España invertebrada*, op. cit., 126.

352 *Ibidem*, 117, 154.

353 Ortega y Gasset, J: *La rebelión de las masas*, op.cit., 49, 129

354 *Ibidem*, 85.

355 Ortega y Gasset, J: *España invertebrada*, op.cit., 1959, 92, 98.

356 Ortega y Gasset, J: *La rebelión de las masas*, op.cit., 116.

357 *Ibidem*, 86.

358 *Ibidem*, 87.

359 Ortega y Gasset, J: *España invertebrada*, op. cit., 136-137.

koaren taupada senti dezakeen aristokrazia berri eta bertutetsu baten eskutik<sup>360</sup>. Arraza germaniar araztu baten bulkadaz<sup>361</sup>.

## Schopenhauer

Schopenhauerren ustez *nahimena* edo *borondatea* da denaren funtsa, adimena edo arrazoiaren gainera ere. Nahimena librea da, ahalguztiduna, dena baldintzatzen du, mundu bezala, giza aberearen portaera<sup>362</sup>. Denboraz kanpo dago, ez dauka iraupenik, ez da iraungitzen<sup>363</sup>. *Nahimena*, naturan gertatzen den guztiaren oinarria, berez den gauza bakarra, beste guztia fenomenologia besterik ez baita, alegia, errepresentazio hutsa<sup>364</sup>. Nahimenak bultzatzen du animalien jokaera edo landareen hazkuntza; nahimenak determinatzen, erreinu inorganikoan, gertakari fisiko eta kimikoak; grabitatea bera, nahimena da<sup>365</sup>. Eta *Natura* bultzatzen duen indar hori gure baitaraino hedatzen da: garen heinean ditugu nahimenak, garen heinean daukagu borondatea<sup>366</sup>. Gorputza bera, nahimenak mugitzen du<sup>367</sup>. Hortzak, esofagoa edo hesteak, gosearen gauzatzea dira<sup>368</sup>.

---

360 Ortega y Gasset, J: *España invertebrada*, op.cit., 104; *La rebelión de las masas*, op.cit., 1993, 113.

361 op.cit., Ortega y Gasset, J: *España invertebrada*, op. cit., 130, 157.

362 Schopenhauer, A.: *El mundo como voluntad y representación*, Porrúa, Mexiko, 1987, 216.

363 *Ibidem.*, 223.

364 Schopenhauer, A.: *Sobre la voluntad en la naturaleza*, op. cit. 40.

365 *Ibidem.*, 41.

366 *Ibidem.*, 194-195.

367 Schopenhauer, A.: *El mundo como voluntad y representación*, op., cit., 90-91.

368 *Ibidem.*, 97.

Sexualitateari erreparatzen badiogu, adibidez, naturaren estratagema bat besterik ez dugu antzemango, helburutzat espeziearen ugalketa duena; xedera bat baita sexualitatea, espeziearen zentzuaren aginduz, gizabanakoa jopu bihurtzen duena<sup>369</sup>. Giza abere bakoitzak bere erara moldatzen du gorputzean borondatea<sup>370</sup>. Nahimenak esplikatzen du, doi-doi, gure moralitatea bera<sup>371</sup>. Borondatea besterik ez da bertutea<sup>372</sup>.

Nahimen horrek gizabanako egiten gaitu, bakan, errepikaezin, subjektibitate huts: geure-geureak ditugu sentipenak, pertzepzioak<sup>373</sup>. Egiten gaitu, irrikaren morroi, borondate huts, nahimen aseezin<sup>374</sup>. Borondatea bizitza da, alegia, bizitzeko grina<sup>375</sup>.

Eta, nahimenaren objektibitate diren gertakari guztietan, borroka da legea<sup>376</sup>. Mundua berekoia da, munduak arrazoa ematen dio Hobbes sententzia ezagunari: giza-kiak, esate batera, mundua suntsituko luke bere pertsona une batez bizirauteko<sup>377</sup>. Baten nahimenak, halabeharrez, bestearen nahimenaren gainetik inposatu behar duenez,

---

369 *Ibidem.*, 257; Schopenhauer, A.: *El amor, las mujeres y la muerte*, Alianza, Madril, 1989, 47-52.

370 Schopenhauer, A.: *El mundo como voluntad y representación*, *op. cit.*, 97.

371 Schopenhauer, A.: *Sobre la voluntad en la naturaleza*, Alianza, Madril, 1987, 195.

372 Schopenhauer, A.: *El amor, las mujeres y la muerte*, Alianza, Madril, 1989, 325.

373 Schopenhauer, A.: *El arte del buen vivir*, Alianza, Madril, 1983, 40.

374 Schopenhauer, A.: *El amor, las mujeres y la muerte*, *op. cit.*, 144, 318.

375 Schopenhauer, A.: *El mundo como voluntad y representación*, *op. cit.*, 218, 272.

376 *Ibidem.*, 258.

377 *Ibidem.*, 259.

berezkoa du munduak injustizia<sup>378</sup>. Kanibalak izan gara, giza-hiltzaileak, joputzat hartu ditugu hurkoak, gorputz-ebaketak eta torturak egin dizkiogu elkarri; gezurretan ibili gara, amarrukeriatan, bestela; hitza ahantzi dugu, itunak hautsi, erraztasun txundigarrian<sup>379</sup>.

Gizabanakoa animalia da, izan, jotzen dakien animalia, ez oso bestelakoa hozka egiten duen haragijalearekiko, edo adarrak darabiltzan belarjalearekiko<sup>380</sup>. Pitzia bat daramagu gorderik bihotzean, prest gaude bidera irtengo zaizkigunei<sup>381</sup> erasotzeko. Zibilizazioaren kaiolak ez du suntsitu gizakiaren pitzia-izaera<sup>382</sup>. Bizitza borroka baita, borroka, gaizkiaren aurka, borroka, txirotasunaren aurka, asperraren aurka...; bizitza gerra da, beste gizabanakoen aurkako gerra etenik gabea<sup>383</sup>. Arma eskuan hartuta hiltzen da giza aberea<sup>384</sup>. *Aineza gal bizia, goiz batez, iskiludun*, diosku Mirandek. Bizitza ehiza-saio erraldoia da: batzuetan ehiztari gara, beste batzuetan, harrapakin dohakabe<sup>385</sup>. Natura dagoenik eta gauzarik aristokratikoena da<sup>386</sup>.

Nahimenari erantzuten ez dion munduak dituen miseriak zuritu dituelako, hain zuzen, Juduen erlijioa kritikatu-

---

378 *Ibidem.*, 260.

379 *Ibidem.*, 261-263.

380 Schopenhauer, A.: *El arte del buen vivir*, op. cit., 93, 135.

381 Schopenhauer, A.: *El amor, las mujeres y la muerte*, op. cit., 337.

382 *Ibidem.*, 195.

383 *Ibidem.*, 119.

384 *Ibidem.*, 119.

385 *Ibidem.*, 140.

386 *Ibidem.*, 207.

ko du Schopenhauerrek, dauden doktrinetan makurrena baita<sup>387</sup>.

Nahimen horren eskakizun ekidin-ezinei, ordea, erantzun ezberdinak emango dizkio gizabanakoak. Batzuek —jende arruntak— gizartea besarkatuko dute, kantitate bilakatuko dira, itsutu egingo ditu aberastasunak, urrearen distirak<sup>388</sup>. Espiritu gorenak, ordea, goitik begiratzen badaki, arranoen antzera<sup>389</sup>. Gizabanako goren eta aristokratikoak sentsibilitatea landuko du, barne-heziketa lehenetsiko du, gizartetik bereizia, bakardade aberatsean<sup>390</sup>. Itzuri egingo dio gehiengoaren iritzari, kalitatearen mesedetan<sup>391</sup>. Naturak ezberdintasunak azpimarratzen dituen bitartean, berdintasuna baita gizartea<sup>392</sup>.

Baina, gerora, gizarte bizitzan ere, espiritu gorenak nagusituko dira, bere nahimena asetzeko ausardia handiagoa, arrazoi handiagoa, baitu benetako aristokraziak<sup>393</sup>.

Schopenhauer, Nietzsche, Spengler eta Ortega y Gasset: nabardura gehiago egin beharko genukeen. Baina, agian, horrela behar du izan: batzuetan, nabardurarik gabetasunaren begitik behar da ikusi.

Lau filosofo horiengan aurkitu dugun paradigmarekin bat egin zuen Mirandek, modu nahiko sistematikoan, fa-

---

387 Schopenhauer, A.: *El amor, las mujeres y la muerte*, op. cit., 123.

388 Schopenhauer, A.: *El arte del buen vivir*, op. cit., 48, 49, 60, 61, 66.

389 *Ibidem.*, 218.

390 *Ibidem.*, 68, 75-76, 87.

391 *Ibidem.*, 91, 152.

392 *Ibidem.*, 182.

393 *Ibidem.*, 197.



milia-giro hertsu horretan garatu zituen ideia eta kategoria politiko nagusienak. Bere egiten du modernitateak, ustez, gainbeheratu zuen Europa onbideratu beharko zukeen iraultza kontserbakor eta aristokratikoak proposatu zuen irtenbide arrazista bezain fanatikoak. Auschwitz, berriro ere? Ez dugu uste. Bere jarrerak, bere bizitzak, hartu zuen konpromisoaren esparruak ez dio egingarritasunik eskaintzen hipotesi horri. Hala ere, teologia politiko intolerante horrek ekarri zuen nazismoaren esperientzia historikoa gordinegia zen artean.

### **Arrazakeria**

Neopaganismoa, kristautasunaren kritika, gerraren mistika, erromantizismoa, irrazionalismoa... Mirandek paradigma ideologiko eta filosofiko horrekin partekatu zituen elementuen artean, arrazismoarekin hasiko gara, kontraesankorren horixe gertatu denez.

Mirandek Europar Arraza zurian sinesten zuen, eta Arraza Zuri hori beltzek eta horiek mehatxatzen zutela. Nietzschekin edo gabe, Spenglerren irakurketa kulturista egin edo Spenglerrez irakurketa arrazista egin, zalantza gutxi dago horretan.

Europar arraza deitu ostean, ariar arraza ukatuko du, baina ez arraza. Maiz egiten du odol garbiaren aldarrikapena, maiz agertzen da mestizaiaren aurka. Hegoaldeko arrazak gutxiagotzen ditu, juduen arraza arbuiatzen du, eta arabiarrena, eta ijitoena, eta afrikarrena...

Parisen ez da atseginez bizi, besteak beste, gero eta ugarriagoak direlako arabiarrek eta afrikarrak:

Adibidez, gure iriburua Arabez eta beltzez geroago ta beteagotuz doa: ia ez dirudi Europako errialde zuri batean gaudela. Baña tira... Demokrasiak orataratu gaitu emengoak, eta orain frantzesek beren ergelkeriaren zituak irabazten dituzte naiz metropolian naiz kolonietan<sup>394</sup>.

Gizon zuriaren kontra ari delako demokrazia bera arbuiztzen du <sup>395</sup>. Frantsesak eta gainerako hego Europako herriak latindar endekatutzat dauzka<sup>396</sup>.

Laffiteren odola kuestionatzen du, gaskoia delako<sup>397</sup>. Krutwigena, halaber, ustez, judua delako<sup>398</sup>. Bizitza osoan zehar egin izan ditu adierazpen arrazistak Mirandek.

### **Germaniar arraza Euskal Herrian**

Mirandek osagai germaniarra ikusi nahi du euskal arrazan. Esan gabe doa, maiz ukatu duen arren, jabetze ideologiko horrek bere horretan daramala arraza ariarraren apologia.

Erdi Aroko euskal erresumen izaera guduzalea laudatzen duenean, haien aitzindarien jatorri germaniarra azpimarratzen du:

Hemen, faktu baten interessant da iakite: orduko euskaldunok zeduzkaten aitzindari eta gudalburuzagiak german endako zirela dirudi, beren endakide,

---

394 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, op. cit., 130.

395 *Ibidem*, 131.

396 *Ibidem*, 128.

397 *Ibidem*, 131.

398 *Ibidem*, 193.

Hegoi-aldeko Got eta ipharraldeko frankei aitzi ia-zarriak<sup>399</sup>.

Gerrarako tresnen euskal hiztegiari ere jatorri germaniarra antzematen dio, López Adanek ohartarazi duenez:

Ezin ukhatuzko german eragin bat euskal gerla-hiztegiari, beharr bada goten ganikoa: gudu = “katus” germanek mailegatu keltakk-hitzetik; iskillu = got. skildu; murga edo morga = got. baurgs; sala (iauregi) = frak. sal; e.a.<sup>400</sup>

Sinbiosi hertsia lortu zuten buruzagi horiek, gainera, bertako euskaldunekin, edo bertako euskaldunek, germaniarrekin:

Zer nai den, german aitzindariok gallo eta ibero-roman artean ez anzo gudulari indigenak (euskaldunok) zituten beren meneko; gehiago dena, berek euskal anzoko izenak zeduzkaten —Azenari, Lupus = Otsoa, Gartzea, Santx Mitarra (menditarra?)— eta textuetatik nabari denez, euskaraz hitz egiten zuten. Bertakotu ziran osoki, bertakoak hein batean germandu ba ziran ere<sup>401</sup>.

Uztardura horrek, germaniar odolaren legamiak, ekarri zuen Nafar Estatu:

---

399 Mirande, J.: “Euskaldun gudu-zalduntza baten beharrkiaz”, in *Miranderen lan kritikoak*, op. cit., 21.

400 *Ibidem*.

401 *Ibidem*.

Ordurarte basati eta anarkheian bizi izandako euskaldunek beren endaren gudu eta herri-organizacionerako ahalkeizunen agerraratu zituen legamia ukhan zuketen german elementu hori. Zorioneko ondorioa ekharri zuen guretzat bi enden elkharr-eragiteak: Euskalherriaren irazaille den Nafar Statua<sup>402</sup>.

Izan, ere:

Euskaldun germandu zalduntza gudulari hori izan ez balitz, Euskalherririk ere izanen erizela ahantzi beharr ez dugu<sup>403</sup>.

Joxe Azurmendik aztertu du nola eraiki ziren espainiar eta frantses nazionalismoak arraza arioaren osagaiaren gainean, godoekin eta frankoekin<sup>404</sup>. Espainiar nazionalismoak oso berandura arte azpimarratu du hari genealogiko hori, bestalde, Francoren erregimen faxista ekarri arte, besteak beste<sup>405</sup>. Ba, ideologikoki, Mirande ez da batere bereizten odolaren genealogia horretatik.

### **Europar arraza, euskal arraza**

Uztardura hartan nahastu ziren euskal arraza eta arraza arioa, bi-biak ziren europar arraza, ordea, arraza zuria:

Gure odola moldatu duten gaiki antropologikoak oro europar enda-aindi zuriarenak dira: gero, ez baidateke uka euskal-kultura bat izan ere badenik,

---

402 *Ibidem*.

403 *Ibidem*.

404 Ikus, Azurmendi, J.: *Euskaldunak eta espainolak*, Elkar, Donostia.

405 Ikus, Azurmendi, J.: *Espainiaren arimaz*, Elkar, Donostia.

geure kultura hau beste Europarrenak bezelaxe, iturburu komun jakin batzuetarik dator horietatik garrantzikoena baitira Erromako kaisar-erria. Eliza ta germanismua. Beste Europarrok atzerritarrek bada dira ere guretzako, izaeraz ez zaizkigu arrotz: hek eta gu “kultur-aro” bereko gerade<sup>406</sup>.

Miranderentzat auzia ez baita, zehazki, arraza arioa:

Hala ere, beldur naiz alhor hortan ere zehazki eta jakintza gabe ari direla zeinbat aldiz, Germaniako lehen endazaleek bazalaxe (Germaniar diot, baina gehienak Frantzes edo Engalandar ziran *Aryar* zorioneko hura asmatu zutenak: H. S. Chamberlain, Gobineau, Vacher de Lapougue<sup>407</sup> ...).

Europako arraza da auzia. Eta, zentzu horretan, euskal arrazak berak ez dauka berezitasunik, europar arrazaren parte denez gero:

Ez da euskal enda berhezirik (...). Ba dira ordea euskal *giza-typu* berheziak, europar enda-handiko direnak<sup>408</sup>.

Baina, argudioaren ardatzean, europar arraza hori munduko gainerako arrazetatik bereizten da:

---

406 Mirande, J.: “Euzkadi eta Europa”, in *Miranderen lan kritikoak*, op. cit., 1985, 58.

407 Dakigunez, hirurek frogatu nahi izan zuten ipar-arraza germanikoen balio garaiaogo, alegia, fisiko, adimen eta moral nagusitasuna.

408 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, op. cit., 108.

Kultur-aro hortatik landa ditugu egiazko, ots, Afrika, Asia ta Ameriketako kolorezko jendeak<sup>409</sup>...

Konstatazio antropologiko huts bat baino gehiago da, ordea. Beste arrazekiko begirunerik ez du Mirandek:

... eta arrotz hoik ere maitatu ta anaitzat eduki bear ditugula ba diñosku ethikak edo erlijinoak, delako maitasun hori izaerazgaindikoa da; bañan hemen politikaz mintzo naiz, ez thelogiaz<sup>410</sup>.

### **Arraza zuria arriskuan**

Mirandek, Spengler, Nietzsche eta miretsi zituen beste filosofoei ikasi zien, gainera, arraza zuri hori arriskuan dagoela. Beltzak eta Horiak ari dira, Miranderen ustez ere, Europa gainbeheratzen. Arrisku hori, arrisku hori borrokatu beharra adierazi nahi omen zuen Nietzschek berak Europar izateko deia egin zuenean<sup>411</sup>.

Arraza zuria zaintzea eta araztea izan beharko litzateke, hain zuzen, euskaldunon zeregina, Europar arrazakoak diren gainerako herriena bezalaxe:

Argiki endazale izaitea, Euskaldun batentzat, europar gizere du hoik arthoski begiratzean datza beraz (ez bakharrik Euskaldun batentzat, baizik Doixtar, Engelandar, Bretoin, Frantzes, Espainol batentzat ere), europar ez den odoletik bazter atxikiz, gure

---

409 *Ibidem*.

410 *Ibidem*.

411 Mirande, J.: "Kultura eta folklorea", in *Miranderen lan kritikoak*, op. cit., 82.

arbasoek zegiten araura, beren Judu, Mairu eta Jitoen aurkhako legegintzatik ageri denez<sup>412</sup>.

Mirandek *Euskaldun gudu-zalduntza baten beharrkiaz* izeneko artikulu batean esplikutzen du garai bateko euskaldunen izaera miretsi hori:

Kasta-lekhorekoak eta hunki-ezinak ere zegoela ezagutu beharr da: h.n. Gaskoinak, Jitoak, Juduak, Agotak e.a. Hauien aurkha negurri gogorrek erabaki ohi zituen lege-emaileak (...). Erraiterako, Nafarroan sarr zedin Jito edo Buhameari legeak ehun zigorrada eman lekion manatzen zuen; eta Bizkaiako Juduez... Gaztelako regeari gaindeithu beharr ukhan zerakoten Euskalherrian egon ahal izaitekotz<sup>413</sup>.

Horregatik gaitzesten zuen Mirandek, hain zuzen, bere garaiko abertzaletasuna, behar bezala begiratzen ez ziolako arrazari:

Gaurko abertzaleak ordea, coloured people guztien adiskide minenak ditugu, Frantziako edo Engalanda-ko demokrata hoberenen gisako<sup>414</sup>...

---

412 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, op. cit., 108.

413 Mirande, J.: "Euskaldun gudu-zalduntza baten beharrkiaz", in *Miranderen lan kritikoak*, op. cit., 20.

414 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, op. cit., 108.

## **Etnia eta hizkuntza**

Zerk egiten gaitu, baina, euskaldun? Miranderen antropologia politikoak, arrazari ezereen gaitetik begiratzen ziolarik, odola jartzen zuen aurre-aurretik:

Gero Euskaldunak oro alkartzen gaituzten lokarriak: odola, izkuntza, oiturak, ots, erri berezi bat egiten gaituzten elementu guztiak<sup>415</sup>.

Beste aipamen baten arabera, hiru dira, Miranderen ustez, euskal naziotasunaren oinarriak, hurrenez hurren: odola, hizkuntza eta nahia, izateko nahia, alegia<sup>416</sup>. Odola, lehenik, eta hizkuntza, bigarren. Lehentasun berbera da batean eta bestean.

Odola, batean, eta etnia, hurrena. Mirandek hizkuntzari eskaintzen zion garrantzia ukazina da, noski. Halere, hizkuntza baino lehenagokoa da etnia Miranderen iritziz:

Hala ere, ez genuke ahantzi behar hizkuntza ez dela oro, baizik gure ethniaren ezagugarri soil bat (ezagugarri handiena, nahi dut) eta etnia dugula salbatu behar oroz lehen<sup>417</sup>.

Argiago adieraztearren:

Nik ere, euskera goian ipintzen dut, Euskaldungoaren bereizgarrietan nabariena baita. Ala ere, izkera baino enda dala gauza nagusia uste dut: euskera gabeko Euskaldunik ez dut asmatzen, jakina, euskera

---

415 Mirande, J.: "Euzkadi eta Europa", in *Miranderen lan kritikoak*, op. cit., 58.

416 Mirande, J.: "Liburu lizunetaz", in *Miranderen lan kritikoak*, op. cit., 38.

417 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, op. cit., 107.



uzteak Euskaldunak endakabidean jartzen dituelako (...)<sup>418</sup>.

Baina euskarak ez gaitu egiten euskaldun. Euskararen jabe (*euskara-dun*) izateak ez du segurtatzen odola edo etnia. Izan ere, euskara ikasita ere, beste arrazako bat ez litzateke bete-betean euskaldun garbia izango, ez litzateke euskaldun izango odolez:

Alaz ere, maketoez edo gaskoinek euskeraz ikasiko balute ere, odolez eta gogoz aiotz genituke beti<sup>419</sup>.

Aurkako jarrera batetik etorriko da, hain zuzen, Txillardegiren nazionalismo etno-linguistikoa<sup>420</sup>. Euskarak egiten gaitu euskaldun. Euskara da gure aberri libre bakarra, esango du, geroago, Sarrionandiak.

Euskalduntasunaren egituretan aipatu zaigun hirugarren oinarria, nahia, nahikundea, herri izateko borondatea Schopenhauerri eta Nietzscheri ikasiko zien, noski. Oso modernoa da gure artean. Arrazazko nagusitasunarena neutralizaturik, beste perspektiba bat eskaintzen die filosofo kontserbakorren proposamenei.

### **Euskal arraza garbitu**

Etorkizunean, balizko Gobernu aske batek aintzat hartu beharko luke arrazaren nagusitasun hori:

Eta, iñoz aske izaten bagera, gure aberrian kokatu diran semita-khamitar Espainolak eta beste *beltzak*,

---

418 *Ibidem.*, 114-115.

419 *Ibidem.*, 115.

420 Txillardegi: *Euskal Herria helburu*, Elkar, Donostia.

edo oilduko, edo beko gizamail batean atxikiko dituela Euskadiko etorkizun jaurlaritzak, itxaropen daukat<sup>421</sup>.

Alegia, garai bateko odol-garbitasuna berreskuratu beharko luke Euskal Herriak:

Ikhusgune hortarik, irudi zait euskaldungoa gaizki maskarotu dutela azken mende-erdi hontan haren sendotu nahian zihardutenek. Euskalherriaren edes-tiaren istudiatzen ari naiz, eta Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Zuberoa, e.a., Arte Mendeetan eta gero ere, nolako zaldun-herriak izan diren, eta orain nolako jende-ttipi herriak bihurtzen ari diren, dakhusadalarik, erorbidetik gaindi bethi ere bagoatzala segur zait, zer nahi euskaltzale izanik ere egungo egunetan. Hots, geroago eta sinestenago dut lehenagoko jaun-kontzeptuak hartzara lakhet erazi behar ditugula gure herrian, Euskaldunak (odol-garbiko direnak) berriz ere aitoren seme izan ditezan<sup>422</sup>.

Etnia zaindu behar hori ezinbestekoa da Euskal Herria dagoen egoera kritikotik irten arazteko:

Areago da ordea, geure ethniaren osotartzuna ere galurhen baitago, euskaldun elemendu garbien herr-bertzeatzea eta bertze endako, guretzat onura gutiko elemenduez haien ordezkatzeari dela kausa. Atzerriarrekiko ezkontzek mestizen problema

---

421 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, op. cit., 115.

422 *Ibidem.*, 107.

aurkhezten deraukute, behin askatu beharrko duguna<sup>423</sup>.

Hain zuzen, proposatu duen gudu-zalduntza horren arduretako bat izango litzateke odol-garbitasuna zaintzea:

Bidenabarr euskaldunon-odolgarbitarzunaren begiratzeko ardura luke zalduntza horrek: horrtarakotz, blasoin eta bertze emblema jeraldikoen harrtzara erabiltea on genduke behar bada<sup>424</sup>.

Idea hori gogoan balebil bezala, euskaldunen eta alemanen arteko ezkontzei buruzko xehetasunak eskatzen dizkio Ibiñagabeitiari<sup>425</sup>.

Euskadi Handiaren proiektua proposatzen duenean ere, zailtasunak ikusten ditu edozein arraza euskalduntzat hartzeko:

Baina, nire aburuz, ezin onart dezakegu edozein jende edo enda Euskaldun bezala. Anthopologiaren ikusgunetik ikertu bear ditugu, beraz... *Euskadi andiko* etorkizun lurraldeok<sup>426</sup>.

## **Euskal Herria arrazista bat Ertaroan**

Nafar Estatuaren ardatzaren inguruan antolatu zen Euskal Herria burujabe historikoa dauka Mirandek eredutzat,

---

423 Mirande, J.: "Euskaldun gudu-zalduntza baten beharrkiaz", in *Miranderen lan kritikoak*, op. cit., 22.

424 *Ibidem.*, 23.

425 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak* (1948-1972), op. cit., 59.

426 *Ibidem.*, 65.

modu naturalean beste arrazak baztertzen zituen, ares-tian ekarri dugun aipu batean adierazten duenez:

Kasta-lekhorekoak eta hunki-ezinak ere zegoela ezagutu beharr da: h.n. Gaskoinak, Jitoak, Juduak, Agotak e.a. Hauien aurkha negurri gogorrak erabaki ohi zituen lege-emaileak (...). Erraiterako, Nafarroan sarr zedin Jito edo Buhameari legeak ehun zigorrada eman lekion manatzen zuen; eta Bizkai-ko Juduez... Gaztelako regeari gaindeithu beharr ukhan zerakoten Euskalherrian egon ahal izaitekotz<sup>427</sup>.

Folklorearen ikerketak ere arrazakeria horixe baieztatzen du:

Folklorearen ikhertzeak odolgarbitarzuneko hau-ziei garrantzi handia zemaietela agerrtzen du; odol-garbitarzun horren erakhustekotz mazmarroak (sic), h.d. atharigainean ibenitako blasoinak zerabil-tzatela<sup>428</sup>.

## **Antisemitismoa**

Gaitzesgarriak ziren beste arrazen artean, juduen arraza zen gaitzesgarrien. Europar arrazaren gainbehera ekarri zuelako, hain zuzen, juduek higuina sortzen diotela aitortzen du Mirandek, gorroto dituela juduak, demokratak eta franc-

---

427 Mirande, J.: "Euskaldun gudu-zalduntza baten beharrkiaz", in *Miranderen lan kritikoak*, op. cit., 20.

428 *Ibidem.*, 21.

masoiak bezainbat<sup>429</sup>. Ahaleginak egin arren, ez da inoiz ongi konponduko juduzale batekin<sup>430</sup>. Euskal alderdi politikoetan nabaritzen duen *semitophilia* ere gogor salatzen du<sup>431</sup>.

Caracaseko *Eman* aldizkarian Israelen gorazarrezko artikulua bat irakurri du, gogo txarrez:

Bañan ISRAELdarren goratarrez egindako artikulua, ez dakit nork egin, ez zitzaidan ainbat gustatu, susmoa dukezun bezela: emen naiz, ez bakarrik ni eta nire gogaideak, baina frantzes eskubitar edo ezkertar asko, nazkaturik gaude Israelen alde egin dan lotsa —ta neurri bako propaganda gatik, Sortalde-Urbileko guduketaren garaian— naiz agintedun egintza geienak, eskubitar zein ezkertar, judu maitagarrien alde agertu ziran... bañan ba dirade euskaldunen artean juduzalekeria ezin sendatuzko eritasuna egin dala azkeneko urteotan!<sup>432</sup>

Zentzu batean, horregatik bakarrik aitortzen du juduak miresten dituela, hain zuzen, beren aberriaren alde biolentzia erabiltzen jakin dutenean:

Damu dut, ez bai'naiz Judua jai; oriek behintzat gai izan dira beren Endarentzat gudukatzeko<sup>433</sup>.

---

429 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, op. cit., 84.

430 *Ibidem.*, 85.

431 *Ibidem.*, 116.

432 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, op. cit., 245.

433 *Ibidem.*, 39.

Paradoxikoki, ezagutzen zuen juduen kultura. Areago, juduen kultura interes biziz aztertu zuen. Israelgo folklorea eta literatura ezagutzen zituen:

Israelgo folklorea gustatzen zait; poeta hebreutar -berriak atseginekin irakurtzen ditut<sup>434</sup>.

Hebraieraz ere mintzo zen, hizkuntza hori erabili baitzuen, hil baino lehen, etxean artatu zuen azken sendagilearekin:

Gauerdiko medikua judua zenak harriduraz nazi liburua eta hebreerazko franko baita hiztegi eta gramatika ikusi zituen. Gure sendagileak idazlearekin Angeliétarrek ulertzen ez zuten hebreeraz hitz egin zuen<sup>435</sup>.

Beste batean ezinezkoa zaiola adierazi badu ere, lagun juduak ere izan zituen:

Niketz, erraiterako, ba dut Juduetan adiskide on bat edo biga<sup>436</sup>.

### **Antisemitismoaren argudioak**

*Semitofobia* horren justifikazioa ere garaiko topikoz bete dator. Bere horretan arrazista den jarrera baten atzetik arraza arrazoirik edo aurreiritzirik ez dagoela argudiatzen da.

Miranderen ustez, Frantziak, eta Europak, ez dituzte juduak gorrotatzen beste arraza bat direlako. Aitzitik, bestelakoa da

---

434 *Ibidem*.

435 Angelié, Ch. eta A.; Aristorena, J.P.: "Jon Miranderen biografiaz", *op. cit.* 26.

436 Mirande, J.: "Ene artikulua baten "kritika"ren ondotik", in in *Miranderen lan kritikoak, op. cit.*, 113, 3. oharrean.

arrazoia. Osterantzean, European dabiltzan beste arraza batzuk ere berdin gorrotatu beharko lituzkete, eta ez da horrela:

Bainan Frantziako populuak ez ditu Juduak atzerri-tar direlakotz higuin; ba dira bertze arrotzak Fran-tzian: langile italiano, polonitar, espainolak, eta erres-petatuak dira; ba dira beste batzu odolaren aldetik askenazitak baino atzerritarrago direnak: Jitoak, Ar-meniarrak, eta asko ongi hartuak dira; gehiago dena, badira Judu zenbait ere, aspaldidanik Bordelen, Baio-nan eta bertze hiri batzuetan bizi ziren sepharditak, eta horiek ez dute antisemitismurik sor erazi<sup>437</sup>.

Zergatik gorroto hori, beraz, beste juduengana? Miran-dek argudio bi ekartzen ditu: batetik, nagusitu egin direla-ko Europako egitura ekonomiko eta politikoan; eta, bes-tetik, kultura arrotza direlako European. Bi-biak irakurriko dizkiegu filosofoei, noski.

Nagusitasunaren argudioa nahikoa ezaguna da:

Antisemitismu modernoa, ordea, bertzelako zerbait da: sorthu da, ez Frantzesek juduen kontra zuten aitzin-ephai baten gatik, bainan emeki-emeki, fran-tzesek ikhusi duten arau Judu jin berriak zertan ari ziren (...) Nausituz joan dira Frantziako zeregine-tan: hastekotz oikonomian; gero joan den mende erditsuan hasirik, politikan; azkenekotz, menderdi

---

437 Mirande, J.: "Ene artikulua baten "kritika"ren ondotik", in *Miranderen lan kritikoak*, op. cit., 110.

hontan eta batez ere gerlatik landa, bizi intelektua-lean ere<sup>438</sup>.

Jakina, Frantziako Gobernu errepublikanoan dabilzan politikarien atzetik, kapitalista handiak jartzen ditu Mirandek, eta hauetako gehienak juduak dira harentzat, edo, ezkontzaren bidez, juduterian sartu direnak<sup>439</sup>.

Ohiko argudio horrekin batera, ordea, arrazoi estrate- gikoak ere ekartzen ditu Mirandek, bere garaiko geoestra- tegia erabilirik. Europan bizi arren, juduek Israeli erakusten diote leialtasun osoa:

“Judu batek ez dio sekula ukho egiten Israelerat itzul- tzeko asmoari” dio ZVI LEWIN sionistak (...). Eta Israel hori, lehenago sortherri mythico bat ba zen ere, egungo egunean Estatu arrotz bat baizik ez da guretako<sup>440</sup>.

Bigarren argudioa, kultura arrotzasunarena ere irakurri diegu Nietzscheri eta gainerako filosofoei:

Juduok herri-minoritate arrotz bat dira Frantzian —bai, Europako erresuma guztietan—: ez oroz lehen arrazaren aldetik (baita german eta slavu odo- lik asko Askenazita horietan), baina bai kulturaren aldetik: Orienteko ethnia bat dira Okzidentean bizi, eta berek hala nahi izan dute iraun menderik men-

---

438 *Ibidem.*, 109.

439 Mirande, J.: “Frantzia De Gaulleren kepispean”, in *Miranderen lan kritikoak, op. cit.*, 68.

440 Mirande, J.: “Ene artikulu baten “kritika”ren ondotik”, in *Miranderen lan kritikoak, op. cit.*, 110.



de, beren leialtarzun guztia Israeli begiratzuz beren egiazko nazioneari bezala<sup>441</sup>.

Nagusitze nabarmen horretatik babesteko sortu zen Europan, beraz, antisemitismoa:

Haren ganik bere buruaren zaintzekotz sorthu du, joan den mendean, antisemitismua, eta hau mugimendu popular bat dela, ez reaktionariak, ez aberastek, ez intelektual “faxistek” sorthua, fede onezko den orok aithortu beharko du<sup>442</sup>.

### **Antisemitismo ez-alemana**

Hala balitz ere, justifikazio eskasa da, noski, Auschwitzen ostean, herri diasporiko baten aurka egin diren astakeriak ezagutu dituenarentzat. Eta Mirandek justifikazio gehiago behar ditu. Antisemitismo popular hori ez omen da juduei oldartu zaien beste antisemitismo aleman historikoa:

Ez dut ukhatuko antisemitismu popular horren aldamenean ba dela bertze bat, Alemanian batez ere bainan bai Frantzian, Inglaterran, etc., ere, Juduei oldartzen zaiena ez oikonomian edo politikan hartu duten lekhu handiegia gatik, bainan baitakusa Judue-tan (zehazkiago, desertuko Semiten mentalitatetik jaiotako ideologietan) europar izpirituen antitthesis bizia<sup>443</sup>.

---

441 Mirande, J.: “Ene artikuluko baten “kritika”ren ondotik”, in *Miranderen lan kritikoak*, op. cit., 110.

442 *Ibidem.*, 110-111.

443 *Ibidem.*, 111.

Besteak beste, Nietzschek bizkortu zuen balizko europar izpiritua aipatzen duenean, europar izpirituaren antitesia den semiten ideologia aipatzen duenean, aurreiritzi hedatu samarra darabil Mirandek. Berrirero saiatuko da, geroago, ezberdintasun hori erakusten:

Jakin behar da antisemitismuak ez duela Frantzian Alemaniako nazional-sozialisten teoriekin ezer ikhusterik; Hitler sorthu eta Nationalsozialistisches Strafrecht delakoa izkiriatu baino askoz lehen, egiazko Frantsez gehienak (...) antisemita ziran, eta nazional-sozialismua itzali ondoren ere, orain hala dira; eta hala iraunen dute, Juduek, atzerritar izaki, nehondik ere merezi ez duten toki berhezi bat Frantzian hartu nahi duten artean behintzat<sup>444</sup>.

Europaren ikuspegi ideologizatu eta aprioristiko batek itsututa bizi zen Mirande.

### **Negazionismoa**

Prosemitismoa are gutxiago ulertzen zuen. Aitzitik, errefusatu egiten zuen, indar handiz:

Bethiko leloa: norbait den gutien Judu dohaka-been karrakatzera ausartzen denean (...), berehala heien zerbitzuko prosemitak orroaka hasten dira, baizik-eta 6 (edo 4, edo 8...) milium Judu erho dituzten SS-ekilakoa dela, edo bera ere SS-etakoa. Ez

---

444 *Ibidem.*, 112.

naiz Hirugarren Reicheko antisemiten zaintzen ari hemen<sup>445</sup>.

Nazien basakeria bera ez du ukatu nahi:

Ez dut eiki erran nahi Juduei oldartu zaizkien antisemiten artean, Frantzian, Alemanian edo bertze errialdeetan, gizerhaileak eta sadikoak izan ez direla... bai eta, dudarik gabe, ohoin, mozkorti, paiderastak eta bertze biziodun guztiak ere —erresuma eta alderdi orotan bezelaxe<sup>446</sup>.

Baina, prosemitismoaren aurka, erlatibizatu egiten du, ezin erlatibiza daitekeena. Batetik, giza erahile eta sadiko batzuei egozten die holokaustoa, eta ez antisemitismoari; bestetik, genoziden kolektiboa nazioartean hedatzen dela segurtatzen du, *erresuma eta alderdi orotan bezelaxe*. Ukatzten ez dituen basakerien zenbakiak erlatibizatzeke, beste basakeria batzuen zifrak eskaintzen dituenean, halaber:

1930n urthean inguru, komunistek 6 edo 7 milium laborari erho zituzten Ukrainian —hala diote behintzat herbertzekatuek (ikhus La Nation Géorgienne, 1961-ko eta 1962-ko urtharrilako numeroak)— eta halarik ere jendertik askotto, erran delako Europa librean, bai eta Euskalherrian ere, komunistak edo komunisten bide-lagun dira, kontzientziarik hoberenean; Albitarren kontrako gurutzadan, katolikoek milium bat “heiretiko” erre edo sarraskitu omen zituzten (ikhus

---

445 *Ibidem.*, 111-112.

446 *Ibidem.*, 112.

Albigeois eta Cathares, F. Niel) eta horrengatik ere Euskaldunik gehienak katoliko fededun egon dira; joan den mendearen erditsuan, Ingelesek 8 miliunetik 4 miliunerat ahal erazi zuten Irlandaren nombrea hauk fedez eta ethniaz bertzelako zirelakotz, gosez hiltzera utziz, fusilatuz edo urkhatuz, eta herbertzera joaitera bortxatuz —eta zifra huni, bereren, fidatzenago ahal zaio— halaz eta guztiz ere protestante anglo-saxonek uste dute zuzena ba dutela mundu guztiaren beren giristinotasunerat behartzekotz<sup>447</sup>.

Absolutuki arrazoirik ez zaio falta Miranderi. Russel eta Sartrekin batera, sistema komunistak eragin zuen basakeriak batere kritikarik ez zuela sorrarazi-eta, Txillardegi bera goraki mintzatu zen garai batean<sup>448</sup>.

Baina, erlatiboki, zifra batek ezin du beste bat indargabetu. Basakeria, basakeria da, edozeren gainetik.

Gainera, zifra horiek eskaintzen dituenean, nazien artean ohikoa zen propaganda-estiloa ari da erreplikatzten. Juduei eskaintzen zitzaian tratu latzagatik Alemania erasotzen zutenean, isilik geratu ezinik, Goebelsek erlatibotasuna erabili ohi zuen: ingelesek Indian eta Ekialde Hurbilean buruturiko basatikeriak aireratzen zituen<sup>449</sup>, edo sobietarren balizko kanibalismoa<sup>450</sup>.

---

447 *Ibidem.*, I 13, 4. oharrean.

448 Txillardegi: *Euskal Herria helburu*, Elkar, Donostia.

449 DOOB, L.W.: "Goebbels y sus principios propagandísticos", in MORAGAS, M., *Sociología de la comunicación de masas*, GG MassMedia, Bartzelona, 1986, III, 138.

450 *Ibidem.*, 139.

Maila lokalean, Euskal Herriaren egoera aipatzen duenean ere neurririk gabeko konparazioak egiten ditu, konparazio zaurgarriak: bere obra eta ideiak argitaratzeko askatasunik ez duela aurkitu salatzeko, Hitler-en erregimenean askatasun handiagoa zegoela adierazten du:

Mintzatzeko libertate gehiago ba zegoen Hitler'en Alemanian gure errian baño; eta dena dela orduan beren errian debekatuta zeuden aleman idazleek erbestean idatz zezaketen (Mann, Freud eta beste askok egin zuten bezela)<sup>451</sup>.

Zentzu horretan, aldizkari baterako eskatu dion artikululu bat dela eta, Hitlerrez gogorregi mintzo dela salatzen dio Peilleni:

3- eta 4-garren orrialdeak interesantenak dira, ederki erakusten baituzu zen den europear eta semita ispirituen arteko diferentzia. Halaz ere, zure azken parrafoa gogorregi iruditu zaik Hitler-en kontra; etsai gehiegi baititu gaixo Führer horrek, bai eta faxisten artean ere. Ez zait iruditu zuzen denik hari kontra baizik ez ari-tzea, eta horrengatik haren izena khendu dut, eta zure textua generalago bihurtu dut. Baina, jakina, nahi duzun bezala egizu<sup>452</sup>.

Peillenek berak esplikatzen du, artikululu horren karietara, nola haserretu zen Miranderekin:

---

451 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, op. cit., 162.

452 *Ibidem.*, 173.

Elkarren arteko lauzpabost urteren hotzaldia izan genuen, idatzi zidanean zoritxarrez ez nintzela ez faxista ez nazi, eta uste zuela ez nintzela demokrata, baita azkenik Hitler gogorki kritikatu nuelako eskatu zidan artikulua zentsuratu nahi izan zidalako: ez nituen ez artikulua, ez aldizkaria behin ere ikusi. Bere politika aburu mota hori zela-eta gai zen kontraesanetan eta zentzugabekerietan sartzeko<sup>453</sup>.

Baina, arrazaren kontzeptua ezezik, Mirandek jarrera antimodernista partekatu zuen faxismoarekin eta erreazio kontserbakorra ahalbidetu zuten filosofoekin. Gizarte burgesa, mendebaldeko demokrazia, parlamentarismoa, marxismoa, alderdi politikoen sistema, materialismoa, emakumeen askapena, moral judu-kristaua..., den-dena zaio aizun eta gorrotagarri. Eta, zibilizazio gainbeheratu horren aurka, bortizkeriaren argudioa ere badarabil.

### **Gizartea etsai**

Ibiñagabeitiari jarri zion eskutitz baten amaieran, beregan ezohikoa den autodefinizioa darabil Mirandek, agurrik aberzale eta *gizartezaleenak* igortzen baitizkio adiskideari<sup>454</sup>.

Salbuespena izango da gizartezaleetasun hori. Beste askotan agertzen baitu bere gizarteratze ezina:

Egiaz, sentimendu hau bakarra dut nigan sendi: gorrotoa, gizarte eta gizaki guzien eretzean —gizabide, aberri,

---

453 Peillen, Tx.: *Jon Mirande, olerkari, op. cit.*, 180.

454 Mirande, J.: *Jon Mirandereren gutunak (1948-1972), op. cit.*, 55.

algartarzun, hitz hoik ditute bethi aiphu, eta izan daitekean baino berkhoiago dira guztiak<sup>455</sup>.

Giza saldotik kanpora ikusten du bere burua eta ez du arnasarik hartzen inon:

Airea itogarria da giza-saldotik bazter egon nahi den giza gogo askearentzat<sup>456</sup>.

Frankismoaren menpean ezin du, gaullismoaren menpean ere ez. Hegoaldean, Euskaltzaindiaren Arantzazuko Biltzarrean egon denean, gogoz eta espirituz arrotz aurkitu du bere burua:

Hauxe da ene txarra, edozein gizartean arrotz aurkhitzen bainaiz<sup>457</sup>.

Balizko Euskal Herri aske batean ere, susmoa du apaiztxoek teokrazia bat antolatuko ote luketen:

Ez da ez gorrotoa ez damua, bainan bai nazka... ezin esanezko nazka bat gizonen —eta emakumeen— eta gauzen aldera... izan daitezen euskaldun ala erdaldun<sup>458</sup>.

### **Gizarte liberal-burgesari kritika**

Gizartearen ukapen absolutuaren barruan, Mirandek kritika zorrotza egingo dio gizarte liberal-burgesari. Ez du onartzen gizaki burgoiekin doitzen ez den gizarte hierar-

---

455 *Ibidem.*, 98.

456 *Ibidem.*, 154.

457 *Ibidem.*, 78.

458 *Ibidem.*, 155.

kia hori. Gorrotatu egiten du familia burgesa. Bizitza arautua erritualizatzen duen ezkontza arbuiatuko du, behin eta berriz, sinbolismo handiz.

Sasoi hartan, ezker zein eskuin, pentsamolde alternatiboan aurkitzen den topiko bat da hori. Gogoratu, zentzu horretan, Txillardegiren aurreneko hiru nobelak ezkontza-  
ren ukapenaren inguruan garatuko direla<sup>459</sup>. Baina, Schopenhauerrek bezala, gizonari jarritako xedera biologiko bat bezala hartzen du emaztea Mirandek. Irakurketa feministak arrazoi du horretan: misoginia nabarmena da bere testuetan, sadismoz eta erdeinuz darabiltza emakumeak. Beste leku batean azertu beharko dugu hori ere.

Bizitzan bertan, praxi konkretuan gizarte burgesaren etsai jokatu zuen Mirandek, Peillenek lehenago adierazi digunez:

Nietzscheren ideiek kutsaturik unibertsitate ikasketen aurka izan zen (...), horregatik eta bere erruz gure poetak lanbide hits batean, bulego batean, bizitza irabazi behar izan zuen; bestalde bi aukera izanik ezkontzeko, hautuak saihestea erabaki zuen ezkontzak idazle bati, intelektual bati, kalte egin diezaiokelako.

Jon Miranderi, aberatsen kapitalismoa, sos gosea, eta aurrezki egitea nazkagarri zitzaizkion. Halaber, garaiko gadget eroste eta kontsumerismoa, telebista, garbigailu, eta automobil izateak barregarri zitzaizkion<sup>460</sup>.

---

459 Ikus, Txillardegij: *Leturiaren egunkari ezkutua, Peru Leartzako eta Elsa Scheelen nobelak.*

460 Peillen, Tx.: *Jon Mirande, olerkari, op. cit., XXIV.*



Esan dugu, arestian: gizarte burgesarekiko kritika ez zen eskusiboki faxista. Ezkerrak, noski, existentzialismoarekin hasi, eta Frankfurteraino luza, bere egiten zuen kritika hori. Horretan arrazoi du Azurmendik. Oso gertu dago, esaterako, Miranderen bizitza-soslaitik, Txillardegik sortu zuen *Peru Leartzako* pertsonaia.

Baina, aldea nabarmena da, kritikaren bidez, Txillardegik gizartea eraldatu, gizarte burgesean balio askatzaile eta demokratikoak eragin nahi dituen bitartean, Mirandek gizarte burgesak ekarri dituen askatasun eznahikoak ere suntsitu egin nahi ditu. Aurrerabideak oro, halaber.

*Haur besoetako*a nobelan sutondotik bertatik errefusatzeko du aurrerapena protagonistak, modu nahikoa esanguratsuan:

Egurrezko suak baizik ez zituen onartzen gizonak; ez zuen nahi esan delako aurrerapenak haren etxe zaharra deusetan ere itxuraz alda eta itsus-eraz lezan<sup>461</sup>.

Nobela horretan, hain zuzen, protagonistak gizarte burgesa bera gaitzetsiko du: aberastasunaren bilakuntza, moralitatea, emaztegai aberats, eder eta ezin sentsualagoa... Baina oso atzera dago begira.

### **Ekonomia burgesari kritika**

Parisera lanera joan ziren guraso pobre batzuegandik sortu zen Mirande, pobre. Lanean hasi zenean ere, muga-muga ibili zen. Are okerrago, gurasoak zahartu zitzaizkionean:

---

461 Mirande, J.: *Haur besoetako*a, op. cit., 6.

Ama eri dut, bi hilabete iragan ditu ospitalean (...). Aitak bere lana utzi beharko du haren ardura hartzeko. Nik aldiz, beharko ditut ene irabazitik sustengatu, ez baitute, —ez baitugu— ez dihairik ez etxerik ez deus ere... (ainintz gure demokrata handiak bezain kapitalista!)<sup>462</sup>.

Halere, behar gorrian bizi arren, ez du diruaren trukean lan egin nahi. Diru-estutasunak izango ditu beti, baina bere jarrera ez da aldatuko bizitzan barrena:

Diruaren bidetik gaizki nabil egun hauietan..., egia da hori garrantzi gutxiko auzia dela gu bezelako idealistentzat<sup>463</sup>.

Euskarazko obrak argitaratzerakoan, hurrenez hurren izan dituen zentsura ugariez gogaituta, frantsesez idazten hasiko dela dionean, bazter uzten ditu helburu krematistikoak:

Ez naski dirua irabaztea gatik, diruzaletasuna beste edozein bizio baino erdeinatzenago baitut<sup>464</sup>.

## **Demokrazia liberalari kritika**

Frantziako iraultzaz geroztik, mendebaldean antolatu diren demokraziak ere ezatsegin zaizkio. Demokrazia gorrotatzen du, giza saldoentzat eskubide berdinak ekarri dituelako, burgoiak makurrekin berdindu dituelako.

---

462 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, op. cit., 127.

463 *Ibidem.*, 154.

464 *Ibidem.*, 159.

Sortu berria den *Irrintzi* aldizkariari buruz eragozpen batzuk aipatzen dizkio Mirandek Ibiñagabeitiari, horien artean, demokraziaren aldeko agertzea:

Leenik, jakiña, demokraziaren alde mintzo delako *Irrintzi* (esan gabe dijoa nik etsai dudan demokrazia ez dela Euskaldun zaarren demokrazia *naivua*, hots Euskaldun guztientzat zuzen berdiñak izatea, euskalde berezien batzar-legegilleak, e.a., baizik demokrazia internazionala, orain Frantzian, Ameriketan ta Bretaña Aundian nagusi dena)<sup>465</sup>.

Demokrazia liberala gaitzesten du, demokrazia internazionala. Ez baitu demokraziaren izena ere merezi. Demokraziarik inoiz egon bada, iraganean egon da, Erdi Aroan, Batzar legegileen Euskal Herrian, alegia.

Baina, bereziki, Europako herriak zainez gabetu dituelako gorrotatuko du demokrazia:

Demokraziak du lehen Europako herriderik indartsuena zen Frantzia zainhildu; demokraziak du Irlandaren kultura bethi buru makhur atxikitzen, nahiz herri horrek bere jabe izaitea lortu duen<sup>466</sup>.

Euskal Herrian badu kritikatu behar zehatzagorik demokrazia liberalak. Izan ere, errealitate historiko konkretuak erakutsi baitu nazio handi demokrazia-zaleek Europako Gerra irabazi ondoren Euskal Herriarentzat ez dutela askatasuna bermatu:

---

465 *Ibidem.*, 145.

466 *Ibidem.*, 102.

Azken phondu huntaz zer gertatu den ihkusi dugu. Demokraziek gudua irabazi dute, baina heietan igurikipen iarrri eta heien aldamenen gudukatu zuten euskaldunak ez dira horrengatik askeago. Aitzinetik bezala bi zathitan dagoz: batzu askatarzunaren zaindari omen dan statu baten nagusigo-pean<sup>467</sup>.

### **Antimarxista**

Demokrazia gorrotatzen duen heinean gorrotatzen du marxismoa Mirandek. Peillenek dioskunez:

Gorroto zituenak, ideologia ahulgarriak dira (...): bakezaletasuna, hain kristau den marxismu jatorra eta hain judu den kristautasuna<sup>468</sup>.

Euskal Herriari begira ere, marxismoak ez zuen ekarriko hobekuntza handiegirik:

Marxismoak, internazionalismoa eta antzeko ismiek on gutxi dakarkio Euskal Herriari<sup>469</sup>.

Ibiñagabeitiari baimena ematen dio bere edozein lan edonon argitaratzeko, salbuespen batekin:

Non ez den komunist edo ezkertiarren aldizkarietan<sup>470</sup>.

---

467 Mirande, J.: "Euskaldun gudu-zalduntza baten beharrkiaz", in *Miranderen lan kritikoak*, op. Cit., 19.

468 Peillen, Tx.: *Jon Mirande-ren idazlan hautatuak*, op. cit., 24.

469 Mirande, J.: "Euskaldun gudu-zalduntza baten beharrkiaz", in *Miranderen lan kritikoak*, op. cit., 22.

470 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, op. cit., 128.

Euskal Herrian marxismoa indartzen hasi izanak haserrearazi egiten zuen:

Baina marxi-modak Eskal herrian sartu bezain laster, herrian egoiteak minberakor, sentikor eta haserre-korrako bihurtzen ziren<sup>471</sup>.

Marxismoaren baitan dogmatikotasuna besterik ez zuten ikusten:

Euskaldunekin berriz, disgustua eduki zuten, kristau dogmakeriatik marxista dogmakeriarat erortzen ikustean, beren ideologia bat pentsatzera saiatu gabe<sup>472</sup>.

Kritika berbera egin zuten Txillardegik, sistematikoki, saiakeretan bezala literaturan, nahiz eta abiaburu oso ezberdinak izan: Russell eta Sartre. Txillardegik lortu zuten, besteak beste, ideologia propio bat garatzea.

### **Alderdi politiko demokristauei kritika**

Frantziar hauteskundeak irabazi dituen MRP alderdi demokrata-kristauei buruz, arbuioa adieraziko du, hurrengo honetan: *Lertuko âl balira emmerpés madarikatuok*; eta, *The devil fuck them!*; eta, *Les emmerpés au poteau! M. R. P'koak urkamendira!*<sup>473</sup>.

Euskal Herrira etorriz, Mirandek behin eta berriro egiten duen bidaia sistematiko horretan, EAJ-k darama onar-

---

471 Peillen, Tx.: *Jon Mirandere idazlan hautatuak, op. cit.*, 26-27.

472 *Ibidem.*, 24.

473 Mirande, J.: *Jon Mirandere gutunak (1948-1972), op. cit.*, 36.

tezina zaion demokrazia-kristau modernoaren ordezkari-tza:

Ni kontzeptzio horretatik urrun samar naizela ba dakizu —ez Jeltzaleak jainkozale direlaketz, ez bait naiz Elizaren etsai zer nahi dudan ere haren herri-ketako jokaeraren aurka— baina bai demokrata ez naizelaketz<sup>474</sup>.

Jeltzaleekin inoiz sendatu ezingo duen ikusiezina izango da hori:

Euskaldun demo-khistianarrok nehoiz baino ok-egine-razgarriago zaizkit, eta hizkuntzaz bertze, deus ez dut heiekin komun denik<sup>475</sup>.

### **Alderdi politiko geldikorrak**

Baina, gainerako euskal alderdi politikoak ez zituen ikusi gozoago. Euskal klase politiko guztia errefusatzen du, lbiñagabeitiari igortzen dion eskutitz batean:

Dakizun bezala, nor nahi bezain euskaltzale eta euskal-enda-zale naiz ni, baina euskal-politikarien kontzeptuak (ezkertiarckeria, semitophilia, *democracia cristiana*, e.a., hots, ez euskal-nazionalismua) neholaz ere ez ditut nire gain hartu<sup>476</sup>.

Alderdi politikoek ezin dute garatu eta azkartu euskal abertzaletasuna. Hain aitormen garratzak egin dizkiolako,

---

474 *Ibidem*, 125.

475 *Ibidem*., 95.

476 *Ibidem*, 116.

nonbait, adiskide minak begiruneren bat eskatzen dionean, berriz, *politikero* deitzen ditu guztiak:

Nik, ordea, ez nedukake zure equanimitatea politikero horiekin har emanetan aritzeko: bihotza mingartuegia dadukat demokrata hitzontzien kontra, heien ganik goitzarren (persegimendu) eta joku tzar gehiegi jasan behar izan bait ditut herri honetan<sup>477</sup>.

Ohiko politikariak ahoberoak besterik ez dira. Alderdi politikoen egiturak ez dauka berrikuntzak eragiteko eta gauzak aldatzeko ahalmenik.

Euskal abertzaletasunak bazeukan, ordea, non aurkitu beste eredu pragmatiko bat: Larramendi, Xaho, Arana-Goiri...; buruzagi karlistak ere aipatzen ditu. Ekintza gizonak guztiak ere. Baina eredu horiek izan arren, geroago etorri diren abertzale epelek ez dute haien irakaspenetatik ezer ikasi. Aitzitik, alderdi politiko estatiko eta geldikorrak antolatu dituzte:

Zoritxarrez, horien ondotik etorri izan direnek, beren burua horien “ikasle” bezela agertu nai dutenek —zein nai zuzenbide politikotako izan ditezen— euskal-igikunde baten ordeztu “euskal” alderdiak eskeintzen dizkigute erriaren salbaidetzat, hau da, gauza estatiko, geldikor batzu gure endaren abioa eragozten dutenak<sup>478</sup>.

---

477 *Ibidem*.

478 Mirande, J.: “Euskalduntasun romantiko baten alde”, in *Miranderen lan kritikook*, *op. cit.*, 63.

## Anti-kristaua

Ibañagabeitiari zuzendutako gutun batean, zuzen mintzatu zitzaion Mirande kristautasunak sorrarazten zion erdeinu eta herraz:

Baina zer nahi duzu, ez naiz khristarra ez izpirituz ez bihotzez, eta ezin idatz dezaket khristar araura. Lehen ere hala nintzan, dakizun bezala. Baina gainera, orain herraz eta erdeinuz betherik nago erran-delako *Khristarren* eretzera; hypokrita batzutzat darduzkat guztiz gehienak<sup>479</sup>.

Batzuetan nahiko luke halako sinesmen lasaigarri bat, barne etsipenaren sendagarri:

Ni ez naiz kristaua ez fedez ez moralez. Ez uste izan nire burua besteen gandik bereizteko kristau-fedegabea egin naizenik... naiago nuke askotan zuk bezela, baitakit kristau egiazkoa zarela, fede kontso-lagarri bat eduki, ene itzaropen-gabearen orde<sup>480</sup>.

Baina ezin du. Fedeari buruzkoa baino gehiago du auzi kulturala eta —aurreko aipuan aitortu duenez— morala kristautasunarekin. Izan ere, kultura eta moral judu-kristau hertsitari egiten dizkion kritikak baditu, sakonago, jomuga politiko jakinak. Kristautasuna, giza abere ahularen ispilu hitsa da, bere otzantasunarekin, kolpatu dizuten masailaren ondotik bigarren masaila eskaini beharrekin. Demokrazia kristaua ahulen erakundetze politikoa den hein berean, hau da, masa-saldoen neurriko sistema politikoa.

---

479 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, op. cit., 89.

480 *Ibidem*, 161.



Nietzscheren ekarpen ezagunaren haritik, demokrazia kristau xume-arazlearen aurka, gizaki grinatsua, gizaki oldarkorra jarriko du Mirandek moralaren sortzaile. Theresa haur besoetakoarentzat nahi duen Helade klasikoaren eredia da: jende gorenak (*aristos*) ezartzen baitzituen han arau moralak (*arethe*). Giza abere indartsu horren berezko adierazpentzat ikusiko du, ondorioz, biolentzia bera.

Kristautasunak gorputz sentigarria bezala arima grina-tua, bi-biak arbuiatzen baditu, bestalde, gorputz senti-garriaren beharrak asetzerara egingo du behin eta berriro Mirandek, inmoralismoa proposatuko du —batzuetan, emakume eta neskatilekiko harremanean, esaterako, modu arriskutsuan—. Arimaren izaera eta sentipena ukatu gabe, noski, gorputzaren berezko adierazpena baita giza espiri-tua. Espiritismoaz ikertuko du, arimaren zentzu paganoa berreskuratu nahi izango du —zeltak, grekoak, erromata-rrak, zinikoak eta hedonistak irakurriko ditu<sup>481</sup>—, jarrera antimaterialista nabarmenez, irrazionalismoa kontrajarri-ko dio arrazionalismoari, eta abar.

Kristautasuna erlijio arrotza da Europan, gainera, ekial-detik etorria, ekialdetik zabaldua, Europako berezko paga-nismoaren gainean ezarri dena:

Goierritar batzuek ekharri “Berri Ona” eta gero ere, paganu egon gara bethi gure izaiki-zolan, egiaz-ko Europatarrak oro diren bezela, Orienteko dok-trina bat baita Khristautarizona, hangotarrentzat egi-na<sup>482</sup>.

---

481 Peillen, Tx.: “Jon Miranderen ordeinua bere lekuan”, *op. cit.*, 12.

482 Mirande, J.: “Euskaldungoaren etsaiak”, in *Miranderen lan kritikoak*, *op. cit.*, 33.

Kristautasun eta eliza konkretua kritikatzeko arrazoi historikoak ditu Mirandek, lehen-lehenik:

Eliza maiz zirikatzen dut, egia baita askotan gaizki jokatu duela gure eldera lenengo mendeetan; baita orain ere, Ipar-Euskadin bederik<sup>483</sup>.

Ipar Euskal Herriko apaizekin, Laffiterekin, Xabañorekin, liskartuta ibili zen. Hegoaldeko Mokoroarekin, halaber. Obran bezala bizitzan, apaizek zentsuratu zuten.

### **Inmoralista**

Esan bezala, Miranderen inmoralismoa moral hertsiki jakina inposatu duen kultura judu-kristauaren aurkako jarrera argia da. Kategorien egitura judu-kristauak inposatu dituen tabu gehienak irauliko ditu goitik-behera. Ontasuna eta gaiztakeria erlatibizatuko ditu, bildostasuna arbuatu-rik, otsoaren alde agertuko da. Bortizkeria legitimatuko du, gerra.

Sexu-tabu gehienak hautsiko ditu, asebetetzeko ezintasun adierazgarri. Mendebaldeak partekatzen duen moral hipokritaren aurka, erotismo anormal eta debekatu<sup>484</sup> aldarrikatuko du, neurririk gabe, neurrigabetasun, batzuetan —pedofilia eta dominazioa nahasten dituenean, oso nabarmen—, arriskutsu batez. Masturbazioari eskainiko dio *Eder bati* izeneko poema; lesbianismoa izango da *Neskutsak* izenekoaren gaia; pederastia behin eta berriro agertuko da: *Haur besoetakoa* nobelan, *Amsterdameko oroitzapen bat*, *Larrazken gau beltz* batez eta *Jainkozalea* poemetan, hurre-

---

483 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, op. cit., 115.

484 Otaegi, L.: op. cit., 25.

nez hurren; nekrofilia: *Merry Christmas*; prostituzioa: *Hiru putattoak*<sup>485</sup>. Aipatu nobela bakarrean agertzen diren fetitxismoa eta sadismoa ere begien bistakoak dira<sup>486</sup>.

Gaiztoen artean gaizto, Sade euskarara itzultzea aholkatzzen du, Peilleni luzatzen dion gogoeta batean:

Pentsatu nuen behar gendukeala bion artean Sade-ren idazkiren bat euskeratu, kontra-pisu egiteko, adibidez *Sodomako ehun eta hogoi egunaldiak* (frantsesez eta beharbada edozein hizkuntzaz sekula idatzi izan den gauzarik zikinena)<sup>487</sup>.

### **Irrazionalismoa**

Azurmendik ohartarazi digunez, arrazionalismoaren kritika partekatzen zuen Mirandek tradizio filosofiko luze batekin: Pascal, Hume, Rousseau, Schopenhauer, Nietzsche, Spengler<sup>488</sup>... Adimen orojakileari egiten dio uko, muga estuegiak, ezintasun handiak baititu beronek:

Adimenari uko eginda, ametsetan ari naizela esango dute noski abertzale realistek, edo izen egokia batekin deitzeko, razionalistek, beren ideologia XVIIgn mendeko frantziar “pilosopu” engandik bildu dutenak<sup>489</sup>.

---

485 Peillen, Tx.: *Jon Mirande-ren idazlan hautatuak*, op. cit., 17.

486 Uribe, K.: “Haur besoetakoa-ren imaginarioa. Lehen hurbilpen bat”, UZTARO, 24, Bilbo, 1998, 83-84, 85.

487 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, op. cit., 182.

488 Azurmendi, J.: *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan*, op. cit., 39.

489 Mirande, J.: “Euskalduntasun romantiko baten alde”, in *Miranderen lan kritikoak*, op. cit., 63.

Frantziar filosofoek hasi zuten proiektu ilustratu eta positibista hori bizitza zikiratzeko ahalegina da. Bat egiten du Mirandek Iraultza kontsebakorrarekin.

Jakintza intuitiboa eta mistikoa aldarrikatzen du, arrazionalismo estuaren aurka. Novalis, Alemaniako poeta erromantiko handiaren hitzak darabiltza Mirandek, jakintza hori zer den adierazi nahi duenean:

Adimena, oldozmena “somatze itzali bat da soilki, bizi auldu, marguldu bat”<sup>490</sup>.

Ideologia arrazionalista horretatik askatu behar du euskal herritarrak ere:

Ba da ordua gure ideologiaren iturburuak razionalismo estu hortatik kanpoan billa ditzagun, gure Erriari buruz amets aundiak egitera ausar gaitzean, itz batez, bada ordu razionalista adimentzale izateko orde romantiko izan gaitzean<sup>491</sup>.

## **Espiritualtasuna**

Materialistek ez bezala, materialisten aurka, espirituan sinesten du Mirandek:

Ezen nik sinesten dut ispirituan, ariman, ots, psykhismuan<sup>492</sup>.

Arimaren izaera frogatzeko, gertakari esoterikoak bil-tzen eta aztertzen ibili zen garai batean.

---

490 *Ibidem.*, 64.

491 *Ibidem.*, 63.

492 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, op. cit., 161.

Zein espiritu da, ordea, Miranderena?

Psikismoaren izaera arketipikoaz —beraz, kulturalaz— mintzo zaigu, hain zuzen, parapsikologiak ari den batean:

Halako kasuak biltzen ditut oraino ere, nahiz ez naizen parapsykhologiak lehen bezainbertze arduratzen. Interesantena lizate basajau, lamiña edo gizontso bat bathu lukeen norbait aurkhitzea (ez dezazula othoi uste ukhan burutik egina naizela, eta izaki horietan sinhesten dudala kristauek ainguruetan sinhesten duten bezain naivoki; bainan gure psykhearen *Archetypen* dira, eta ikhugune hortatik, izate piska bat emaiten ahal zaie)<sup>493</sup>.

Esoterismoaz bainoago, kristauen teleologismoaz harago, kultur egitura arketipiko batean pentsatzen zuen Mirandek, herri-sinesmenak, ohiturak, mundu-ikuspegia, ipuinak..., basajaunak, lamiak, gizontsoak..., zeuzkan gogoan.

### **Galdutako iraganaren nostalgia**

Arketipo horren peskizan, Europa modernoak galdu duen iraganari begiratzen dio etenik gabe Mirandek, nostalgia sendaezin batez. Ustez, gainbehera zetorren Europarentzat, Greziako eta Erromako humanismoa berreskuratu nahiko luke. *Haur besoetakoa* nobelan, esaterako, klasizismoan hezi nahi du, esanguratsuki, greziar izena daraman neskatile. Peillenen hitzekin adierazita:

Frantses erakaskuntza ergelaren kritika zorrotza egin ondoren etxean eduki nahi du Theresa Grezia-

---

493 *Ibidem.*, 179.

ko eta Erromako pentsalari garratzen ikasketan eta gero bidaien bidez beste kultura ezagutu dezan<sup>494</sup>.

Autore klasikoak irakurrarazi ez ezik, bertatik bertara erakutsi nahi dizkio Greziako kulturak utzi dizkigun ondareak:

Nahi zuen Theresa berarekin eraman (...) Aintzinako uriak eta erriak ikuskatzen zituztelarik, museoetan edo harri zaharren artean Theresa seriosa, oroitzapen eta antze-lanei begira, hark eman zizkion azalpenei beha<sup>495</sup>...

Urrats bat harago doa Peillen: espiritu klasiko hori atxiki nahi zuen Euskal Herriarentzat ere, neurri batean, Theresaren heziketa Euskal Herriaren heziketa bilakatzen baitu jolas sinboliko batez<sup>496</sup>.

### **Zeltak eta Ipar Europako kultura zaharrak**

Mediterraneoko kultura klasikoen gainetik, agian, ipar Europako kultura pagano zaharretan ikusten zuen Mirandek Europaren benetako izaera. Theresa Greziara eramango ez badu ere, iparraldera joango dira elkarrekin, ikasketa eta inimiziazko bidaia batean:

Ala ametsaren iratzartzaile den Ifarralderantz ziren ote joanen, bere urratsak oihan sakonetan barrura ezkutatzera, edo-ta, itsas-nesken dantza-leku izan-

---

494 Peillen, Tx.: "Jon Miranderen ordeinua bere lekuan", *op. cit.*, 24.

495 Mirande, J.: *Haur besoetakoa*, Kriseilu, Donostia, 1970, 73-74.

496 Peillen, Tx.: "Jon Miranderen ordeinua bere lekuan", *op. cit.*, 24.

dako arkaitzetan eserita, uhinen eta bere bihotzen musika uzuari entzutera?<sup>497</sup>

Lehenago ere aztertu da ongi nobela honetan behin eta berriro erdietsi nahi den Gazteen Lurra, zelten *Tir na Nóc* delakoa besterik ez dela<sup>498</sup>.

Iniziazio bidaia hori, ordea, burutu ezina da: modu tragiko batean, Theresa haurra hilarazi eta bere burua bota ostean baino ez dira biak iritsiko Gazteen Lurrera. Baina ezkortasun estruktural hori ezinbestekoa du gizabanako burgoi eta heroikoak.

### **Erromantikotasuna**

Iraganak sorrarazten zion nostalgia hori sentipen eta estetika erromantikoarekin adosten da, dakigunez:

Erromantikoek bezala, iraganaren herrimina sentitzen zuen, noizbait munduak izaniko batasun galdu haren lilura eta nostalgia, hartara itzultzeko irrika bizia. Hortik bada, aintzinako kultura zeltiko eta euskaldunarekiko zaletasuna<sup>499</sup>.

Musika erromantikoa gustatzen zitzaion Miranderi. Errusiar eta aleman erromantikoak, batez ere<sup>500</sup>. *Haur besoetakoa* nobelan, Schubert eta Beethoven entzuten ditu narratzaileak<sup>501</sup>.

---

497 Mirande, J.: *Haur besoetakoa*, *op. cit.*, 74.

498 Peillen, Tx.: "Jon Miranderen ordeinua bere lekuan", *op. cit.*, 26-29; Azurmendi, J.: *Mirande eta kristautasuna*, *op. cit.*, 153-160.

499 Otaegi, L.: *op. cit.*, 11.

500 Peillen, Tx.: "Jon Miranderen ordeinua bere lekuan", *op. cit.*, 24.

501 Mirande, J.: *Haur besoetakoa*, *op. cit.*, 53, 111, 75.

Etxean bildu zuen diskotekaren azterketak erakusten du melomano amorratua zela: Beethoven, Bach, Schubert, Maler, Mozart, Vivaldi, Wagner, Off...; gregorianoa; herri-musika: euskal musika, musika zelta...; herri kantariak; musikari buruzko liburutegitxoak ere bazeukan<sup>502</sup>.

Irakurri zituen filosofoengan ere aurki daiteke musika-zaletasun honen inguruabar teorikoa. Musika borondatea bera da Schopenhauerrentzat, gertakari baten berezkotasuna, alegia<sup>503</sup>. Nietzscheren ustez, halaber, borondatearen edo nahimenaren hizkera da musika<sup>504</sup>.

Literaturan ere, *Sturm und drag* zeritzon mugimendua-ren goiburuak bereganatu zituen:

Indibiduo burgesari erabat kontrajartzen zitzaion izpiritu aristokratiko erromantikoa bereganatu zuen, eta gizonaren inozentzia aldarrikatzen zuen ozenki, hezkuntzaren eta zibilizazio mendebaldararren eraginak gizakiaren berezko izaera gaiztotzen zuela salatuz<sup>505</sup>.

Erromantikotasun horretan mistika oso bat aurkitu zuen Mirandek, mundua interpretatzeko hermeneutika oso bat, alegia:

Romantikoa mystikazale da: mystikaren bidez eltzen da mundu irudikor honen atzean den egiazko Izaera-  
raño, ots, Arimaraño, eta hartan indar arturik berriz

---

502 Angelié, Ch.; A. Angelié; J.P. Aristorena: *op. cit.*, 29.

503 Schopenhauer, A.: *El amor, las mujeres y la muerte*, *op. cit.*, 150.

504 Nietzsche, F.: *La genealogía de la moral*, *op. cit.*, 120.

505 Otaegi, L.: *op. cit.*, 10-11.



ere inguratzen da munduari buruz, baiñan ez geiago haren jopu, baizik haren nausi bezela, ta mundua moldaberritzen du bere ametsaren araura<sup>506</sup>.

### **Erromantizismoa Euskal Herriarentzat**

Pio Baroja miresten du zuberotarrak, eleberri idazle handia delako<sup>507</sup>. Baina, batez ere, euskal erromantikotasuna doi-doi adierazten jakin duelako, Xanti Andiairen bidez, esaterako:

Euskal psykologiaren aspekturik egiazkoen ta ohoragarriena baitarakusku Xantik liburu ortan, esan nai dut, euskal romantizismua, ez A. Chahok asmatu zuen gezurrezko romantikotasuna, XIXgarren mendeko frantzes idazleen laneginaren iñakin bat baizik ez dena, baiñan gure enda urduriaren betiko ezaugarria ta señailea izan den romantizismua<sup>508</sup>.

Germaniarren *Thorr* jainkoa eta euskaldunon *Ortzi* uzartzen dituen Altzateko Jauna ere oso begiko du<sup>509</sup>.

Eta espiritu erromantiko hori, izaera oldartu hori, Euskal Herrira ekarri nahi zuen, tradizio arrazionalista albo-ratu, eta gara zedin, politikoki otzanduta antzematen zuen herrian, ekimen berri bat, lehenago ere ekarri dugun aipuan eskatzen duenez:

---

506 Mirande, J.: "Euskalduntasun romantiko baten alde", in *Miranderen lan kritikook*, op. cit., 63.

507 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, op. cit., 139.

508 *Ibidem.*, 149.

509 Mirande, J.: "Sorginen jainkoak", in Peillen, Tx.: *Jon Mirande-ren idazlan hautatuak*, op. cit., 256.

Ba da ordua gure ideologiaren iturburuak razionalismo estu hortatik kanpoan billa ditzagun, gure Erriari buruz amets aundiak egitera ausar gaitezan, itz batez, bada ordu razionalista adimentzale izateko orde romantiko izan gaitezan<sup>510</sup>.

Euskal erromantiko izan zirenen adibideak ere jartzen ditu Mirandek:

Aita Larramendi, Agostin Chao, lenengo gudu-buru-zagi karlistak, Arana-Goiri ta beste bakan zenbait<sup>511</sup>.

Zentzu horretan, Miranderen eraginaren artean sinbolista frantsesak jarri direnean, Baudelaire, Mallarmé, Verlaine, Rimbaud<sup>512</sup>..., Peillenek ukatu egin du haien benetako garrantzia, euskal erromantizismo baten asmoa azpimarratuz:

Paristarra zelako, olerkaria euskarazko frantses idazlea egin nahi izan dute, baina aipamen bat edo beste kanpo, sinbolisten eta Verlaineren, Baudelairen eragina ez da batere argi, gainera berak artikulatu bat idatzi zuen euskal erromantismo tragiko baten alde<sup>513</sup>.

Sinbolisten eraginaren ginetik, Zuberoako olerki eta pastoralen eragina lehenetsi digu Peillenek:

Mirande, paristar eta frantses idazle dela diotenean gaineratzen dute Verlaineri hartu diola J. Mirandek

---

510 Mirande, J.: "Euskalduntasun romantiko baten alde", in *Miranderen lan kritikoak*, op. cit., 63.

511 *Ibidem*.

512 Ikus, esaterako, Otaegi, L.: op. cit., 16.

513 Peillen, Tx.: *Jon Mirande, olerkaria*, op. cit., XXV.

asonantzia. Ez eta ez. Ahaztu egiten zaie jakintsu horiei eta Zuberoan hamabosgarren mendean hasirik olerkiak eta pastoralak asonantziaz idatziak direla, ez dakite Mirandek bere idazle lehen urratsetan, euskal kantu bilduma bat idatzi zuela, ilobek zaindu dutena<sup>514</sup>.

Zalantzarik gabe, ondorioztatzen du Miranderen betiko lagunak, Miranderen erroak Zuberoan daude<sup>515</sup>.

Arestian ikusi dugunez, beste zuberotar batek, A. Xahok, XIX. mendean garatu zuen erromantikotasun politikoa bera gaitzesgarri zaio, besteak beste, frantses idazleen estiloa hartu duelako:

Euskal romantizismua, ez A. Chahok asmatu zuen gezurrezko romantikotasuna, XIXgarren mendeko frantses idazleen laneginaren iñakin bat baizik ez dena<sup>516</sup>.

## **Neopaganismoa, euskal paganismoa**

Mirandek paganotzat jotzen zuen bere burua:

Bai, esan nezake kristauak baino erlijiosoagoa naizela, hauiek Jainko bat bakarrik adoratzen baitute, eta nik berriz, neo-pagano eta polytheista naizen alde-tik, bat baino askoz gehiago<sup>517</sup>.

---

514 *Ibidem*, XXVI.

515 *Ibidem*, XXIV.

516 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, op. cit., 149.

517 *Ibidem.*, 191.

Miranderen paganismoa uztartu egiten da Euskal Herriaren garai bateko paganismoarekin, Euskal Herria paganoa izan baitzen, Euskal Herria izan zenean, hain zuzen:

Gu paganu ginan oraino gure auzo guztiek aspaldian onharrturik zutelarik. Goierritar batzuek ekharri “Berri Ona” eta gero ere, paganu egon gara bethi gure izaiki-zolan, egiazko Europatarrak oro diren bezela, Orienteko doktrina bat baita Khristautarzu-na, hangotarrentzat egina; eta Europa hunetan erro hartzekotan, hemengotarrentzat Weltanschauung bereiziari egokitu beharr zaio, nahi ala ez<sup>518</sup>.

Azken finean, Mirandek paganismo politiko bat planteatzen du, argi eta garbi, kristautasunari oldartuko zaion paganismo oldarkor bat. Kristautasunaren boterearen menpean, *Europar sinhesmenagatik bizia eman duten Euskaldun sorgin, azti eta belhagileen orhoitzapenetan*, idazten du, esaterako *Sanguis martyrum* poema<sup>519</sup>:

Ene herri on bakezalea,  
eliza zuriz bethea,  
Goizerritiko Jaungoikoaren  
herri hautetsi maitea,

Hire zerua garbi duk, kheak  
Hegoak ditik ohildu;  
oihartzun gabe hire orhoitzan  
auhenak dituk ixildu...

---

518 Mirande, J.: “Euskaldungoaren etsaial”, in *Miranderen lan kritikoak*, op. cit., 33.

519 Mirande, J.: *Orhoituz*, 101-103.

Zuen auhenak, ene arreba  
plazetan errhaults eginak,  
gizon beltz heiek erre zaituzten  
Euskalherriko sorginak!

(...)

Zinez alpherrik hil zaretea?  
Galdu zarete oroizat?  
Ezin da... ezen zuen odola  
date pagano-hazi bat.

(...)

Belhaunik belhaun zueri esker  
da begiratu azkarra  
geure leinuak asmatu-rik  
theologia zaharra.

(...)

Zu<sup>520</sup>, eta bertze jainkoak ere  
hor zinetenak aspaldi,  
gure arrazak adoratua  
gizaldirikan gizaldi.

---

520 Alegia, Ortz-Thor edo Akher Beltz.

Mari Munduko, basajaun-jainko  
okher jakitun osoa,  
jainkosa zaintzen zenituztenak  
ibaia eta basoa,

Hil ez zaituzten gizon beltz hauiek,  
lotan zaudete baxharrik;  
gure bihotzak adi'tzazue,  
jaike zaitezte, atzarrik!

Baal<sup>521</sup> arrotza ukhatzen dugu, (...)

### **Heziketa burges zikiratzailea**

Nola nagusitzen da, ordea, kultura kristaua? Nola onartzen ditugu beronen ongiak eta gaizkiak? Nola nagusitzen da gizarte burgesa? Nola jainkotzen da dirua? Non banatzen dira tituluak eta estatusak? Non bihurtzen gaituzte makina matematiko zurrun? Non hiltzen da giza espiritu burgoia? Non hezten da gure otzantasuna? Miranderen ustez, borroka epistemiko eta ideologiko hori guztia heziketa-sisteman erabakitzen da.

Otaegik erakutsi digu Miranderen erromantikotasun aristokratikoaren atzetik zegoen kritika:

Gizonaren inozentzia aldarrikatzen zuen ozenki, hezkuntzaren eta zibilizazio mendebaldarraren eraginak gizakiaren berezko izaera gaiztotzen zuela salatuz<sup>522</sup>.

---

521 Jainko semitiko-kananeo nagusia da.

522 Otaegi, L.: *op. cit.*, 10-11.

Peillenek, berriz, unibertsitate-mailako ikasketak erre-fu-satu zituela esan digu:

Nietzscheren ideiek kutsaturik unibertsitate ikaske-ten aurka izan zen<sup>523</sup>.

*Haur besoetakoa* nobela beste heziketa-molde baten eredu-a da, zentzu horretan. Eredu burgesaren aurka, ere-du humanista klasikoa ari zaigu proposatzen Mirande, gre-koen pedagogia, agian<sup>524</sup>.

Lehen-lehenik, eskola burgesetik bereiziko du gizonak haurra, irakasle burgesen aginpidea ukatuko du:

Zer eskubide zedukaten heiek haren adimena for-matzeko? Zergatik heiengandik ikasi behar zuen Theresak? Damu zuen sekula eskolan ezarri izan zuelakotz, berarekin gordetzeko orde-z, bera egote-ko orde-z, haren irakasle bakarra<sup>525</sup>.

Liburuak ere gizonak aukeratuko dizkio<sup>526</sup>:

Hemendik aurrera (...), nik aukeratuko dizkiodan liburuak irakurriko ditu<sup>527</sup>...

Heziketa-programa oso bat dauka gizonak alde-z aurre-tik diseinatua:

---

523 Peillen, Tx.: *Jon Mirande, olerkari, op. cit.*, XXIV.

524 Helade klasikoan pedagogo (*paida-gogos*) bat jartzen zioten haurrari (mutikoari) eta haren ondoan ikasten zuen bizitzaz. Irakaslearen eta ikaslearen arteko sexu harremanak ere aski zilegi ziren.

525 Mirande, J.: *Haur besoetakoa, op. cit.*, 28.

526 Jantziak beraiek, halaber: *nik aukeratuko dizkiodan jantziak jantziko ditu (Ibidem)*.

527 *Ibidem*, 54.

Eta berak zekien guzia irakatsiko zion, eta guztia ulertzera ekarriko zuen, eskoletako programak moldatzen dituzten asto jakintsuak eskandaliza-erazterainokoa. Theresa filosofia ikasten... Theresa latin eta grekoa ikasten... Theresa hark moralki eta gizarteari buruz zituen dotrina garratzak irakasten, ulertzen, onartzen<sup>528</sup>...

Eta Katulo edo beste poeta kartsuak irakurriko zizkion<sup>529</sup>.

Gizonak heziketa klasiko humanistikoaren hautua egin du haurrarentzat, ohiko heziketa-sistemari kritika eragin ez ezik. Klasiko guztiek proposatu duten heziketa estetikoa eragin nahi du Mirandek Theresarengan. Musika entzun, liburuak irakurri, filosofoetatik ikasi, bidaiatu... Rousseau-ren estiloa da. Schillerren estiloa da. Schopenhauerrek, adibidez, sentsibilitatea lantzea aholkatu digu, barne-heziketa lehenestea, gizartetik bereizia, bakardade aberatsean<sup>530</sup>, kalitatea zaintzea, hitz batean<sup>531</sup>.

Dei bat da Miranderena, apelazio bat, salaketa bat, oraindik ere heziketa humanista alboratzen jarraitzen duen ikasketa teknifikatu eta masifikatu baten aurka.

Protagonistak, Theresa haurraren eragin nahi duen heziketa-moldea menderakuntza-aparailu ezin zorrotza-

---

528 *Ibidem*, 28.

529 *Ibidem*, 66.

530 Schopenhauer, A.: *El arte del buen vivir*, op. cit, 68, 75-76, 87.

531 *Ibidem*., 91, 152.



goa ere bada, generoaren eta sexuaren ikuspegitik<sup>532</sup>. Baina gai horrek azterketa berezia eskatzen du, beste leku batean egingo duguna.

### **Heziketa frantsesa eta Euskal Herria**

Baina, berehala, Mirande jaitsi egiten da, berriro, heziketa burgesari egozten dizkion kalte kognitibo abstraktuetatik, errealitate konkretura, kritikatzten baitu frantses eskola gorrotatuak Euskal Herrian antolatu duen des-heziketa edo akulturazio-sistema. *Uztailaren Hamalauko Besta* izeneko testuan bi zuberotarren arteko elkarriketan aurkitzen dugu kritika politiko zorrotz hori.

Kadet bozkarioz betea dator Martiren aurrera, bihar-munean uztailaren hamalaugarrena dela-eta, Frantziaren urteburu paregabea, alegia. Martik, ordea, ez daki euskaldunek zer irabazi zuten Bastilla hartu zenean. Harriturik, Kadetek Jaun Errejentarengana igortzen du Marti sinesgabea, historian jakituna baita berau. Baina Martik eskoletan ikasten ez den historia bat ikasi du herrian bertan:

Marti.- Ezpadut Frantziako istoria jaoun errejentak bezain ontsa ezagutzen, ezagutzen diat amiñi bat Zuberouko historia (...) berak eskolalat utzuli beharra badiala (...)<sup>533</sup>.

Badaki Martik Errejentaren eskolak egia ezkutatu duela Frantziari eta Bastillari buruz:

---

532 Izan ere, protagonista nagusiak, bere asmo pedofiloak burura eraman nahi dituelarik, 11 urteko neskatilaren gogoa mendeen hartzeko darabil heziketa eta dominazio molde hori.

533 Mirande, J.: "Uztailaren Hamalauko Besta", in Peillen, Tx.: *Jon Mirande-ren idazlan hautatuak*, op. cit., 48.

Marti.- Bai, bai, eskolalat, ikhasteko zer zen Bastilla, nour zen Bastillan, noula eta nourtzaz bortxaturik izan zen, eta noulako bilhakatu diren bortxatze horren ondoramenak (...) <sup>534</sup>.

Historia eskola frantsesean ikasi duen Errejenta jauna beste eskolara bidaltzen du Martik erretorikoki, egiaren eskolara, batetik, eta herriaren eskolara, azken batean.

Euskal Herriko eskola frantsesean irakasten direnak ere ezagutzen ditu Martik, noski, euskaraz mintzo ez den eskolan frantses izaten irakasten baitzaio haurrari:

Marti.- (...) igor itzak nahi edo ez hire haourrak goure egiazko Mintzajia, uskara, ezagutzen ez tien eskola eli batetan eta libre hiz? Frantsesen eskupian behar badugu orano luzaz irain (...) <sup>535</sup>.

Argi samar dago, Mirandek faxismoarekin eta hura inspiratu zuten kulturarekin partekatu zituela ideia asko eta asko. Inguruabar kognitibo jakin batean ezarri zituen bere kategoriak. Baina, hori ukatu gabe, beti jakin zuen jaisten Euskal Herrira. Lagun min izan zituen bretoi abertzaleekin jaitsi behar horrek engaiatu zuen. Beraz, badago zerbait faxismoaz harago, faxismoak esplikatu ezin duena, alegia, Miranderen abertzaletasuna, Miranderen eskuin muturreko abertzaletasuna.

---

534 *Ibidem*, 49.

535 *Ibidem*, 51.

## Theresa edo herriaren heziketa

Peillenek intuizio garrantzitsua izan zuen, zentzu horretan: narratzaileari Theresarekin dagoenean herrimina sortzen zaiola igarri zuenean. Hortik ondorioztatuko du Euskal Herria dela Theresa<sup>536</sup>. Beraz, haur besoetakoaren heziketa, neurri batean, Euskal Herriaren heziketa ere bada.

Hipotesi hau zuzena bada, ordea —eta balizkoa dirudi—, beste arazo bat sortzen digu Miranderen pentsamoldeak: eliteek, elite burgoiek hezi behar dute herritarra. Horretan ere gizarte eredu bertikal hertsia proposatzen du Mirandek.

Uste dugu, gainera, *Theresa-neskatila* eta *Herri-neskatila* uztartzen dituen metafora honen jatorri sinbolikoa bera nazismoaren iruditeriarekin lot daitekeela. Izan ere, kultura politiko hartan topikoa zen arketipo bat errepikatzen da: entitate femeninoa ematen zaio herriari.

Hitlerren *Mein Kampf* obrara itzul gaitzezke berriro. Bertan esaten zaigunez, herriak izaera femeninoa du, ez dio arrazoibide abstraktuari erreparatzen; aitzitik, sentipenez eta sentrazioez gidatzen da herria eta, beraz, gizon sendo eta buruzagi oldartsuak estimatzen ditu<sup>537</sup>. Jendetzak ez dauka adimen handirik. Gauzak ezberdintzen ez dituenek, oinarrizko bulkada singleen bidez erantzuten du, positibo ala negatibo; maitasun ala gorroto, eta abar<sup>538</sup>. Zentzu horretan, hitzezko bortizkeria darabilen buruzagia masen

---

536 Peillen, Tx.: "Jon Miranderen ordeinua bere lekuan", *op. cit.*, 23.

537 Hitler, A.: *op. cit.*, 17, 93, 156.

538 *Ibidem.*, 93.

psikologoa da, masak hunkiarazi behar ditu<sup>539</sup>. Masak hunkiarazi, masak hezi.

Iruditeria sinboliko hori askotan errepikatuko zen nazien propagandan: Leni Riefenstahh-ek, oso nabarmen, neskatala ilehori eta xamur baten bidez adierazten du beti herria<sup>540</sup>. Soldadu eta buruzagiak, denak gizonezkoak, geometria es-tuz, itxura arrazional eta analitikoak erakusten diren bitar-tean, parada handietan ikusle huts diren emakume eta nes-katila irribarretsuen bidez irudikatzen da Alemania<sup>541</sup>.

Freuden testuetan ageri da masaren emetasunaren ideia ongi. Masak instintuz jokatzeko du: badu, oinarrian, egitura libidinoso bat batuta iraunarazten duena<sup>542</sup>. Morroi-izae-ra duenez, gutxitua du jarduera intelektuala, ezagutza eta arrazoibidea baztertzen ditu<sup>543</sup>. Horren ondorioz, maita-sunaren bulkadaz erantzuten du, afektu-harremanen bidez egiten ditu aukeraketak<sup>544</sup>. Bere noraeza baretzeko, buru-zagi bat nahi du gidari masak, ar indartsu bat, botere mu-

---

539 *Ibidem.*, 221, 280

540 Riefenstahl, L.: ikus, *Triumph des Willens* (Borondatearen Garaipena) propaganda-film indartsua.

541 Hain eraginkorra izan zen irudi hori, urte batzuk geroago ere, eta EEBBetan, jatorriz judu alemanak ziren Lazarsfeld, Laswell eta enparauek sortuko zuten propaganda politi-koaren inguruabarrean, hain zuzen, neskatala berbera erabiliko zela pertsuasio-tresnatzat. Badago spot bat, 1964ko hauteskunde-kanpainan Johnson hautagai demokratik Goldwa-ter errepublikarra erasotzeko erabili zuena, publizitate politiko zaharraren estiloa betirako eraldatu zuena: txibirita bati hostoak kentzen ari da neskatala ilehori bat, etorkizuna iradoki nahirik bezala, eta zenbatu nahi ditu, *bat, bi, hiru...*; baina ez daki zenbatzen, irrazionalgia da, hauskorregia, bat, herri xehea da, masa ezjakina, *bi, hiru, sei, zortzi, bost...* saiatzen da. Saio al-ferra izango da. Berehala, beste zenbaki teknokratiko bat, zurruntasunez, *...lau, hiru, bi, bat...* Zero, atomozko bonba leherraraziko da, apokalipsi bizian.

542 Freud, S.: *Psicología de las masas*, Alianza, Madril, 1993, 31, 33, 41.

543 *Ibidem.*, 54, 65.

544 *Ibidem.*, 29, 31, 54.

gagabea izango duena<sup>545</sup>. Buruzagiak herritarrak maitatuko dituen heinean, herritarrak identifikatu egingo dira buruzagi edo *kaudillo* horrekin, idealizatu egin dute, kritika oro indargabeturik<sup>546</sup>.

### **Herri-higikunde bat Euskal Herrian**

Zenbat aurkakotasun zeukan munduan Mirandek? Gizarte burgesaren aurka zegoen, ekonomia liberalaren aurka, kristautasunaren eta kultura juduaren aurka, moral nagusituaren aurka, heziketa-sistemaren aurka, demokrazia berdinarazlearen aurka, marxismo berdinarazlearen aurka, Estatu Frantses jakobinoaren aurka...

Nola borrokatzen da aurkakotasun hori guztia? Borroka politiko klasikoa ez da eraginkorra. Alderdi politikoen sistemak ez du balio, geldikorra da, borrokatu nahi den egituraren parte denez. Mirandek, beraz, herri-higikunde baten beharra iradoki zuen. Saiatu ere, saiatu zen, inoiz lortu ez zuen arren.

Zeren alde nahi zuen, ordea, herri-higikunde hori? Zenbat aldekototasun zeukan munduan Mirandek? Euskal Herri burujabe baten alde zegoen, Euskal Estatu baten alde, Europako herri gutxituen alde... Beste aldekototasun errealik ez zaio, egiazki, ezagutzen. Beste xederik ez zuela dirudi. Frantziako talde faxista edo folkistekin engaia zitekeen, Le Pen batekin, adibidez, baina, britainiar eskuin muturreko abertzaleen salbuespenarekin, ez zuen horrelakorik inoiz egin.

---

545 *Ibidem*, 59, 64.

546 *Ibidem*, 32, 45, 49.

Tipologia edo eredu faxista zeukan herri-higikunde horren atzean Euskal Herria dago bakar-bakarrik. Geldikor ikusi zuen Euskal Herria eta hura nahi izan zuen mugiarazi. EAJ-ren otzantasuna ezin du onartu<sup>547</sup>. *Ezkertikeria*, ustez, ez-abertzalea, gutxiago<sup>548</sup>. Ipar Euskal Herriko eliza herri-keta okerrari lotu zaio<sup>549</sup>.

Ekintza-gizonak nahi ditu Mirandek. Ereduak ere eman dizkigu: Larramendi, Xaho, Arana-Goiri...; buruzagi karlistak ere aipatu ditu.

Mirande hil ostean, Pennaod adiskideak egin zion gorazarrean ikusten da zuberotarrak ez ziola inoiz konpromisoari muzin egin. Europako Herri Minorizatuen Elkartearen sortzeko asmoz, taldean ibili ohi ziren, Mirande eta Pennaod ez ezik, Josep Sans katalana, Henric Espieu okzitaniarra, Jean Mabire normandarra, Hervé Glemarec eta Yann Poupinot breiztarrak, Xisma van Heemstra frisiarra, Johannes Thomasset flandriarra eta beste batzuk eta, behin, Sorbonnen, hizkuntza katalanaren *Jocs florals* direlakoetan, zutik jarri ziren lehen lerroan, Delbos Frantziako Hezkuntza ministroaren aurrean:

Minorien ordezkari bezala geure buruak izendaturik, lehen lerroan jarri ginen Sans, Espieu, Mirande eta lauok. Frantseskeria eta katalantasan jai horren erdian, oihu egin genuen: “Gora Companys! Frantses eraileak!”, zeren katalanaren heriotzaz frantses gobernuak izan baita hobendun. Baketu ginduzten. Azkenean katalan hymnua entzun zen, Errepublikak

---

547 Mirande, J.: *Miranderen lan kritikoak*, op. cit., 63.

548 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, op. cit., 116.

549 *Ibidem*, 95.

Zaindarien musikak emana. Gero Marseillaise-a; orduan jarri egin ginen, eseri, zigarroak piztu eta goratik ohar batzuen egiten hasi. Delbos txakurtxo berotu eta zuzendu zitzaigun, eta musika “kuak” batean itotzen zelarik, bankuetan zutik, Mirande hasi zen esaten: “Zuen hiru koloretako ipurzapia Rennes-en, Tolosan, Baionan, Perpiñanen ikusten deno, ez gara Marseillaise-a gatik zutituko”. Denak zutik ginen, borroka hasi zen; ukabilka ari ginela, ez ginduzten errez kanporatu, eta natura gaidiko elkarre hori frantses eta katalan herbesteratuen artean, errepublikatasunaren aitzakian, apur bat lausotu, urdindu eta usteldu genuelako pozez<sup>550</sup>.

Antzekoa gertatu zen Parisko Euskal Ordezkaritzaren aurrean ere:

Aberri Egunean ofizial atospen eginik, Jon eta biok konbidatuak izan ginen. Asko edan zen eta topatu —merezki zuten bezala— herri hartako guda-riei; baina gero demokratkeria saltsazko hitzaldiak eman ziren, eta Jon Mirandek, frantses euskaldunen izenean mintzatzea galdetu ziotenean, honela erantzun zuen isiltasun handienez: “Su política me hace decir, España una, grande, libre! Arriba España, Viva Franco!” Handik aurrera ez zuten gehiago Jon Mirande beren batzar eta buru-batzarretarat deitu<sup>551</sup>.

---

550 Pennaod, G.: “De viris illustribus: Mirande-tar Jon”, in *Peillen, Tx.: Jon Mirande-ren idazlan hautatuak, op. cit.*, 278-279.

551 *Ibidem*, 279.

Urkizuk nobelatu digu hirugarren *eskandalu* bat:

Beste batean, ene eskandalua sortzeko gogoia ez baitzen erraz itzaltzen eta euskaldunen aurka ez ezik beste guztien aurka ere bainengoen, Goulveen Pen-naodekin eta Txominekin Kêr Vreizhen nengoela breiztarren himno baketsua entzun ondoren, altxatu ginen hirurok eta oihukatuz esan genuen: “Zutik breiztar ereserkia entzuteko” eta jendeak harriturik behatzen gintuenean ahots faltsoz “Les filles du cabaret” abestu genuen, jende zintzo eta single haiengan eskandala sorraraziz ere<sup>552</sup>.

Neurri batean, horretan ere, aurreratu egin zen Mirande. Zenbait urte geroago, beste norabide ideologiko bate-tik, noski, mota guztietako herri-mugimenduak antolatuko baitziren Euskal Herrian, gaur egunean ere indarrean dirauen herri-sare ezin joriagoan.

### **Mirande eta bortizkeria**

Herri-higikunde horrek, noski, bortizkeria erabiltzeko eskubide osoa du. Demokraziaren eredu bakezaleak ez dio balio Euskal Herriari. Aintzat hartu behar da, enpirismoari zor, demokrazia liberalak —askatasuna beharrean— murrontza besterik ez diola ekarri Euskal Herriari.

Beste eredu bat behar da. Historia errepatatu behar da, mistifikaziorik gabe, eta antzeman, indarra gertakari betierekoa izan dela:

---

552 Urkizu, P.: *Jon Chaoren memorioizunak*, op. cit., 87.



Geure herriaren Historiak nola bertzeenak, indarrak duela bethi gizasaldo amorphea gizarte organizatu bortxaz bilhakutzen phorogutzen du<sup>553</sup>.

Euskal Herriaren iraganak erakusten digu indarraren garrantzia, hain zuzen, beste garai batean, batere demokratikoak izan ez ziren molde batzuen bidez jakin baikenion eusten geure naziotasunari:

Euskaldunak zinezko demokratak behin ere izan direnik uste ez dudala aithorr dut (...) Le Play soziologuarena zait: lurginzalduntza bat zirela, alegia. Zaldun eta aitorseme ziran egiaz, beren burua “etxeko aiun” izendatzen zuten lurgin hek, etxeko guztien, emazte, haurr eta sehien nagosi zirenok<sup>554</sup>.

Modernitatearen hastapenetara ere begira daiteke, Euskal Herriarentzat eskubideen galera ekarri zuen Frantziako Iraultzara, adibidez. Kadet eta Marti elkarrizketan jarri ditu Mirandek:

Marti.- Bai, bai, eskolalat, ikhasteko zer zen Bastilla, nour zen Bastillan, noula eta nourtzaz bortxaturik izan zen, eta noulako bilhakatu diren bortxatze horren ondoramenak (...) <sup>555</sup>.

Horren ondorioz, historiak ekarriko zuenari urte batzuk aurrea harturik, borroka armatua aldarrikatuko du

---

553 Mirande, J.: “Euskaldun gudu-zalduntza baten beharrkiaz”, in *Miranderen lan kritikoak*, op. cit, 22.

554 *Ibidem.*, 20.

555 Mirande, “Uztailaren Hamalauko Besta”, in op. cit., 49.

Zuberoatik, Gudu-zalduntza baten beharra antzemango du. Izan ere, egoera larrian baitago Euskal Herria:

Bada, Euskalherriaren oraiko egokera kritikoa kontuan hartuz, berriz ere horrelako gudu-zalduntza baten beharrunean gagozela nabari da. Hiltzera doa gure herritarzuna, eta ez gudukaren herio ohoragarritz, endakatzeko herioaz baizik —ahalke— izangarriagorik ez baita<sup>556</sup>.

Legezko argudioen gaintetik, arrazoiaren indarraren gaintetik, indarraren arrazoia aldarrikatu zuen:

Zuzenaz dagokunaren eskatzeak ez du balio: zerbeit izaitekotan, dagokuna, baino gehiago eskatu behar dugu, legezkoak baino argumendu hoberenak ditugu, erran nahi dut, indarrezko argumenduak<sup>557</sup>.

Mirandek laudorio mugagabea egin zion bortizkeriari, baina, esan dezagun, beti ere, lurrari lotutako bortizkeriari. Gogoangarria da, zentzu horretan, *Eresi XVI* poema<sup>558</sup>:

Aineza gal bizia goiz batez  
iskilludun, ixil eta zutik  
guduz hilda lur zâr honen maitez  
mendietan, etsaien eskutik.

---

556 Mirande, J.: "Euskaldun gudu-zalduntza baten beharrkiaz", in *MLK*, Pamiela, Iruñea, 1985, 22.

557 *Ibidem*.

558 Mirande, *Orhoituz*, *op. cit.*, 53.

Aininderor gaztaroan, nerau  
ikurrinik et' ikurrik gabe,  
ezpainetan othoitzik ez, birau-  
itzalik ez, baikor, ez herabe.

Ainitza gal hats, arima, odol,  
heuretako, nire jainko eido!<sup>559</sup>  
maitea, Lur! mendi-gudu baten,

eguzkiek, inguruz inguru,  
ene soin haur, berriz sor haiduru  
hiretan lo, garrez jo lezaten.

*Oskorri* taldeko Bixente Martinezek jarri zion musikak  
ongi biltzen du poemaren giro sotila<sup>560</sup>.

### **Bortizkeriaren konstatazio pertsonala**

Bortizkeriaren aldarrikapen basa honentzat justifikazioa  
aurkitu nahi izan da beti. Argudiatu da, lehen-lehenik, garai  
oso bortitzean egokitu zitzaiola jaiotzea.

Azurmendiren ustez, esaterako, Mirandek bere ingu-  
ruan eragin den bortizkeriaren konstatazioa egin du, ezer  
baino gehiago:

Bere inguruan, gerratik ihesi heldu diren abertza-  
le euskaldunak ikusten ditu; gerrak zanpatu dituen  
abertzale bretoinak. Mundu Gerra ikusi du: alema-  
nak Parisen. Faxisten garaitzapena Espainian. Inda-

---

559 Grekozko *eidolon* izan daiteke.

560 *Oskorri*, *Oskorri*, Elkar, 1979.

rraren garaitzapena mundu guzian. Gero, alemanen hausibartza. Resistentziaren bonbak, tiroak sasitik, aliatuen desenbarkoak. Indarraren garaitzapena berri ere mundu guzian. Indarra da beti nagusi: ahal duenak ahal du eta ezin duenak ezin du<sup>561</sup>.

Miranderen ilobek ere, osabak familian bertan ezagutu zuen bortizkeria argudiatu digute, bi Gerra Handien saraskia, hain zuzen:

Frantses askoren gisa Mirandetarrek beren haragian bi gerlen inarrosaldia pairatu zuten. Erran bezala, Jonen aita amek 1914-1918 urteetako Gerla Handian esku hartu zuten. Amaren aldetiko bi osaba Jean-Pierra hogeita hiru urteekin gerla hasieran hil zen, bestea Pette zauritua zango bat galdu zuen (...). Aitaren aldetik, Maria izebaren Vergne senarra lehen gerlan arnastu gasaren kausak 1929 urtean halaber Angelié aitona<sup>562</sup>.

Pétain-en suetenarekin batera, 1940. urtean, Zuberoara doaz ihesi. Baina, berriro Parisera itzuli, eta aita 4 urtez egongo da alemanen menpeko lanean.

Egia esan, bortizkeriaren justifikazioa ere, alde edo moldez, oso hedatua zegoen garai haietan. Nazioartean, bortizkeriaren bidez ari ziren askatzen herrialde kolonizatuak. Kultur eremuan bertan, ohikoa zen bortizkeriaren adierazpena, literaturan, antzerkian, zineman. Kontrakulturaren, halaber, bortizkeria eta odola, mugarik gabe. Kracaue-

---

561 Azurmendi, J.: *Mirande eta kristautasuna*, op. cit., 34.

562 Angelié, Ch.; A. Angelié; J.P. Aristorena: op. cit., 22.

rrek aztertu digun espresionismo alemana aipa genezake, berriro, zineman, bortizkeria-orgiak aurkeztu baitzituen ikusleen begietara<sup>563</sup>.

### **Bortizkeria konkretua Euskal Herrian**

Bortizkeriaren konstatazio orokorrak badu, ordea, partikularismo bat, Azurmendik ohartarazi digunez:

Mirandek Europa ikusten du: Estatu harroak eta herri ttipi zapalduak. Zergatik dira batzuek haundi eta besteak ttipi, haundiak nagusi eta ttipiak menpeko? Indarrarengatik. Haundiak zanpatu egiten du ttipia eta horrela haunditu da. Kultura frantsesa haundia da, euskalduna, bretoina, etc., zapaldu eta ito dituelako eta bera hedatu<sup>564</sup>.

Europako geopolitikan herri handi eta indartsuak ikusten ditu Mirandek, eta herri txikiak eta ahulak, haien azpian; eta handiak beti ateratzen dira irabazle, historian; eta txikiak, euskaldunak, bretoiak, flandriarrak, okzitanoak..., beti galtzaile, historian<sup>565</sup>.

Inguruabar bortitz horretan, Mirande herri txikien alde agertuko da beti. Esanguratsua da, zentzu batean, hizkuntza txikiekiko izan zuen atxikipena: Europako hizkuntza guztiak ikasteko asmoa hartu zuen beregain<sup>566</sup>. Ikasi ere, ikasi zituen horietako asko eta asko: euskara –euskaldun berria zen–, bretoiera, irlandera, kornubiera...

---

563 Kracauer, S.: *De Cagliari a Hitler*, *op. cit.*

564 Azurmendi, J.: *Mirande eta kristautasuna*, *op. cit.*, 35.

565 *Ibidem*.

566 Otaegi, L.: *op. cit.*, 2.

Baina hizkuntza eta kultura gutxituen aldeko lana ez da nahikoa. Mirandek lan politikoa egin nahi du, arestian ikusi dugunez, herri-higikunde bat osatu herri gutxitu bakoitzean. Eta, horretan, bortizkerian sinesten du<sup>567</sup>. Borroka bortitz bat proposatuko du, zehazki, Euskal Herriaren alde.

Asmo horrek, ordea, areago urrunduta zuen Mirande, bestela ere nahiko urrunduta zeukan euskal elitearen ingurutik.

### **Euskal gizartean ere arrotz**

Miranderen biografian zerbait argi badago, Euskal Herrian abegikortasunik ez jaso izana da. Euskal gizartean arrotza izan zen beti Parisen jaio eta hezitako gizona. Ez zen inon ongi uztartzen:

Ez naiz burges diharudun bat diletantegoan aritzeko; ez naiz politikari demokrata bat Euskadiren haurzia nire gain hartzeko; ez naiz khristiarra egiazko Euskaldun izaiteko; gainera ez dakit pilotan, ez dantzatan, ez musean ere<sup>568</sup>.

Hego Euskal Herrian egon denean, Euskaltzaindiak Arantzazun egin duen Batzarrean, esaterako, arrotztasuna sumatu du mugaz bestaldeko jendearen artean:

Bihotzez heiekin bat naizela erran dirot, baina gogoz eta spirituz... oso arrotz aurkhitu ditut asko-

---

567 *Ibidem*, 36.

568 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, op. cit., 99.

tan. Hauxe da ene txarra, edozein gizartean arrotz aurkhitzen bainaiz<sup>569</sup>.

Arrotzasun hori, gero eta handiagoa, esan dezagun, gero eta politikoagoa egingo da. Hala aitortzen du *Egan* aldizkarian egin zaizkion kritika zorrotz batzuen ondoren:

Azken urte hauietan konturatu naiz euskalherri-zale geienak geroago ta arrotzenago ari zaizkidala eta, nahiz lehen bezain euskaltzale naizen, pentsatzen hasi naiz goiz edo berant heien bidetatik osoro saiestuko naizela<sup>570</sup>.

Arrotzasun hazkorren muturrean, bakardadea. Bizpahiru lagun egin eta gorde zituen Mirandek guztira. Gura-soak hil, etsipenak jota ibili, eta egoera larritu zitzaionean ere, bakarrik egon zen. Zainetatik sendatzera, erietxe batera bildu zenean, bereziki, ez zen inor hartaz arduratu:

Jakiña, emengo Euskaldun lagun zaharretatik, iñor ez da nitzaz arduratu estu its ortan nengoelarik<sup>571</sup>.

Ibiñagabeitia hil ostean, Jon Etxaideri idazten dion eskutitz batean aitortzen du arduragabekeria horren garratzasuna:

Frantzian eta Parisen ezagutzen ditudan Euskaldun askotatik, nehor ez da nitzaz arduratu. Horrek mintzenago dit ene egoera. Ots, Euskaldunen artean, zu eta gaixo Andima (bizi zelarik) baizik ez da egiaz

---

569 *Ibidem.*, 78.

570 *Ibidem.*, 187.

571 *Ibidem.*, 243.

sekula nitzaz arduratu. Nere k...an utzi naute, eta hemendik aurrera nik ere hola egingen dut haiekin<sup>572</sup>.

## Zentsura

Baina besterik bazegoen Miranderen inguruan. Beste zerbaitek egiten zion hutsunea garai hartako Euskal elitearen inguruabarrean. Bakartu ez ezik, arrotz sentiarazi ez ezik, behin eta berriro jasan zuen zentsura Mirandek, mota guztietako zentsura.

Ipar eta Hego Euskal Herrian, apaiz giroko elite tradizionalistek eragin zioten zentsura azpimarratu da beti eta arrazoi moralak, kristautasunaren itxikeria argudiatu, batez ere, politikaz kanpoko arrazoiak, alegia. Baina, gertakari hori ukatu gabe, ideologia faxistak ere sortuko zizkion arazoak euskal gizartean, bereziki, kristautasunarekin lotura hain estua ez zeukan sektore irekizaleagoetan.

Has gaitezen, lehen-lehenik, jenderik gehienak ikusi duen zentsura moralarekin: bere obra literarioa sistematikoki zentsuratu zaio, batetik. 1953.ean, esaterako, olerki-liburu bat zentsuratu zitzaion, *Ilhun-argiak* izenarekin argitaratu nahi izan zuena, besterik gabe, poema batzuk erotikoak zirelakoan. Horrela gogoratzen du Peillenek:

Aita Laffite, Mokoroa eta Chabagno bat, denak sentso-re izanak, denak polemikari, gogorki mintzatu ziren Miranderen kontra (...). Aita Mokoroa Bilboko apezpikuaren ikustera ibili zen J. Miranderen obra Espainian debekarazteko, gazteria ustel ez zezan. Aita Chabagno aldudar misiolariak frantsesez, naski,

---

572 *Ibidem.*, 253.



Euzko-Deya-ri mehatxua igorri zion, berriz, Miranderen liburua aipatzen bazuten Indexean sartzea eskatuko ziola Vaticanori<sup>573</sup>.

Apaizen jazarpena argia da, zentzu horretan.

Berdin gertatu zitzaion, 1956.ean: ezin izan zuen argitaratu *Haur besoetakoa* nobela, hain zuzen, Arestik, 1970. ean, argitaratu zuena. Hemen ere, maitasun-harreman pedofiloa planteatzea izango zen, seguruena, arrazoi nagusia. Izan ere, kutsu inmorala zeukaten lan literarioak argitaratu zitzaizkion bitartean, eragozpenik gabe eman baitzituen saiakera edo iritzi artikuluko politikoak, haietako asko erdeinu arrazistaz beteak.

Zentsura moralarekin lotua egon bide zen, bestalde, edo zentsura morala eragin zioten apaizen bulkadarekin, bederen, Euskaltzaindira sartzea eragozteak:

Euskaltzaindian bereak eta bost jasan zituen. Orain dela urte batzuk, euskaltzain oso batzuek bera ere izendatzeko eskabidea egin zutela, orduko iparraldeko euskaltzain guzien izenean Aita Lafitte-k zemai hau egin zuen, Euskal Akademia utziko zutela denok batera Jon aukeratzen bazen<sup>574</sup>.

### **Arestiren elkartasuna**

Gabriel Arestik, *Haur besoetakoa* nobela publikatu zionean, Miranderi eragin zitzaion alde guztietako zentsura salatu zuen, kontra-azalean:

---

573 Peillen, Tx.: "Jon Miranderen ordeinua bere lekuan", *op. cit.*, 18.

574 Eguskitza, A.: "Hitzaurre gisa", in Mirande, J.: *Orhoituz*, Kriseilu, Donostia, 1976, 8.

Eta denbora bateko euskalduntasun isil eta geldian orduko beraren bozak oihartzun ozeneziak atera zituen; irribarre triste batekin gogoratzen ditugu egun, zein liskar haundiak, zein sesioitsuak, nolako gorroto zakarrak eta irain likitsak suportatu behar ukan zituen orduan gure zuberotar deskonformeak, euskaldun (edo sasi-euskaldun) askoren intentzio gaiztotik<sup>575</sup>.

Elkartasuna ere eskainiko zion, berehala:

Haren idaz-lanak argitaratzen ditugunean, pentsa beza Mirandek ez garela euskaldun guztiak berak hain desgogora ezagutu dituenak bezalakoak. As-toak, ostikoka hasten denean, berdin jotzen duela ezkerretera eta eskuinera; haren ostiko-kideak garel<sup>576</sup>.

Zor zion begiruneagatik, *Maldan behera* obra Miranderi eskaini zion, Gabriel Arestik<sup>577</sup>.

Baina Arestiren elkartasun ia esoterikoaz kanpo, inork gutxik hautsi zuen bakardadeak Miranderen inguruan gorpuztu zuen sare gotorra. Gazteagoek bai, erakutsi zioten begirune handiagoa, Xabier Kintanak, Andolin Eguzkitzak..., baina beranduegi izan zen.

---

575 Aresti, G.: "Haur besoetakoa", in, *op. cit.*

576 Aresti, G.: "Sarrera", in, Mirande, J.: *Haur besoetakoa, op. cit.*

577 Ikus, Aresti, G.: *Maldan behera*, in *Poemak*, Kriseilu, Donostia, 1976, 182.

## Isolamendu politikoa

Erbestea bizi izan zuen bere herrian. Horrela ikusi zuen Gil Berak, hain zuzen, *Erbestea* azpigaitzat hartu zuen *Hegats* aldizkari batean:

“Erbestea” epigrafepean aritzen gara gaur eta epigrafe hori gutiri dagokio Miranderi bezain ongi, inor guti izandu baita hemen hura bezain arrotz eta kanpotar<sup>578</sup>.

Arroztasun horren arrazoiak, abegikortasunik jaso ez izanaren arrazoiak, ordea, ez ditu lotu nahi ideologiarekin:

Haren arroztasuna ez datza bere ideologian; azkeneko hau, preseski, eskaparateko Mirande arruntaren etiketan irakurtzen ahal dena baita<sup>579</sup>.

Horretan, ordea, ezin gara guztiz ados egon Gil Berarekin. Sinetsita gaude, honez gero, Miranderen ideologia ez zela *eskaparate* hutsa. Aitzitik, bere obrari ere eragiten dion oinarri sendoa da Miranderen ideologia. Marxismoak erabili ohi zuen adiera bat ekartzearren, *gainegitura* hutsa ere ez zen Miranderen ideologia, bizitza praktikoarekin engaiamendua izan baitzuen, praktika politikoa moldatu baitzion ideologiak.

Izan ere, zentsura eragin zion giro hertsitik kanpo ere, Mirandek harreman ugari izan zituen garaiko beste idazle eta euskaltzale irekizaleagoen artean. Bidelagun izan zituena, aldez edo moldez: G. Arestiz kanpo, A. Ibiñagabeitia, F. Krutwig, Tx. eta R. Peillen, J. Zaitegi, L. Mitxelena, J. Etxai-

---

578 Gil Bera, E.: “Mirande, arrotzaren arima”, *Hegats*, 4, Donostia, 1991, 128.

579 *Ibidem*.

de... Eta gehiago: Jean Lousteau, Norbert Tauer, A. Irigoien, Txillardegi... Baina, hor ere, ez zuen aurkitu aldekotasunik.

Haren lagunartea ezagutu eta, neurri handian, partekatu zuen Txomin Peillen adiskidea bera ez zitzaion inoiz en-gaiatu politikoki. Haserretu egin zen Krutwigekin, ideia poli-tiko asko eta askotan jarraitzaile izan bazuen ere. Txillar-degi desagertu egin zen haren ondotik. Liskartu egin zen *Enbata* aldizkariarekin. Zapuzkeria erakutsi zuen ETA era-kunde armatua sortuko zuten gazteekin. Bere lagun min eta aitor-mutila izan zen Ibiñagabeitiak ez zion espero be-zala erantzun. Eta horiek guztiek partekatzen zuten Miran-deren abertzaletasuna eta euskarari zein euskal kulturari buruz egiten zuen diagnostikoa. Horiek guztiek eragozpe-nik ez zeukaten Miranderen inmoralismoa bere egiteko. Peillenek testu bereizezinak utzi dizkigu *Igela* aldizkarian<sup>580</sup>. Krutwigek eta Txillardegik borroka armatuaren bidea har-tu zuten. Zerk eragotzi zuen, beraz, oinarritzko uztardu-ra beste giro horrekin? Erantzuna bakarra da: Miranderen ideologia faxistak.

### **Higikunde bat sortzeko ezintasuna**

Ez zuen inoiz lortu Euskal Herriaren alde proposatzen zuen mugimendua osatzea. Inor ez zitzaion bildu. Bakarrik ibili zen lanean, behin eta berriro lanerako taldetasuna es-katzen zuen gizona:

Horrengatik, herriketaz den bezainbatean behin-tzat, ez dut herrikoizale direnekin lan egin ahal, ez

---

580 *Igela*. Euskaldun heterodoxoen errebista, Hordago, Donostia, 1979.

herkaldarrekin, ez eta nazional-sozialist arruntekin ere<sup>581</sup> ...

Oso goiz adierazten du Mirandek ezintasun horrek sortzen zion etsipena. Ibiñagabeitiari 1951.ean bidalitako eskutitz batean, adibidez:

Galdua dut idazteko zaletasun guzia Euskadi (ala Euskalerrria?) ren etorkizunari buruz alaitzen nituen itxaropenak ere galdurik nago. Gure azken batzaldian esan nizunez, alper-lan deritzait euskerazko “landerbidea” baten ekitea, ekintza orren atzean politikazko igikun azkar bat ez ba’da, beraren zirikatzalle.

Eusko abertzaleen artean ordea, ez dakust dalako igikunik: ziur nago deus onik ez digula ekarriko zorioneko *Mestein Democracies* oriekin alkartzeak<sup>582</sup>.

Ibiñagabeitiari eskutitz bat idazten dion bakoitzean agertzen du Mirandek, sistematikoki, etsipen hori. Urte bete beranduago, adibidez:

Baina, egia esan, bihotz min haundia dut edo, hobe ki erran, bizi-nekhadura handia dut, ikhusi-eta ene ahalmen-eginak oro asmakiderik edireiteko, alperrik diradela, bai euskaltzalegoan, bai politikan (...). Nire euskal-ekhintza guztiak nahigaberik baizik ez

---

581 Mirande, J.: *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, op. cit., 107.

582 *Ibidem.*, 48.

deraut ekharri orain arte eta gero ta argiago dakhusat, hobe dudala bethikotz uztea<sup>583</sup>.

Hil baino lehentxeago, Kintanari idazten dion gutun batean, Parisen, beste euskaldunen artean egiten zaion bazterketaz kexu da, eta, halaber, gogaidarik (Meinungsgenossen) inoiz lortu ez izanaz:

Gogoan har ezazu zenbat gaitz den Parisen oso bazterturik (bertze euskaldunetarik bazterturik, esan nahi dut ) bizi den batentzat euskal-kulturean “parte hartzea, eta are dakidalarik ez dudala” gogaidarik (*Meinungsgenossen*) nere herritarren artean (...). Eta guztien azkenean, idazteko behar da zerbait esateko euki; orai ez dakit euskaldunei zer esan diezaiekedan. Gero, ez dakit... Dena dela, *fascista* hunen gogaintzirik hoberenak har itzazu<sup>584</sup>.

Basamortuan predikatzen ibili delako sentipena ere badu Mirandek:

Baina mortuan oihuz dagienaren mintzoa izan da nerea<sup>585</sup>.

Nietzscheren *Zarathustra* gogoratzen digu. Txillardegiren *Haizeaz bestaldetik*, orobat. Eta basamortu hori politikak eragin dio, bereziki, gogaidarik aurkitu ez izanak.

---

583 *Ibidem.*, 53.

584 *Ibidem.*, 255.

585 *Ibidem.*, 80.

## **GERO taldearen zentsura**

Izan ere, Miranderen literaturari eragozpen moralak jarriko ez zizkioten kulturgile gazte eta berrizaleen artetik ere, zentsura jasan zuen. Ez dago argi jakiterik, zehazki, zer zentsuratu zitzaion eta zergatik. Baina, bistan denez, beste inguruabar —agian, politiko— batean gaude.

Hain zuzen, Txomin Peillenek paratutako *Jon Mirande-ren idazlan hautatuak* osorik ez argitaratzea erabaki zuen GERO taldeak eta, bederatzigarrena izango zen atala arta-ziz orraztea, eta, bidenabar, sakabanatuta, zentzuz lausotuta eskaintzea. Horrela aitortu zuten liburuari egin zioten halabeharrezko hitzaurrean:

Hala ere, kapitulu bat falta da, Peillen-en bilduman bederatzigarrena izan behar zuena, JON MIRANDE ETA POLITIKA deitua. Hutsune hori nabarmena da, eta Peillen berari jokamolde horren zergatiak adierazi genizkion, eta berak onartu edo, ez bere buruari bortxakeriarik gabe... Gure ustez, kapitulu hura literatur aldetik etzen oso baliosa, eta guk liburu hontan batez ere literatur lan baliosak argitaratu nahi genizkion Miranderi (...).

Guzti hori horrela izanik, kapitulu haretatik ahal zen guztia beste kapitulu batzuetan sartu genuen, materiala ber-ordenatuz, eta gure iritziz sartu ezin zena bazter utzi dugu.

Badakigu erabaki problematikoak eta, behar bada, minberakorra dela, baina ataka batean geunden, eta ez genuen aterabide hobeagorik aurkitu<sup>586</sup>.

Ezin jakingo dugu antologia hartan zer zen *sartu ezin zena* eta zergatik. Peillenek esan beharko du. Agian material hori ideologia faxistarekin egon zitekeen lotuta, antologian ia ez baita ezer ere bildu pentsamolde politiko horri buruz.

Miranderen literatur balioak bestelako idazlanetatik bereizi nahi eta behar hori ere oso sintomatikoa da. Gerora, behin eta berriro errepikatu da. Bereizi behar horren atzetik, Miranderen ideologiak sorrarazten duen itzal gaiztoa datza, seguruen.

Idazlan hautatuen zentsura esplikatzen duen bigarren egitura botere frankistekin lotua dago, noski:

Bestetik, eta horretan zegoen neurri haundi batean kakoa, kapitulu hartan zentsura aldetik ezin argitaratzeko gauza asko zegoen (zoritxarrez)<sup>587</sup>.

Frankismoak “zoritxarrez” onartuko ez zuen materiala burujabetasunarekin harremanean egon zitekeen edo, agian, askapen-borroka bortitzaren aldeko hautuarekin. Esaldi adierazgarri hori, *horretan zegoen neurri haundi batean kakoa*, argigarria izan daiteke, zentzu batean. Baina, orduan, Peillenek berak utzi zituen bazter testu politiko faxista eta arrazistak.

---

586 GERO taldea: “Aintzin oharrak”, in, Peillen, Tx.: *Jon Mirande-ren idazlan hautatuak*, op. cit., 8-9.

587 *Ibidem*.



Badago —behar bezala esplikatzen ez den arren— hiru-garren argudio bat argitaratzaileen aldetik:

Beste zenbait gauza, Mirandek horrekin eta harekin izandako eztabaidetaz zen; arazo mingarria hauxe, eta gure ustez gaur egun politika aldetik batere probetxurik gabea<sup>588</sup>.

Mirandek bere ingurukoekin izan zituen liskarrak halako antologia batean lekurik ote zeukaten eztabaidaz kanpo utzirik, bitxia bada, bederen, testu horien *probetxugarritasun politikoa* aipatzea.

Txomin Peillen ez zuten konbentzituko. Miranderi alde guztietatik zetozkion zentsurak salatu zituen, eskuinetik zetozkionak bezala, ezkerretik zetozkionak. Gogor mintzo da, zehazki, progresisten zabarkeriaz:

Jon Miranderen obran agertzen direnak, duela ehun urte azaldu dira Europako literatura guzietan, eta oraindik euskaldunek ez dituzte onartzen. Badirudi atzeraka gabiltzala: Zaitegi eta Ibiñagabeitia eskandalizatu ez zituen lanak, oraingo “progresistak” egiten baititu. Egia, zentsuraren giroan bizi izan direnek nekez ikas dezaketela kontzientzi askatasuna Euskal-errian bizitzen<sup>589</sup>...

Mirandek berak, aipatu dugunez, bi muturretan ikusten zuen dogmatikotasun berbera:

---

588 *Ibidem*.

589 Peillen, Tx.: *Jon Mirandere-*ren* idazlan hautatuak*, op. cit., 28.

Euskaldunekin berriz, disgustua eduki zuen, kristau dogmakeriatik marxista dogmakeriarat erortzen ikustean, beren ideologia bat pentsatzera saiatu gabe<sup>590</sup>.

Baina, nire ustez, zentsurak zentsura, zentsorearen jarduera gaitzetsita ere, zentsura saio guztiak ezin dira zaku berean sartu. Sektore progresista horrentzat bazegoen zerbait eskandalagarria baino gehiago Miranderen obran: haren ideologia politiko faxista.

Miranderen literatura heterodoxoak eskuin kristaua asaldatu zuen bitartean, Miranderen ideologiak, aldizkari ezberdinetan argitaratu zituen artikuluen bidez ezaguturazi zuenak, eskuinean eta ezkerrean aurkitu zituen aurkariak.

Bere ideia arrazista eta faxistek esplikatzen dute, gure ustez, Mirandek Euskal Herrian izan zuen bakardade absolutua. Iparraldean nazismo alemana bizi izan zutelako, agian, eta, Hegoaldean, faxismo frankista pairatzen ari zirelako, seguruenik.

Mirandek hainbeste kritikatu zuen euskal *zintzotasunak* zentzumena erakutsi zuen, zorionez. Eta hain *zintzoa* izan ez arren, Mirandek inoiz onartu ez zuen abertzaletasun modernoak, beste irtenbide batzuk asmatu zituen, arrazakeria baztertuz, ezkerretik, elkartasunaren bidez.

---

590 *Ibidem.*, 24.

## **Paradigmatik Euskal Herrira**

Miranderen pentsamendua faxismoaren paradigmaren barruan aztertzea hartu dugu helburutzat artikulu honetan. Hor kokatzen baitira bete-betean haren oinarritzko ideia eta egitura kognitiboak. Halere, irakurketa paradigmaticoak beti du arriskua, berez konplexua dena sinplifikatzen baitu gehienetan.

Eta Mirande autore konplexua zen, kontraesankorra. Gotorra eta xamurra, une berean. Hedonista eta tragikoa. Faxista zen eta, halaber, abertzalea, abertzale erradikala. Euskal Herrian ezagutu ez dugun molde bateko abertzalea. Peillen eta Azurmendi bat datoz horretan.

Ikuspegi paradigmaticoa hartu beharrak, hain zuzen, kanpoan utzi du Miranderen abertzaletasuna.

Baina, adierazi dugu, lehenago, gure ustez, Miranderen ideologia faxistak ezin duela gutxietsi Euskal Herriaren alde egin zuen lana, ezta errefusatu ere, kulturgintzan eta naziogintzan egin zituen proposamenak. Horiek ere iradoki ditugu: euskara jarri zuen euskalduntasunaren ardatzean; goi-mailara jaso nahi zuen euskal kultura; Herrien Europaren mapan kokatu zuen Euskal Herria; erromantizismo puntu bat eskatzen zuen, maitasun puntu bat, bihotz puntu bat, nazioaren defentsan; euskal espiritu zaharra, uler bedi, euskal kultura zaharra nahi zuen berritu, nortasunaren borrokan, hots, paganismo aurre-kristaua; ezin hobeto karakterizatu zituen Frantziako eta Espainiako demokrazietan ardiz mozorroturiko otsokeriak; burujabetza borrokatzen saiatu zen, Nafarroako Estatua; bortizkeriaren beharra aldarrikatu zuenean, ezintasun nazionalaren sintomak erakutsi zituen, laster —kontrako testuinguru

ideologiko batean egonagatik— gertatuko zena iragarri ez ezik; eta abar.

Gauza bat, bederen, ezin zaio ukatu: edozein eztabaida ideologikotan hasita, Euskal Herri konkretura jaisteko egin zuen ahalegin nekagabea. Eredu politikoei buruz ari izan zenean, Euskal Herrian errefusatu egiten ditu demokrazia kristaua, marxismoa eta alderdien egitura; kristautasuna baino gehiago, beronek Euskal Herrian izan dituen kultur eta moral-praxi konkretuak maiseatuko ditu; euskal lurreen lekutzen ditu paganismoa eta erromantizismoa; euskal herritarrarentzat egiten dio kritika arrazionalismo estuari; heziketaz arduratzen denean Euskal Herriaren heziketa du gogoan; euskal nazioaren burujabetasunaren alde planteatzen ditu bortizkeria eta herri-higikunde para-faxista delakoa; eta abar.

Horren guztiaren azterketa beste batean beharko da izan, ordea. Azurmendik egin duena baino hobeto ez genuke egingo, gainera.



## **Emilio Lopez Adan**

Nora Arbelbide

### **«Euskal idazleen artean bada jarrera Miranderen faxismoa, arrazismoa eta horrelako gauzak lanbro baten gibelean emateko»**

Jon Miranderen faxismoaz iritzi argia dauka Emilio Lopez Adanek, 1998ko 106. zenbakiko Jakin aldizkariak *Mirande arazo* izenburupeko bilduman idatzi zuen *Jon Mirande, eskuin muturreko idazlea* artikuluan jadanik azaldu zuena. 15 urte berantago artikulua horren haritik dator elkarrizketa. Kezkati segitzen du Lopez Adanek, Mirande eskuin muturrekoa dela ez baita aski zehazten bere iduriko, eta horren zergatien bila dabil.

### **Faxismoaren banalizatzea ez dela onargarria azpimarratu zenuen Jakineko artikuluan jada. Mirande irakurriz, Mirande maitatuz eta Mirande aipatzean, faxismoa banalizatzen dugu?**

Dena kontuan hartu behar da. Begira, Céline, XX. mendeko Frantziako idazle nagusienetariko bat da. Haren liburua irakurri ditut debozinez, bereziki, *Voyage au bout de la nuit* eta *Casse-pipe*. Batez ere jende xehearen heinean jartzen delarik, munduari begiratzeko herraz eta gorrotoz. Nik oso enpatia handia dut Célinerekin. Baina eskuin muturreko idazlea zen. Orain, Céline *la Pléiaden* argitaratua da. La Pléiadeko lanen editorea den Henri Godardek haren biografia publikatu du. Biografian zer ikusten duzu? Godardek, dudarik gabe, Céline maite du, baina aipatzen du eskuin muturrekoa dela, argi eta garbi, zergatik eta nola,

azalpen guziak ematen ditu. Eta argi eta garbi erraiten du: horrek guztiak “mintzen gaitu”. Zergatik ezin daiteke Mirandez gauza bera erran? Izpiritu batzuek ez da ondo ikusia horien gogoratzea. Baina Mirandez okupatzen den izpiritu argi batek, egia erran behar du bezala. Nazismoa ez da gauza banala. Oso gauza ikaragarria izan da, eta da. Hori da aferak.

### **Miranderekin, bere eskuin muturreko joerak ez ditugu aski azpimarratzen zure ustez?**

Euskal idazleen artean bada jarrera oso hedatua, nonbait, Miranderen faxismoa, arrazismoa eta horrelako gauzak, lanbro baten gibelean emateko. Gauza baikorrak, berriz, azpimarratzen dira. Hau da, badakigu kultura zeltikoen aldekoa zela. Badakigu literatura ingelesa irakurria zuela. Badakigu oso euskara ederra landu zuela, berea, partikularra. Hori badakigu. Gero, aldiz, arrazista zen *omen*, faxista baina *berezia*, behar bada *anarkofaxista*... Zer da hori? Faxismo kontuetan lainoa ematen dugu, besteetan ez. Berdin heterodoxoa zela erraiten denean. Problema bat dut horrelako heterodoxiarekin. Garai haietako jeltzaleei buruz, partidu nazionalistako giristino-demokratei buruz, eskandalagarria zen, bai, heterodoxoa zen. Baina arrazaz, juduez, antisemitismoaz publikatu duen guzia konparatzen baduzu eskuin muturreko jarraitzaileek garaian zituzten ideiekin, ez da batere heterodoxoa. Guztiz ortodoxoa da. Eta, horretaz, haren hein intelektuala lurra bezain apala da. Karrika bazterreko ostatu frantsesetan erraiten ziren gauza berberak dira. Hori ez da haren ohoreko.

## **Orduan zer? tronpatu gara denak Miranderen baitan idazle handia ikustean? Ze, zure artikuluan literatura merkea ere aipatzen duzu...**

Kasu horietan, eduki politiko-zientifikoa duten idazki horietan, bai.

## **Galdera litzateke zergatik ukatzen den gaur egun haren eskuin muturreko joera hori? Hori da zure kezka?**

Hori da nire kezka nagusia. Mirandek berak errana du ehun mila aldiz eskuin muturrekoa dela. Erori da eskuin muturreko arrunckeria guztietan. Arrazismo merkean, antisemitismoan, negazionismoan. Hark ukatu egin zituen kontzentrazio zelaien existentzia eta hainbeste juduen hiltzea. Gero, *Haur besoetakoan* ikusten den misoginia lotzen baduzu esklabo eta nagusiaren arteko dialektikarekin, non esklaboak sufritu behar duen eta nagusia aizu den nahi duena egitera... Ba, hori eskuin muturreko filosofia komuna da, eta hori guztia hark errebindikatu egin du. Baita erabili ere lagunen kontra eta oso modu itsusian. Federico Krutwig laguna izanik ere, Mirande, Txema Larreak *Miranderen lan kritikoak* (1985, Pamiela) liburuan ekartzen duen artikulua gogor batean, Krutwig judua zela edo ez zela ari zen eta, azkenean, judua zela eta, beraz, ez gurea, hori idatzi zuen. Hain ebidentea da... Nik erraiten dut jendeak jakin behar duela zertan ari den. Adibidez, Miranderen olerki asko musikatu dituen kantari bati entzun nion ikastolan erran ziotela Mirande gizon errebeldea eta miresgarria zela. Eta gero irakurri zizkiola olerkiak eta gustatu. Ongi. Baina zekarren ideia zen gizon errebelde miresgarriarena.



Zokoratua, baztertua. Irudi hori, ikastolan eman ziotena, ez da zuzena. Beste irudi bat izanik, behar bada ez zuen irakurriko, edo agian bai. Eta irakurrita maite badu, musika ditzan olerkiak, zergatik ez? Problema ez da Mirande debekatzea. Ez dut batere horrelakorik proposatzen. Baina harritzen naiz 2013an Baionan egiten dela ekitaldi bat, eta handik jende gaztea ateratzen dela ideia batekin erranez ba, gizon pertsekutatua, marjinatua, miresgarria izan zela. Eta behar bada, *omen*, *baliteke* zerbait ikusirik izatea nazismoarekin. Baina ez dela argia antisemita zenik, testu arrazista gordinik ez zaiola ezagutzen, haren lagun naziak ez zirela hain naziak baizik eta bretoi abertzaleak eta abertzaleak izateagatik Frantziak fusilatu zituztela... Informazio faltsuak dira horiek, giro batzuetan oso topikoak, usu borondate hoberenaz emanak ere, baina faltsuak. Testu arrazistak Enbata aldizkariko lehen zenbakietan dira, antisemitak Larrearen liburuan, eta uniforme naziz jantzita makien errepresioan zirenen epaiketak edozein liburu espezializatutan. Ez da arrazoirik horrelako informazio faltsuak biziartzeko. Ez da normala. Zerbait gertatu da gure artean... eta horrek asko kezkatzen nau.

**Denbora hartu zuten bere garaian publikatzeko, *Haur Besoetakoa* 1959an idatzia eta 1970an publikatu zuten, Aresti izan zen bultzatzaile. Txomin Peillenek erranik, Arestik errana eta idatzia omen du, Miranderen obra ezagutu ez balu, sekulan ez zuela euskaraz idatziko. Hori ere zerbait da.**

Horrenbeste ez dakit. Aresti idazle komunista zen eta hau idatzi zuen lehen edizio hartan: "Astoa ostikoka hasten

denean, berdin jotzen du ezkerrera eta eskuinera. Haren ostiko kideak gara”. Partidu nazionalistak bideratzen zuen ideologia demokrata-kristau kontserbadoreak ostikoak banatzen zituen heterodoxo guztien kontra. Berdin ezkerrekoak, berdin eskuinekoak. Baina ostikokide izanik ere, oso desberdinak ziren. Arestik ez du bere burua identifikatzen Miranderen ideologiarekin. Onartzen dio, berriz, literaturan duen lekua. Gaur egunean gauzak asko aldatu dira. Arestirena irakurri behar da publikatu zen momentuan, euskal nazionalismoaren eskuineko pasta hausten ari zenean. Lan hori egina izan da, bereziki, 1960 eta 1970 urteen artean. Hor gertatu zen deslotze ideologikoa. Hor erran zen argi eta garbi euskaldunak ez garela fededunak, ez dela Jainkoa eta Euskal Herria identifikatzekorik, ez dela sinetsi behar euskaldunak beti izan garela nobleak, beti zuzenak, beti zintzoak. Edo hemen dauden desberdinkeria sozial guztiak kanpotik etorritako kontaminazioak direla. Horrelako ideologiaren kontra borrokatu zen momentu hartan. Eta beraz, ez da harrigarria noizbehinka aurkitzea Mirande Krutwigen ondoan, nahiz eta kritiken abiapuntuak eta helburuak oso desberdinak izan. Ez zen harrigarria euskal nazionalismoaren itxura giristino-konbentzionalarekin denok hausten ari zirelako. Irudi dominante baten aurka ari zen konfliktoa. Baina orain, orain hori bukatu da. Ideologikoki aspalditik gainditua dago. Orain, eztabaida beste tesuinguru batean planteatzen da. Eta Miranderen goraipatzea gertatu zen batez ere 70-80etatik aurrera: han, euskal abertzaletasun kulturalan ezkerre nagusi zenean, hedatu zen mirandezaletasunaren garai hoberena.

### **Miranderen miresmena nondik ikusten duzu lotua bilakaera horri?**

Nire iduriko Miranderen eskuin muturreko errealitatea behar bezala argitzeko borondaterik ez bada izan, hain zuzen izan da, Mirande demokraziaren etsai izan delako. Eta nonbait, hala nola noizbehinka besteen ostiko kideak izan garen ezkerria eta eskuina, batzuetan elkarrekin ostiko emaileak gertatu gara. Etsaia dugun demokraziaren aurka, edozein demokraziaren etsaiei hurbildu garelako uste dut.

### **Kritika ez da xamurra... Miranderen eskuin muturreko hori ez badugu argiki salatzen, horrek eskuin muturreko egiten gaitu?**

Ez gaitu eskuin muturreko egiten. Ez da hori. Demokraziaren etsai izan zaitezke arrazoi anitzengatik. Demokraziaren etsaiak biltzeko kontzeptua ez da faxismoa, totalitarismoa baizik. Edo, sistema politiko gisa, diktadura. Ezkerreko totalitarismoak eta ezkerreko diktadurak badira. Totalitarismoa ezkerria eta eskuina baino zabalagoa da. Niretzat ez da dudarik: gurean hortik hartu behar da afera. Mirande zuritu duten guztiak nonbait eskuin muturrekoak direla..., ez dut horrelakorik erran, ez eta erranen ere. Ez eta pentsatu ere. Gehienetan bestaldean eman behar ditugu. Ezker muturrean. Eta ezker muturrean badira jende totalitarioak. Oraino zehatzago: gurean estatu demokratiko zanpatzaileen aurka izan diren asko eta asko tolerantreak izan dira etsaien etsaiekin, eta horregatik erlatibismo politiko eta morala hobetsi dute.

**Hainbesteko totalitarismora joan gabe, horrelako gizona izan zenaren idatziak gustukoak direla eta, gizon horren gehiegikeriak lausotzen dira, behar bada, norberaren gustuaren kontradikzioak lausotzeko?**

Hori egia litzateke anbiguetate horren paraleloan ez bazen jarrera totalitario antidemokratikoen hedatze filosofiko eta politiko bat izan. Eta hori izan da.

**Zein garaiz ari zara? Gaurkoaz?**

Orain agian askoz gutxiago aipatuko da, orain ezker abertzaleak hartu baitu demokraziaren plegua. Eta orain dena da demokrazia. Baina duela gutxi arte demokraziaren kritikatzeari ezker abertzale ideologikoaren osakin bat izan da, ea ongi konprenitzen garen...

**Adibidez, egunkari bat hesten duelarik demokrazia batek, kritikatzeko ahal da ez? Demokrazia hori dea?**

Demokrazia hori dea?... Espainiako estatuak, formalki demokratikoa izanik ere, hartu dituen erabaki anitz ez dira demokratikoak. Egunkariarena bezala, bistan dena.

**Orduan, ez zaitu egiten antidemokrata demokrazia kritikatzeko... Espainiak hesten baditu egunkariak, ez da demokrazia bat...**

Hori esan dezakezu. Egunkaria hesten duen Espainia ez da estatu demokratikoa. Eta hori onartzen dizut. Demokraziaren formak baditu, baina egin dituenak ez dira demokraziarenak. Baina hori da demokraziaren izenean egiten

zaion kritika. Bestela da erraiten baduzu, eman dezagun, sistema demokratiko osoa txerrikeria bat dela... Oro har, demokrazia herrien askatasunaren aurka dela... Ba, nahasia da. Uler daiteke, demokraziak ez badu egiten egin behar duena, bota zerri askara! Ongi. Baina izan daiteke ere, demokrazia berez, oro har, ez dela gurea, ez dela ona guretzat.

### **Zuk hori ikusten duzu?**

Askotan ikusi eta entzun ditut horrelakoak.

### **Eta Miranderi buruz idatzi eta erran diren gauza anitzetan hori ikusten duzu?**

Gauza batzuetan bai. Erran nahi baita, erraiten dugularik faxismoa gaizki zela. Bai, ados, dioskute, baina faxismoak hau egin bazuen, demokraziak, hau, hori eta bestea. Erantzunak onesten du horrelako erlatibismo bat. Azken finean, faxismoa eta demokrazia berdin direla, edo ez-kerraren hizkuntza hartuta, biok kapitalismo patriarkalistaren formak direla. Alternatiba? Garai batean, horrelako edo halako leninismo bortitza. Eta horrela lotura egiten zen boterearen arazoarekin. Hemen, dioskute, garrantzia duena zer da? Irabaztea. Irabaz dezagun. Irabazteko zer behar da? Bestea baino azkarrago izan. Irabaziko dugunean orduan izango da justizia. Baina bitartean, jo. Eta indartsuenek irabaziko dute. Nire ustez, pentsaera okerra da, eta eskuin muturrari hurbiltzen gaitu. Dominazioa helburu duen indarra ez da berez justifikatzen den gauza naturala. Indarra erabiltzen da helburu batendako, demokrazia bezala. Sistema demokratikoa jendeen askatasuna

bermatzeko sortu da: erabiltzen bada jendea zapaltzeko, kontradikzioan da. Biolentzia, hain zuzen, legitimoa da askatasuna begiratzeko erabiltzen duzunean, zanpatua zarelako. Baina biolentzia erabiltzen baduzu boterea lortzeko, boterea finkatzeko, hori ez. Alta, arazoa nahasia da, zeren eta libre izateko boterea behar dugula pentsatzen baduzu, hori ez ba berez pentsaera totalitarioa... Hor sartzen gara eztabaidetan... Baina eztabaida filosofiko horietan bada, hala eta guztiz ere, gaindi ezin daitekeen marra bat. Hauxe da: Mirande bezalako jendearentzat bortizkeria da nagusiak berea duen tresna naturala. Eta guztiz normala zaio ahulak, azpi-arrazak eta azpi-pertsonak zanpatzeko erabiltzea. Horregatik daukazu haren artikulu terriblea, Lizarrako juduen programaz, juduen hiltzea justifikatzeko eta goraiatzeko. Erdi Aroan gertatu zen. Lizarrako juduak hil zituzten. Honi buruz badauka bere hitza gure Mirandek. “Gure arbasoen «bidegabekeria» horretaz ahalketu behar dugua egungo Euskaldunok? Nire ustez, bozkariotu behar genduke, orduko Euskaldunek beren ondoreko anhitzetan guttiagotarzun-komplexua ez zutela bai ordea bertzeen enda baino gehiagotzat euskal enda ioiten zutela derakhusate-ta”. Enda, erran nahi baita arraza.

**2010an Bilboko Arriagan Miranderen *Haur Besoetakoaren* irakurketa publikoaren aurkezpenean, Bernardo Atxagak hauxe erran zuen: «Ez diogu barkatu behar euskaraz idatzi zuelako». Bada hortik ere?**

Barkatu behar... nik ez nuke erabiliko “barkatu” hitz hori. Gero, euskaraz idazteak ez du eskubide berezirik ematen.

Badira euskaraz idatzi duten asko egun ahantziak, berdin ezkerrekoak, berdin eskuinekoak. Miranderekin zaletasun handia eta aski itsua izan bada, politika aldetik bederen, nik uste gehiago dela demokraziaren etsai gorria izanik lotura bat izan duelako Euskal Herrian diren jarrera ezkertiar totalitarioekin. Politikoak eta filosofikoak. Ezkerraren jarrera totalitario batetik eta demokrazia atakatzeko, badira noiz-behinka tolerantziak, berdin loturak, eskuin muturrarekin. Errealitate horrekin lehendabiziko historia Belgikan izan nuen 1973an. Oso ondo gogoratzen dut. Belgikan urtero egiten da eskuin muturreko kontzentrazio bat Diksmuide herrian; edozein entziklopediatan aurkitzen da haren zentzua: “annual international gathering of para-military neo-fascist groups.” Bestalde, han lehen gerla mundialean hil anitz izan zen, gerlako hilendako bada oso monumentu handia eta flandriarrek han egiten zuten kontzentrazio abertzale handia. Afera gehiago nahasteko, flandriarrek bazuten problema bat. Belgikan, Frantzian ez bezala, naziekin kolaboratu zutenentzat amnistiarik ez zela izan eta etengabe eskatzen zutela. Beraz, gerlaren ondoan, abertzale flandriar eta nazien kolaboratzaileentzat amnistia eskatzen zutenak elkartzen ziren Diksmuiden. Eta Europa guztitik eskuin muturreko jendea joaten zen. Urte hartan, Euskadi zuten gaia. Eta ETA gomitatu. Eta hara joan behar zela... Batzuek erran genuen: «Gu Diksmuidera? Ez eta lotuta ere». Delegazio ofizial bat joan zen, Diksmuidera gomitatu gintuztenak abertzaleak zirela-eta. Nahi duzuna, baina eskuin muturrarekin ekitaldi politiko batera joatea, elkarrekin esateko “Europa eta Munduko Herri zanpatuak, bil zaitezte!” ... zer nahasmendua! Batzuk hara joan ziren,

hizlari gero Herri Batasuneko buruzagi ezagunena izanen zena. Batzuk. Erran dezadan eskuin muturrarekiko zaletasuna ez dela izan ezker abertzaleko jarrera nagusia, ez eta urrik ere. Politika aktiboan, ez. Baina kontzeptuetan, han eta hemen aurkitzen da erlatibismorako nahikoa jarrera. Eta Miranderen kasuan hori oso ongi ispilatzen da.

### **Obra eta pertsona, biak berezi ezinak ikusten dituzu?**

Hilak dira gaur egunean bai Céline, bai Mirande. Pertsonekin ez dugu harremanik izaten ahal. Eskuin muturrekoa zela jakiteak niri ez dit kalterik egiten maite edo hunkitzen nauena irakurtzeko. Jakite horrek ez dizu kentzen irakurtzerik.

**Baina berriz etortzeko pertsona eta obraren arteko bereizketa horretara, Felipe Juaristik, Aurelia Arkotxak *Jon Mirande Orhoituz (1925-1972)* (Gipuzkoako Foru Aldundia-Donostiako Udala, 1997) liburuan idatzi *Mirande eta Thanatos: heriotza heroikoa* artikuluz egin kritikaz hauxe idatzi zuen *El Diario Vasco* egunkarian 1998an: «Garrantzitsuena idatzitakoa da (poesia alegia), poesiak salbatuko baitu poeta, ezerk (edo inork) salbatzekotan». **Horretaz zer diozu?****

Kasu. Arkotxa, Juaristi, aipatu dituzu. Ni, berriz, ez naiz gauza Miranderen kritika literarioa egiteko, ez da nire lana, ez naiz horretan aditua. Irakurlea naiz, maite dut irakurtzea, baina ez dut horretarako formakuntzarik. Ez eta emeiarik ere horrelako lanik egiteko. Nirea kritika politiko eta fi-



losifikoa da. Diotenean «Poesia interesatzen zaigu eta ez poeta», ba, oso ondo, ez diet ezetz esango. Kezkatzen nau Miranderen jarrera politikoei buruz ematen den interpretazio faltsuak. Horrek kezkatzen nau eta horretaz idatzi dut. Idatzia dut prosa arrunta dela gauza batzuetan, arazo politiko-zientifikoaz aritzen denean bereziki, oso ideia arruntak dituela. Ari naiz prosaren edukiaz, ez formaz. Erran nahi baita, eta har ditzagun testuak: erraiten duelarik munduan hiru arraza badirela, bata besteak baino gehiago dela, hori denek dakitela, eta hori aurkezten duenean ebidentzia zientifiko bat bezala, barkatu, baina ez da ebidentzia zientifikoa; barkatu, ez da batere egia; eta barkatu, baina hori, pentsaera aldetik, eskuin muturreko pentzean kokatzen da eta han lurra bezain apala da. Eskuin muturreko pentsaera arruntena da. Denboran idazle giristinoak eskandalizatu ziren Mirandek hitz berdeak erabiltzen zituelarik euskaraz. Guri bost. Baina frantsesez erraiten duenean *la youtrerie*, hori juduak (*la juiverie*) erraiteko modu argotikoa da, mespretxuz kargatua. Eta ez da hitz berdea, hitz arrunta bai, goitik beheiti markatua eskuin muturrekoek bakarrik erabiltzen dutelako. Eta arrazen kontu horrekin, bada beste puntu bat. Anitzek erraiten dute XIX. mendean denek, ezkerrekoek ere, erabiltzen zituztela horrelako terminoak, arrazak direla eta batzuk besteak baino gehiago direla ere, eta konparazioe Jules Ferry Frantzian edo Sabino Arana Euskal Herrian... Hori guztia entzuna dugu, isil gaitezen. Baina Mirandek idazten du bigarren mundu gerra bukatuta. Hau da, juduen esterminazioa gertatuta. Gainera negazionista da. Beste arrunkeria bat, eskuin muturraren alorrekoa. Eta arrunkeriaren ginean, larrikeria. Ez da gau-

za bera arrazena XIX. mendean edo 1960etan erraitea. Goiko arrazak, beheko arrazak, azpi-jendeak, odol garbitasuna, arrazen arteko ezkontzen kalteak.... Ez da gauza bera. Ez da posible defendatzea horrelakorik erraiten duena izpiritu handi bat dela.

**Mirande irakurtzean, denek, bakoitzak, irakurle gisa egiten du liburua, ukatu gabe nor den, baina, literatura eremu aske bat ere bada...**

Kultura zabala baldin baduzu, hobe. Baldin badakizu nor den Céline, nor den Mirande, irakurtzen duzunean, gustu estetiko ateratzen ahal diozu, berdin kasu batzuetan enpatia bat berak defendatzen dituen jendeekin edo baloreekin, eta hainbat hobe zuretzat. Zentsurarik ez dugu behar. Publikatzen da, eta zuk irakurtzen duzu nahi duzunean. Baina on da interpretatzeko momentuan askatasuna ukan dezazun informatua zarelako. Informazio faltsuak edo partzialak kalteak eragiten ditu. Jendeak erraiten duelarik, eman dezagun, urte haietan Mirande partidu nazionalistaren etsai zela, eta, gehiago dena, biolentziaren aldekoa Euskadi askatzeko. Informatua ez den batek zer pentsatzen du? “Ño, hori, ETArekin zegoen”. Ba, ez, ideologia aldetik ETAren etsai nagusienetakoa zen Mirande. Erraiten baitzuen: ETArena marxismoa da eta marxismoa juduek sortu ideologia... Hori, eskuin muturreko beste baieztapen arrunt bat. Eta zergatik sortu zuten juduek marxismoa? Eskuin muturraren ustekerian, gu, zuriak, arioak, antzinarako europarrak, nobleak gara. Biolentzia noblea erabiltzen dugu, gizon gisa. Eta juduek, azpi-jendeak baitira, ez dute giza-noblezia erabiltzeko gaitasunik. Dena egiten dute ju-

kutriaz. Behin kristautasunaren bidez, gero marxismoaz, esklaboei eman diete jukutriaren bidez nagusiaren kontra altxatzeko gutizia. Hori da eskuin muturreko eta Miranderen ikusmoldea: esklaboen altxamendua jukutriaz sustatzen duten juduak, horiek direla marxismoaren gibelean. Eta horixe zela ETA. Mirandek zaldun bortitzen ordenu militar bat nahi zuen Euskadi askatzeko, eta horregatik zen ETAREN etsaia hasiera-hasieratik. Gero, informazio txarrek zer gertatzen da? Euskal abertzale ezkertiar batzuk despistatzen direla? Hori baino larriagoa ere: bada Espainian euskal abertzaletasun osoa arrazismoarekin nahasteko tirria. Eta gure biolentziaren sorreran aipatzen bada Mirande bezalako pertsonaia bat, bereziki guhaurrek gurea bezala aipatzen badugu, orduan bai ematen duela hasi-hasieratik ETAREN biolentzia faxismoak kontaminatzen zuela. Ezker abertzaleko ideologoen artean baldin bada Mirande zuritzeko tendentzia bat, zer gertatzen da? Horrelako ideia faltsuei haize ematen zaiela, denen kaltetan. Gutariko gehienak ez gara horrelakoak.



